# goiena"

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-10-28
EGUBAKOITZA
483. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM





MIREN ARREGI

## Xarmak eta Ordorikak disko berriak

Xarmak saioa egingo du bihar Eskoriatzan | 32



GOIENA

Saskibaloi eskola bateratua Oñati, Arrasate eta Bergarakoek | 28



Nazioarteko trikitilari onenak domekan Oñatin | 31



Azaroaren 2an hasiko da Arrasaten Gurasolandia ekimena | 12




## KOLON MINBIZIARI AURRE HARTUZ

Bailara osora zabaldu dute kolon eta ondeste minbizia goiz detektatzeko kanpaina; Oñatin hasi zuten iaz, eta oso emaitza onak eman ditu | 4

**Lagina lagatzeko kutxak osasun etxe guztietan jarri dituzte; irudian, Aretxabaletako osasun etxeko arduradun Clemente Domingo agertzen da herritar bati argibideak ematen.**

MIREIA BIKUÑA

# Atez ateko sistemarekin, urrian %92 birziklatu dute Antzuolan

Mankomunitate berriak bailara osora zabalduko du sistema | 2,25

## "Gaurko gazteek badituzte balioak, baina lidergoa falta zaie"



Jabier Retegi | Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakaria | 8

## 41 postu bihar Aramaion baserritarren azokan | 26





## ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38











SINADURAK
MIKEL LEZAMIZ | 6
MIRARI ALTUBE | 6
AITOR IZAGIRRE | 12
MAITE PLAZAOLA | 17
OIER PEÑAGARIKAKO | 25
ROSA MONDRAGON | 26
XABIER ZUBIZARRETA | 40

# Zaborren arazoa bukatzeko, atez atekoa indarra hartzen doa

- Mankomunitate berriak atez atekoa bultzatuko du
- Arrasate Zero Zabor taldea eguenean aurkeztuko da
- Antzuolan, hondakinen %92 birziklatu dute urrian



**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Debagoienean atez ateko hondakin bilketa sistemaren esperientziak, Antzuolakoak, baditu ia zortzi hilabete, eta inguruko herrien arreta pizten jarraitzen du: Urretxuko Zero Zabor plataformakoak eta Oñatiko eta Elgetako udaletako ordezkariak gaur, egubakoitza, dira Antzuolara joatekoak, sistema bertatik bertara ezagutzera. Datuak oso onak dira: Antzuolako Udalaren datuen arabera, gero eta gehiago birziklatzen joan dira, hondakinen %92 birziklatzera ailegatu arte, eta biltzen den guztiaren erdia materia organikoa da. Errefusa oso txikia da: %8,04. Urriko datuak dira horiek.

Udaleko teknikari Markel Azkargortak onartzen du "interes handia sortu" dela, Debagoienean eta kanpoan, Antzuolako esperientziaren inguruan. Gaurko bisitaren aurretik, Oñatiko eta Aretxabaletako Zero Zabor taldeenak, Urretxu eta Legazpiko udalenak eta Bergarako zinegotzi batek interes pertsonalarengatik egin zuena izan zituzten, beste batzuen artean.

### Atez atekoaren egutegia

Antzuolan atez atekoak izan duen arrakastatik abiatuta, Debagoieneko Mankomunitatearen asmoa da bailara osora zabaltzea. Oraingoan, gainera, bailarako herri guztietako udalak aukera horren aldekoak dira, joan den agintaldian ez bezala; orduko udalbatzak (EAJ zen nagusi) bosgarren edukiontzia ipini gura zuen, baina oraingoak (Bildu), ez.

Mankomunitateko kide berriek hartu dituzte euren karguak, eta Arrasateko alkate Inaxio Azkarraga-Urizar da presidente berria. Berak baieztatu du atez atekoa zabaltzeko lan egiten jarraituko dutela, aurreko batzordeak erabaki zuen moduan: "Plangintza orduko berbera da, eta poliki-poliki bailara osoan zabaltzen joango gara atez ateko bilketa. Orain, zelan hedatu aztertzen gabiltza, hainbat aukera daudelako. Lehenengo, egutegi bat markatuko dugu".

Mankomunitateko presidenteak esan du "zehaztu gabe" dagoela hurrengo ze herritan ezarriko den. Iaz, Ingurumen Batzordearen proposamena zen Antzuola eta gero Elgetara eramatea sistema berria. Izan ere, planteamendua zen lehenengo ibarreko herri txikietan ezartzea atez ateko bilketa, eta Elgetan ipintzeko asmoa mahai gainean jarri zen.

### Errauskailua, atez atekoaren laguna

Ingurumen kontuetan aurreratuen dauden herrialdeek ondorio berbera atera dute: Zero Zabor filosofia aplikatu eta, gero, gelditzen den zaborra erre.

Horrela egiten dute, adibidez, Flandrian: hango bi arduradun EHUren eskutik izan ziren Gipuzkoan, eta azaldu zuten atez ateko bilketa egiten dutela, eta birziklatu ezin daitekeena erre egiten dutela. Horretarako, Flandrian 10 errauskailu egin behar izan dituzte.

Alemanian %70 birziklatzen dute eta gorenean daude ingurumen politiketan. Baina han ere, errauskailuak dituzte, eta baita zabortegiak ere, errefusa prozesatu eta gero batzeko. Hurrengo helburua zabortegi guztiak kentzea da.

### Partzuergoaren lehen erabakia

Debagoienean bezala, maiatzeko udal hauteskundeetan Gipuzkoako mapa politikoa aldatu zenetik, atez ateko batzeak gero eta aukera sendoagoak ditu Gipuzkoak zaborrekin duen arazoaren konponbidea izateko. Bultzada handiena Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak emango dio. Erakunde horrek joan den eguenean, urriaren 20an, berritu zituen karguak, eta Bildu koalizioko ordezkariek dituzte botoen %84: batetik, ordezkatuta dauden zortzi mankomunitateetatik seitan agintzen dutelako, eta baita Foru Aldundian ere, eta batzar orokorra mankomunitateetako 17 ordezkarik eta Aldundiko hiruk osatzen dutelako. Tartean, Debagoieneko hiru zinegotzi daude partzuergoko batzar orokorrean: Leire Egaña (Oñati), Inma Beristain (Antzuola) eta Josu Pereda (Arrasate). Presidentea ere Bildukoa izango da.

Azken asteotan hainbat komunikabidetan agertu dira partzuergoak erraustegiaren gainean har zitzakeen erabakiaren gaineko kontuak. Bada, Debagoieneko ordezkari Josu Peredak dioenez, "oraindik ez da zehaztu" nola eramango diren praktikara asmo guztiak, baina "lehendik erabakia hartuta zegoen, erraustegiaren gainean bospasei urteko atzerapena eskatu da, eta hori izan zen partzuergoak bere administrazio kontseiluan hartu zuen lehenengo erabakia; hain zuzen, aurreko kontseiluak proiektuari emandako onespena bertan behera uztea".

Horrekin batera, atez ateko bilketa sistema Gipuzkoa osoan zabaltzea da Bilduren helburua, eta Debagoiena horren isla da.

### DATUA

**104**
MILIOI EURO
Aurreko partzuergoak 104 milioitan kalkulatu zituen errauskailua gerarazteagatik ordaindu beharrekoak.

**385**
MILIOI EURO
Joan den agintaldian planteatuta zegoen moduan, errauskailuak 385 milioiko aurrekontua zeukan.

### Zabortegien bukaera

Hondakinen Partzuergoaren helburuak betetzen joaten diren bitartean hondakinak zelan kudeatuko diren eta zer egingo den zabortegien saturazioaren gainean, hori zehaztu beharko dute orain erakundeek.

Oraingoz, Ingurumen diputatu eta Hondakinen Partzuergoko eledun Juan Carlos Alduntzinek esan du errauskailua "gaur egun planteatuta dagoen bezala" (hau da, aurreko Partzuergoak bere PIGRUG edo hondakinen kudeaketa planean definitu zuen errauskailua) dela baztertzen dutena.

Ingurumen diputatuak azaldu du eztabaida "serioa eta sakona" hasi behar dutela lehenbailehen inplikatutako erakunde guztiek eta Batzar Nagusiek, eta esan du proiektua bertan behera uztea erabaki dela "PIGRUG egin zenetik hona aldagarriak beste batzuk direlako: zabor gutxiago sortzen



GOIENA

da, eta erre behar den zatia txikiagoa da".

Gaur egungo zabortegien sistemara bueltarik ez da egongo: "Gipuzkoako zabortegi guztiak ixtea da Foru Aldundiaren helburu garbia", esan zien Alduntzinek komunikabideei.

Partzuergoko aurreko arduradunek eskatu zuten txosten baten arabera, errauskailua gerazteak 104 milioi ordaindu beharra ekarriko dio Partzuergoari. Diru hori kalte-ordainetan ordaindu beharko du, esaten du azterketa horrek. Errauskailua ren obrak 385 milioiko aurrekontua zuen.

Oraingoz, zabalik jarraitzen dute Gipuzkoan hiru zabortegik, San Marcoskoa (Donostia) itxi eta gero: Lapatx (Azpeitia), Sasieta (Beasain, Debagoienari ere zerbitzua ematen diona) eta Urteta (Zarautz). Donostiako zaborra hiru horien artean banatzen da eta, horren truke, mankomunitate horiek eskatu zuten errauskailua Donostian egon zedila.

### "Bilduk baditu datu horiek"

Polemika hori Bergarako Udaleko osoko bilkuran erreproduzitu zen eguaztenean. PSE-EEk aurreko partzuergoak egindako plangintza defendatu zuen, errauskailua barne, eta mozio bat aurkeztu zuen. EAJko Aintzane Oiarbidek argudiatu zuen errauskailuak "beharrezkoak" direla, eta Flandriako kasua ipini zuen: Europako birziklatze maila "handiena" duen eskualdean, errauskailuak dituztela esan zuen, eta Bilduk datu horiek badituela gaineratu zuen.

Mozio alternatiboa aurkeztu zuen Bilduk, errauskailuaren proiektuaren atzerapena defenditu, eta aurrera egin zuen udal gobernuaren (Bildu eta Aralar) botoekin; aurka bozkatu zuten PSE-EEk eta EAJk.

### Talde berria

Zaborrekin zer egin gaur egun Gipuzkoak duen arazo larrienetako bat da, eta herritarrak ere horrekin arduratuta daude. Horrek erakuslea da Gipuzkoako herri askotan sortu diren Zero Zabor taldeak. Debagoienean ere badaude batzuk: Oñatin eta, sortu berri, Arrasaten. Hain zuzen, Arrasateko taldea oraintxe eratu da, eta euren burua aurkeztuko diote herritarroi hitzaldian: hain zuzen, azaroaren 3an, datorren eguenean egingo dute aurkezpena, Kulturaten, 19:00etan. Hitzaldia Oñatiko Zero Zabor taldeko kideek egingo dute, eta zaborren arazoaren eta zaborrak kudeatzeko dauden aukeren inguruko hainbat argibide emango dituzte. Horrekin lotuta, "Zero Zabor filosofiaren beharra" azalduko dute, eta euren apustua ere bai: atez ateko zabor bilketa.

### "Jarrera ona ikusi dugu"

Oñatiko taldeak ibilbide polita dauka: urtarrilean batu ziren hondakinen arazoarekin kezkatuta zeuden hainbat herritar, eta emaitza onak izan dituzte. Hala, gero eta jende gehiago batu dira eta gaur egun 15 bat kide dira. Taldea eratu zen momentuan, gainera, Oñatiko Udala bosgarren edukiontziaren aldekoa zen. Oñati Zero Zabor taldeko Haizea Agirrek honela dio: "Kezkatuta geunden, eta uste genuen bosgarren edukiontzia baino alternatiba hobeak bazeudela".

Hala, atez atekoaren aldeko kanpaina aurrera eraman dute aurten, denetariko ekintzekin: martxoan, Zubietan egin zen *flash-mob*-ean parte hartu zuten, beste 2.000 lagun ingururekin, errauskailuaren aurka zeudela esateko; sindikatu eta alderdi politikoei eskatu diete Usurbilgo Ituna izenpetu zezatela; Oñatiko San Miguel jaietan, informazio mahaia ipini zuten, sinadurak batu zituzten eta koloretako haize errotatxoak saldu zituzten.

Haizea Agirreren esanetan, "poliki-poliki, oñatiarrak badabiltza kontzientzia hartzen". Bestalde, Udalarekin ere egon dira: "Oraingo udalbatza ere atez atekoaren alde dago, eta elkarrizketarako oso jarrera ona erakutsi digute".

Zero Zabor taldearekin bat egin gura duenak horretarako aukera dauka: Santa Marina plazan batzen dira astelehenero, 19:00etan; bestalde, Facebook sare sozialean ere profila daukate.

### Koloretako errotak

Gipuzkoako Zero Zabor mugimenduak badauzka bi ikur nabarmen: batetik, euren logotipoa; eta, bestetik, Oñatiko balkoi askotan ikusten den haize errota. Zero Zabor taldekoek azaltzen dute horren esangura: "Erraustegiaren aurkako ikurra da. Haize errotarekin ematen dugun leloa da *Aire garbiak bira nazan*, eta, hain zuzen, errotatxoak kutsaduraren aurka gaudela erakutsi gura du".

Gipuzkoako Zero Zaborren webgunea hauxe da: *www.gipuzkoazz.com/zerozabor*.

---

**AITOR ODRIOZOLA** | ARRASATE ZERO ZABOR TALDEKOA

## "Arrandegira gure ontziarekin joan gaitezke, eta paperik ez erabili"



JON BEREZIBAR

Sortu berri da Arrasate Zero Zabor taldea. Garrantzitsua ikusten dute hondakinen bilketa sistemaren gaineko eztabaida sortzea eta zabaltzea Debagoienean. Aitor Odriozola kideak Jon Berezibar kazetariari esan bezala, "eguneroko keinuekin ere zabor kopurua txiki daiteke".

**Zein da Zero Zabor filosofia eta ze on ekar dezake?**

Hiru gauzatan eragitean datza: zaborra prebenitu, ez sortu; bigarrenik, berrerabili. Adibidez, plastikozko poltsak behin eta berriz erabiltzea; eta hirugarrena, birziklatu.

**Atez ateko bilketaren alde zaudete...**

Bai, ikusi dugulako atez ateko sistemarekin gero eta gehiago birziklatzen dela. Gipuzkoan jarri den lekuetan –Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolan–, hala izan da: %20 birziklatzetik %80ra pasatu dira. Oso abantaila handia da.

**Uste duzu jendeak samur hartuko duela horren kontzientzia?**

Horrelako aldaketa bat eragitea zaila izaten da, baina, behin informatuta, jendeak atez atekoaren alde egiten du, eta inportantea da ere gure herentzia ez dadila izan zaborra.

**Egunerokoan gauza asko egin daitezke.**

Bai. Erosteko orduan, arrandegira edo harategira gure sakotontziarekin joaten bagara, ez dugu hango papera erabiliko; eta jogurtak kristalezko poteetan eros ditzakegu, edo guk geuk prestatu jogurta.

---

**ESANAK**

**"Atez atekoa bailara osora zabaldu nahi dugu, pixkanaka"**
INAXIO AZKARRAGA-URIZAR | MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA

**"Partzuergoak bete egin behar du PIGRUGeko planifikazioa"**
ARANTZA TAPIA | INGURUMEN FORU BATZORDEKO EAJ-KO KIDEA

**"Eztabaida sakona eta serioa behar da zaborren inguruan"**
JUAN CARLOS ALDUNTZIN | INGURUMEN DIPUTATUA

# Bailara osora zabaldu dute kolon minbizia garaiz detektatzeko kanpaina

## Oñatin hasi zuten iaz eta oso emaitza onak izan ditu

**MIREIA BIKUÑA** | ARETXABALETA
Kolon eta ondeste minbizia goiz detektatzeko programa abian da Debagoieneko herri guztietan. Iaz deialdia egin zuten Oñatin, eta, emaitzak ikusita, ibarreko gainerako herrietara zabaldu dute. "Oñatiko deialdiak jaso zuen erantzuna ikaragarria izan zen, eta horrek asko motibatzen gaitu. Oraingo deialdiarekin gure asmoa ez da Oñatiko datuak hobetzea, baina bai herritarrengana heldu eta prebentzioa zabaltzea", esan digu Aretxabaletako osasun etxeko arduradun Clemente Domingok.

Azken finean, hori da martxan ipini duten kanpainaren helburu nagusia: prebentzioa. "Gaixotasuna goiz harrapatu behar dugu, oraindik sintomarik ez dagoenean. Hala, tratamendu goiztiarra jar daiteke. Fase horietan eraginkorragoa izaten da", dio Domingok.

**Adina faktore garrantzitsua**
Programan parte hartzeko gonbidapena jaso dute 50 eta 69 urte arteko gizonezko eta emakumezko guztiek. "Adina oso faktore eraginkorra da 50 urtetik gorako pertsonengan eta gertatzen diren kasuen gehienek ez dute aurrekaririk familian. Kasuen %80k hasiera dute hesteetan sortzen den polipo batean, 10 urtean zehar gaizta daitekeena", esan digu Domingok.

> **ESANAK**
>
> **"Sintomarik ez dagoenean harrapatu behar dugu gaixotasuna"**
>
> **"Tratamendu goiztiarra erakingorragoa izaten da"**
>
> CLEMENTE DOMINGO
> ARETXABALETAKO OSASUN ETXEKO ARDURADUNA

Eskutitz pertsonalizatua jaso dute etxean adin tarte horretako gizon eta emakumeek, informazioarekin eta kaka-lagina hartzeko kitarekin. Gutuna jaso eta hiru eguneko epean lagina eraman beharko dute euren anbulatoriora eta han dauden kutxetan utzi. "Oso inportantea da gutunean doan barra-kodea potean ipintzea. Pertsona bakoitzak barra-kode bat dauka, pribatutasuna gordetzeko. Pegatina ipintzen ezinbestekoa da", azpimarratu du.

Emaitzak programan parte hartu duten pertsonei eta euren familia-medikuari bidaliko zaizkie. Testaren emaitza positiboa denean, familia-medikuak kolonoskopia egiteko proposatuko du, diagnostikoa konfirmatzeko. Orduan, probak egiteko beharrezkoa den protokoloa martxan ipiniko dute. Aldiz, emaitza negatiboa bada, mediku endoskopistak berak adieraziko dio emaitza pazienteari.

Proba egiten ez dutenei beste deialdi bat egingo diete.

**Hilkortasun handiena du**
Kolon eta ondesteko minbizia da herrialde garatuetan hilkortasun handiena sortzen duen minbizi mota, baita EAEn ere. Gizonen artean hilkortasun handiena sortzen duen bigarren minbizi mota da, prostatako minbiziaren ostean, baita emakumeengan ere, bularreko minbiziaren ostean.

Hori horrela izanik, Osakidetzak bularreko minbizia garaiz detektatzeko kanpaina berria ipini du martxan: aurrekariak dituzten 40 eta 49 urte arteko emakumeei zuzendutakoa. Orain arte Osakidetzak mamografiak egin izan dizkie 50 eta 69 urte arteko emakume guztiei, bi urtean behin. Hilaren 10etik mamografiak egingo dizkie aurrekariek dituzten 40-49 urte arteko emakumeei. Ama edo ahizpa bularreko minbiziarekin izan duten emakumeei egingo diete mamografia.

Osakidetzak emandako datuen arabera adin tarte horretako 170.000 emakume daude. Erdiek orain jasoko dute gutuna etxean eta aurrekariak dituzten jakiteko telefono deia jasoko dutela esango zaie. Gainerakoek 2012an jasoko dute gutuna.

Osakidetzaren ustez, emakume horien %6ri egin beharko diete mamografia, aurrekariak dituzten seinale.

> ### Oñatin erantzun bikaina izan zuen
>
> Oñatin erantzun bikaina izan zuen kolon eta ondesteko minbizia aurrez detektatzeko kanpainak. 2.500 gonbidapen bidali zituzten gutun bidez eta 1.831k (%73,3) egin zuen proba. Horietatik 118 emaitza positiboak izan ziren. Hori horrela, 105 kolonoskopia egin zituzten, eta, haietan, garapen askotariko 65 polipo antzeman zituzten. Dena den, gehienak (60) gaiztotu bakoak ziren. Arrisku handiko 27 adenoma topatu zituzten eta bost kartzinoma.



Jardunaldietako parte-hartzaileak eguaztenean. | JULEN IRIONDO

# Debagoieneko odolosteak eta onddoak protagonista

## Bergarako erreileno eta tostoiak ere dastatu ahal izango dira IX. jardunaldi gastronomikoetan

**M.B.** | ARRASATE
Debagoieneko odolosteak eta onddoak izango dira IX. jardunaldi gastronomikoetako menuek komunean izango dituzten jakiak. Urriaren 28tik abenduaren 11ra izango dira, eta, ohi bezala, Debagoieneko kultura, sukaldaritza eta jakiak ezagutzera emateko aukera paregabea eskainiko dute.

Parte hartuko duten jatetxeek –Arrasateko Hilarion, Hamalau eta Santa Ana; Bergarako Lasa eta Zumelaga; Elgetako Maialde Hotela; eta Oñatiko Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluze– odolostez eta onddoz egindako menu bereziak eskainiko dituzte, prezio berezian: bi lehen plater, bi bigarren plater, postrea, edateko txakolina, Cruzcampo Gran Reserva garagardoa, sagardoa edo ardo ondua eta La Brasileña kafea.

Bestalde, jatetxe bakoitzeko plateretako bat Cruzcampo Gran Reservarekin egindakoa izango da. Hain justu, etxe horrek eta La Brasileña kafeek babesten dituzte IX. jardunaldiok eta garagardo eta kafe dastatzeak ere antolatu dituzte.

**Erreileno eta tostoiak**
Jardunaldion beste berrikuntza bat da Bergarako erreileno eta tostoiak era artisauan latzen dituzten Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozo-denden produktuok ezagutzera emateko dastatzea antolatu dutela azaroaren 19rako, 18:00etan, Bergarako Munibe plazan.

Eskaintza gastronomikoarekin batera, bailarako eskaintza turistikoa ezagutzeko hainbat aukera ere proposatu dituzte. Eskaintza osoa: *www.turismodebagoiena.com*.

# Keinuen hizkuntza ikasteko aukera dago urtarrilean Bergarako Aransgi eskolan

**M.B.** | ARRASATE
Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu, Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren laguntzarekin. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta eta elkarteak Bergaran duen egoitzan izango dira eskolak, urtarriletik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira eta hastapen eta sakontze mailak egongo dira. Hastapen ikastaroko eskolei dagokienez, eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara, eta prezioa 85 euro da. Izena emateko deitu 943 76 27 03 zenbakira.

ITZIARKO FERIA

EGITARAUA:
09:00etan, feriaren irekiera.
10:00etan, 'Western' ikuskizuna, Goimek ondoko zelaian.
11:00etan, idi ederrenen lehiaketa.
13:00etan, sari banaketa.
15:00etan, azokaren itxiera.
18:00etan, goi mailako idi-probak plazan.

Egun osoan
Trikitilariak egongo dira bazterrak alaitzen.
Tonbola egongo da herri ekimenaren alde.

azaroak 1 asteartea

AUZOLANA DA ETORKIZUNA

Antolatzailea
HERRIA SORTZEN

## Bi emakume zaurituta Aretxabaletan haizetearen ondorioz

Herriko plazako etxeetako baten, sabai-leihoa airean eroan zuen haizeteak eguaztenean 22:30 aldera eta plazan zeuden bi emakume zauritu zituen. 3x3 metroko egurrez eta txapaz egindako sabai-leihoa zen eta emakumeetako bat azpian harrapatu zuen plazara erori zenean; besteak kolpeak jaso zituen. Bertan zeuden herritarrek lagundu zieten biei eta hamar minutura anbulantzia etorri eta eroan egin zituen. Kolpeak eta zauriak izan arren, ez zuten konorterik galdu.

## Joxe Ramon Bengoetxeak irekiko du UNEDeko ikasturtea

Gaur, egubakoitza, 19:00etan egingo dute Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan UNEDeko ikasturte berria irekitzeko ekitaldia. Hain justu, irekiera hitzaldia Joxe Ramon Bengoetxea EHUko irakasle eta 2010eko Eusko Ikaskuntza saridunak egingo du. *Zuzena adarretatik heldu. El reencuentro del Derecho y la Razon Practica* delako berbaldia egingo du. Martin Garitano diputatu nagusiak ere hartuko du parte ekitaldian.



Jabier Retegi. | ENEKO AZKARATE



M. Carmen Gallastegi. | JAKIUNDE



Itziar Astiasaran. | JAKIUNDE



Jon Markaide. | JAKIUNDE



Jesus Mari Ugalde. | JAKIUNDE

# Jakiundeko jakintsuek Bergaran egingo dute osoko bilkura azaroan

### Armendarizek, Moneok eta Atxagak, besteak beste, osatzen dute akademia

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, Bergaran egingo du udazkeneko osoko bilkura. Hilaren 18an izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta akademia osatzen duten 44 jakintsuetako ia gehienak batuko dira han.

Osoko bilkura egubakoitzean izango den arren, hiru eguneko egonaldia egingo dute Bergaran Jakiundeko kideek; hilaren 16tik 18ra, eguaztenetik egubakoitzera, hain justu ere, eta osoko bilkurarekin batera beste hainbat ekintza ere egingo dituzte. Horietako batzuk herritarrekin partekatuko dituzten ekitaldiak dira, gainera: hitzaldi bi eta ikasleekin topaketa.

**Ekitaldi irekiak**

Hilaren 16an Jakiundeko bi akademiko bergarar, Mari Carmen Gallastegi ekonomilaria eta Jesus Mari Ugalde fisikari-kimikoa Ipintza institutuko ikasleekin batuko dira, 12:00etan, institutuan bertan, Topaketak ekimenaren barruan.

Egitasmo hori Jakiundek bultzatutakoa da eta helburua da akademikoen eta irakaskuntza ertaineko azken urteetako ikasleen zein unibertsitateko lehen urteetakoen arteko elkarrizketa irekiak ematea. Hala, ikasleek edozein gairi buruz berba egin ahal izango dute akademikoekin eta haiek euren esperientzien berri emango diete ikasleei, euren bizipenetatik, ibilbide profesionaletatik eta irakasgaietatik abiatuta.

Horrekin batera, herritar guztiei zabalik egongo den hitzaldia ere antolatu dute hilaren 16rako, Bergarako Udalarekin elkarlanean. Jesus Mari Ugalde fisikari-kimikoak eta Amaia Zurututza Grapheneako zuzendariak egingo dute, Kimikaren Nazioarteko Urtearen testuinguruan Hitzaldi hori osoko bilkuren aretoan izango da, 19:30ean.

Hilaren 17an, hausnarketarako foroa egingo dute Jakiundeko ia kide guztiek Irizar jauregian. Hor, akademiak dituen proiektuak aztertuko dituzte eta lehentasunak zehaztu.

Foroa bukatu eta gero, organo kontzertua eta hitzaldi irekia egongo ditu 20:00etan, Santa Marina parrokian Benantzi Bilbao musikari eta organistak.

**44 jakintsu**

Bernadro Atxaga idazleak, Montxo Armendariz zinema zuzendariak, Maria Bayo sopranoak, Pedro Miguel Etxenike fisikariak –akademiako lehendakaira da–, Esther Ferrer artista plastikoak eta Rafael Moneo arkitektoak osatzen dute, besteak beste, akademia. Debagoieneko bost jakintsu daude: Itziar Astiasaran farmazialaria, Mari Carmen Gallastegi ekonomialaria, Jon Markaide astronomoa, Jabier Retegi ingeniari teknikoa eta Jesus Mari Ugalde fisikari-kimikaria.


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*blasaga@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## ZABALIK



**MIKEL LEZAMIZ**
http://goiena.net/iritzia/

# Independentzia eguna noizko?

Aste honetan, Kanada eta Estatu Batuetako talde batekin ibiltzean, urriaren 25eko eguna Autonomia Egunaren jaia zela bazekiten eta esan nien ez dela beraien Independentzia Eguna bezala. Berehalaxe ulertu zidaten zer esan nahi nuen.

Gure jaiegun hau artifiziala da eta jende gutxik ospatuko du. Enpresari batzuek diote jaiegun gehiegi dauzkagula astean zehar eta oraindik jai gehiago jartzen dizkigute.

Oraingo Euskal Gobernuak uste du autonomiarekin nahiko daukagula eta Espainol Estatuaren barruan gustura sentituko dela jende gehiena, baina Euskal Herriaren independentziaren uholdea hasita dago eta gelditu ezina izango da.

> **"Euskal Herriaren independentziaren uholdea gelditu ezina izango da"**

Gazteria gero eta abertzaleagoa dator, eta, zenbat eta euskaldunagoak izan, independentzia-zaleagoak bihurtzen ari dira.

Azken udal eta diputaziorako hauteskundeek argi adierazi ziguten gazteria alderdi euskaldunen alde zegoela, eta orduan ere beste GOIENA batean adierazi nuen nola aldaketa soziologikoa datorrela gazteei begira.

Datorren azaroaren 20an berriro hauteskundeak izango ditugu eta orduantxe ikusiko dugu benetako uholdearen indarra, eta ziur naiz horrelakoa izango dela.

Gainera, oraingotan ETAren adierazpenarekin egoera soziopolitiko berria sortzen da hemen eta suspertzea handiagoa izango da, eta jendea gogoz helduko da botoa ematera.

Itxaropen handia daukat Euskadirentzat haize bolada baikorra helduko dela eta baita Madrilen ere zeresan handia emango dugula oraingotan Kataluniarekin batera. Ziur asko, hango gobernuaren giltza berriro ere geure eta katalanen esku izango dugu, ez baitu inork izango gehiengo osorik, eta beste alderdi batzuen adostasuna lortu beharko dute gobernua osatzeko.

## USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | aretxabaleta@goiena.com

# Dirua herritarren eskuetan

Irakurri dut *Herrijorran* ekimena jarri duela abian Oñatiko Udalak, eta harrituta geratu naiz. Harrituta alderdiek kanpaina egin bitartean esaten dutena, "herritarren parte-hartzea bultzatuko dugu" eta antzekoak, betetzeko asmoa dutelako. Harrituta udal aurrekontua jarriko dutelako herritarren eskura. Eta harrituta hori guztia antolatzeak dakarren lan eta burukominari heltzeko gertu daudelako: aurrelana teknikariekin; 11 batzar herritarrekin; batzarretan esandakoekin zirriborroak egin; zuzenketendako tartea eman... Kontuan har gaitzatela oihukatu izan dugu herritarrok, zer eskatzen gabiltzan ondo jakin barik. Oñatin orain dute aukera.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ereserkia

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Ez nuke zorrotzegi edo ezkorregi agertu nahi baina nago irakurle sotila jabetuko dela zertaz ari naizen, baldin zenbait euskal ekoizpen ikusi beharrak eragin ohi duen alferkeria gogorarazten badut.

Adibidetan murgiltzeke, horrelakorik sekula sentitu ez duena, edo on hutsa da edo euskal kontsumitzaile agorra.

*Bertsolari* dokumentala (Asier Altuna, Txintxua Films 2011), ordea, hasiera beretik da ekoizpen txukuna, landua, ondo egituratua, nondik datorren eta nora joan nahi duen ondotxo dakiena, eta, jakiteaz gainera, ahaleginean asmatzen duena.

Alde batetik, edozein ekoizpen arrunti honezkero eska dakizkiokeen oinarri-oinarrizko baldintzak betetzen ditu, alegia:

Irudi ona (oso ona), audio erruz argia, hari egituratua, mezu ulergarria, hitz-jario gardena eta komunikazio zuzena, eta abar, eta abar.

Normala, naturala, egokia, atsegina, ikusleari ezelango ahalegin erantsirik eskatzen ez diona, hain zuzen ere.

Hau da, informazio adiskidetsua eta plazerra.

Eta, beste alde batetik, oinarrizko baldintzez gaindi eta haboro, sormena eta irudimena uholdeka, olerti-punttua, ikur-jokoak eta asmakizun-aldrak... hainbatetan lartxo errepikatuak badira ere:

Aldazko harrobiak, Zarauzko hondartza, aurrekoz atzerako urraspideak edo Oteizarekiko ordainak.

Zenbaitek esango du (arrazoiz), ez dela 85 minutuan kritikarik edo lausorik txikerrenaren aztarren-izpirik ere.

Baina nork esan du hori denik ezein ereserkiren zeregina?

INPUT'95, telebista publikoen nazioarteko topaketarik behinena, orain 16 urte bildu zen Donostian.

Hain zuzen ere, ordurako nahi izan zuen Euskal Telebistak bertsolaritza gaineko dokumentala ekoiztu, bertsolariaren buruaren baitan gertatu ohi den jarduera munduan zehar azaldu gurarik edo.

Asier Altunak adierazi du ekoizpen hau kanpoan ere ulergarri eta baliagarri izan dadin egin nahi izan duela.

Ez dakit, egia esan, zenbait pasarte (Xalbadorrena, kasu) zein neurritan ulergarri gertatu ahal izango den Euskal Herritik kanpo, baina aitortu behar dut Mikel Lerjartzak gogoan zuena nabarmen "kanpotiarragoa" zela, zentzu guztietan...

Zer gerta ere, egitasmo harek ez zuen aurrera egin.

Gainera, orduan ez zen BEC-ik, ezta egungo Asier Altunarik eta Andoni Egañarik ere.

Are gutxiago Maialen Lujanbiorik.

Segurutik den-denak ez du azken hamabost urteotan onera egin gurean.

Baina bertsolaritzak bai, nonbait, *Bertsolari* ikusi besterik ez dago.

Honezkero Bertsozale Elkarteak badu bere ereserkia.

Orain gainerako guztiei eskubide berbera onartzea besterik ez zaio falta.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## Oñatiko igeriketa ikastaroen harira...

**Juan Luis Ugarte**
(Guraso talde baten izenean)
Oñati

Oskar Carrascal jaunak, orain bi aste, Jose Luis Ugarteri erantzun zion, baina ni Juan Luis Ugarte naiz.

Gure zalantzen erantzunei buruzko idatziari lau gauza azpimarratu nahi dizkiogu:

-Lehenik, esan, badakigula zerbitzu publiko bat zer den eta zein lan egin behar duen. Esaldi horrek ez zuen esan nahi gauza guztiak gaizki egiten dituzuenik, baizik eta gaizki egiten direnak zuzendu egin behar direla, besterik ez.

-Mila esker zozketa sistemarena argitzearren, gure lehenengo zalantza eta printzipalena zela adierazi nahi izan genuen, zeren eta zerrendak ikusita, eta nahiz eta izen bakoitzak ondoan ez eduki puntuaziorik, onartutakoen artean "puntu guztiak" ez dituen ume bat edo beste baitzegoen eta ordezkoen zerrendan puntu guztiak betetzen zituzten beste ume batzuk.

-Jakinean gaude daukagun instalazioek limitatu egiten dutela, baina hori aspaldikoa da, dagoenarekin moldatu behar.

-Azkenik, gure ustez, igerian irakasteko, kontraesanean erortzen zarete: alde batetik, praktikaren erregulartasun programatu bat eskatzen duela diozu; eta bestetik, ez duzue urte batetik besterako jarraipenik garantizatzen. Eta, gainera, ume batzuei bakarrik ematen zaie aukera, aurreko urtean ikastaroan egon ez den haur batek ez du aukerarik edukiko hurrengo urtean, eta hurrengoan. Proposatu genuen ikasturtea bitan banatzea beste kiroldegi batzuetan egiten dutelako. Suposatzen dugu beste kiroldegiek ere igeriketa maila minimo batzuk garantizatuko dituztela.

Mila esker zure arretagatik, besterik gabe.

## Euskaraz gutxi biltzarrean

**Beñi Agirre**
Hernani

Oñatiko historialarien II. biltzarreko ponentzien izenburuak ikusita euskararen presentzia urria izan dela ondorioztatu dute batzuek. Baten batek euskara-gaztelania portzentajea atera eta prentsa-ohar kritikoa egiteko ere baliatu izan du.

Bihoaz lerro xume hauen bidez gauzak zuzen egiten ari direla uste duenaren ez aitzakia, iritzia baizik.

Hainbat elkarteren laguntzaz Nabarraldek antolatu duen historialarien biltzarra ez da adituen ponentzietara mugatu. Oñatiarren ekimenez antolatutako ekitaldietan: batxilergo ikasleekin saio didaktikoa, helduekin afari tematikoa, kooperatiba-enpresa batean hitzaldia, erakusketa, Joseba Tapiaren kontzertua… denak %100 euskaraz izan ziren.

Oñati ezagutzeko bi bisitaldi gidatu antolatu ziren biltzarrera bertaratutakoekin. Biak oñatiar euskaldun jakintsuen eskutik. Bata, euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Ponentziak, berriz, honela izan ziren: 14 gaztelaniaz (%70) eta 6 euskaraz (%30). Aitzakiatzat har daiteke, baina, *Berria* eta Euskal ITB izan ezik, abertzaleen gainerako hedabide nazionalak, zoritxarrez, ez dira arrimatu ere egiten portzentaje horietara. Eta ez dirudi joera aldatzeko inongo asmorik dutenik.

Aitzakiak aitzakia, elkarte batean bildutako jendearen euskalduntasuna neurtzeko portzentajeak erabiltzea, testuingurua, prozesua, joera, jokaera, mezua eta beste hainbat aldagai kontuan hartu gabe, bidegabea ez ezik, "motza" ere iruditzen zait.

Adibidez: denok dakigu sortu berria zen Euskaltzaindia hartako biltzarrak eta euskarari buruzko lehen lan gehienak gaztelaniaz egin zirela. Zorionez, gaur egun euskararen gainean lan egiten duten adituek, portzentaje handiz, euskaldunak dira. Horri esker, Euskaltzaindiaren biltzarrak eta argitalpenak, itzulpenak kanpo, portzentaje handiz euskaraz sortuak dira.

Ibilbide luzea egin da. Garaiko egoera halakoa zen eta orain bestelakoa da. Gaur egun Euskararen Errege Akademiari asko eta alde askotatik kritika dakioke; gutxi, ordea, bere xedea den euskararen erabileran. Gauza bera Nabarralderi, berean. Euskal Herriaren historiaren gainean ikerketa lan garrantzitsuetan ari diren aditu askok atzerriko unibertsitateetan edo gaztelaniaz edo frantsesez egin dute prestaketa. Ez dakite euskaraz, ez da aitzakia, errealitate gordina baizik.

Euskararen normalizazioak eremu berriak irabazi behar ditu. Euskara beraren estandarizazioaz eta hezkuntzaren munduaz gain, egin egin dira aurrerapenak lan munduan, aisialdian… baina asko du oraindik irabazteko; horien artean, gure herriaren identitate eta nazio ikuspegitik historiaren narrazioa egiten ari direnena, zalantzarik gabe.

Egon badira gure herriaren identitate eta nazio ikuspegitik ez, baizik eta, Espainiaren eta Frantziaren egungo *estatu quo*-a justifikatzen duen historiaren bertsioa ematen dutenak euskara dotorean. Edozerk, baina, ez digu balio.

Agian, etorkizuneko Euskal Unibertsitate nafarretik eta besteetatik aterako diren historialari eta ikertzaile askok euskaraz ondo baino hobeto egingo dute. Herri honen identitate eta nazio ikuspegitik jada ari diren ikertzaileekin batera euskararen portzentajea handituko dute; baina oraingo egoera ez da halakoa, egin dezagun lana etorkizunekoa bestelakoa izan dadin. Nabarralde horretan ari delakoan nago.

## Espoloiko biharamunetik

**Nerea Etxezarreta, Idoia Larrañaga eta Nerea Madariaga**
(Espoloiko Jai Batzordearen izenean)
Bergara

Lehenik eta behin, Espoloiko jaien lehen edizio hau sekulakoa izan dela esan beharrean gaude. Jai hauen balorazioa oso positiboa izan da.

Aparteko festa hauek burutu izana ez da Jai Batzordearen lanagatik bakarrik izan. Hau guztia aurrera eramateko hainbat laguntza izan ditugu.

Espoloiko eta inguruko merkatariei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu eskaini diguten laguntza eta animoengatik. Baita Espoloiko tabernariei ere, gure egitaraua burutzeko eskainitako laguntza eta erraztasunengatik. Bergarako Udalak ere dena aurrera eramateko eskatutako bitarteko guztiak eskaini dizkigu. Mila esker zuei ere.

Egun osoan zehar Espoloira hurbildu zinetenok ere ezin ahaztu, giro aparta egon baitzen lehen orduetatik hasi eta ordu txikiak arte. Baita bazkarira animatu eta bertan giro bikaina jarri zenuten guztiei ere. Hiru aldiz topa zuen omenez! Eta, nola ez, egitarauko ekintzetan parte hartu duzuenoi.

Datorren urtera begira gogotsu gaude, izandako erantzuna benetan borobila izan baita. Gauzak horren ondo irteten direnean, egindako lan eta neke guztiak ahaztu egiten dira. Eta datorren urterako jadanik indarberrituta gaude!

Espoloiko Jai Batzordearen izenean, eskerrik asko, guztioi. Datorren urterako esperientzia gehiago eta orain artekoa besteko ilusioarekin egitarau potolo bat burutzen saiatuko gara.

Gora, Espoloiko jaiak!

## Lyon–Corbas kolektiboa borrokan

**Mikel Albisu Iriarte, Marixol Iparragirre Guenetxea, Urko Labaka Larrea, Jone Lozano Miranda, Eider Uruburu Zabaleta eta Aletxu Zobaran Arriola**
(Lyon–Corbasko euskal preso politikoen kolektiboa)
Lyon

Urriaren 15ean Lyon-Corbasko kartzelazainen probokazio berri baten aurrean aurkitu gara bertan preso gauzkaten sei euskal preso politikook.

Udaz geroztik kartzelazainen aldetik jazarpen maila areagotu zela-eta (12 egun igaro genituen zigor-ziegetan kartzela barruan kolektiboaren sakabanaketarik ez zela egongo bermatzeko), zuzendaritzarekin gutxieneko bizi-baldintzak lotzeko ahaleginak eta bi egin arren, alferrikakoak izan dira egindako saiakera guztiak. Kartzelako zuzendaritzak, hona ekarri gintuztenetik gure izaera politikoa ukatzeaz gain, gure oinarrizko eskaerei entzungor egiten jarraitu nahiago izan du… azken probokazioa iritsi arte.

Hona ekarri gintuztenetik, orain sei hilabete luze, etengabeko probokazio eta barrabaskeriak kudeatu behar izan baditugu ere, larriena ikustaldi-eremua kudeatzen duen kartzelazain-taldearen aldetik jasan behar izan duguna izan da. Azken bi hilabeteotan, gure militantzia politiko eta armatuari egindako erreferentzia iraingarriak egin izan dizkiguten kartzelazain berek egindako informeen ondorioz, ogitarteko bat ekartzeagatik hilabeteko ikustaldi-baimena bertan behera utzi izan diete gure senide eta lagunei; bikote baten barne-ikustaldian besarkatuta egoteagatik (frantses kartzeletan ez dago ikustaldi intimoak izateko eskubiderik) ikustaldi-baimena emana zuen epailea ohartarazi eta baimena behin betiko bertan behera uztea lortu dute; senide eta lagunak aitzakia txikiena baliatuta utzi izan dituzte kartzelako atarian 800 kilometroko bidaiaren ostean; bikote baten semearekiko ikustaldi ia guzti-guztietan arazoak sortu dituzte…

Giro horretan kokatu behar dira urriaren 15eko gertaerak. Bezperan, goizetik Euskal Herritik abiatu eta Parisen barrena Lyonera iritsi zen haurrari bere gurasoekin batera egotea eragotzi zioten. Zuzendari, epaile, arduradunen oniritzia eta behar ziren baimen guztiak izan arren, ikustaldietako kartzelazain-taldeak eta bereziki larunbat hartan arduradun zegoen kartzelazain-buruak beraiek nahi bezala egingo zela ikustaldia erabaki zuten: haurrak ez zituen bi gurasoak batera ikusiko. Alferrikakoak izan ziren guztion ahalegin eta protestak, beraiek erabakitako inposatzea lortu zuten.

Ondorioak larriak izan ziren. Marixok Iparragirre bultza eta lurrera bota zuten, Jone Lozano ere bultzatu zuten, eta biei eskuburdinak atzean estu lotuta ikustaldien eremutik emakumeen ataleko zigor-ziegetaraino "manu militari" eraman zituzten: airean, burua aurretik, ahospez, eskaileretan gora eta behera, ibilbide luzean. Biek dituzte zauri eta ubeldurak, kolpeak eta gorputz osoa minbera.

Kolektiboaren jarrera irmoak eta sendoak lortu du beren gezurrak agerian uztea, egindako gehiegikeriaz jabetzea eta Marixol eta Jone zigor-ziegetatik atera zitzaten behartzea, jarri nahi zieten zigorra bertan behera utziz.

Aipatu nahi dugu ere emakumeen ataleko gainontzeko presoen aldetik jaso dugun elkartasun eta babes beroa. Euskal presoon aurka egindako gehiegikerien aurrean, zigorra erabaki behar zen tribunaletik igarotzear zeudela, emakume guztiek bazka errefusatu zuten eta ordu laurdeneko burrunba egin zuten Jone eta Marixolen askatasuna eskatuz.

Bizi izan dugun egoera bortitz hau behingoagatik gauzak argi uzteko baliatzea erabaki dugu. Ondoko egunetan kartzelako agintaria arazoaren tamainaz jabetu dela dirudi eta aurrerantzean Lyon-Corbasko euskal presoen eta gure senide eta lagunen arteko ikustaldiak modu eta egoera lasai eta egokian gertatuko direla hitz eman du.

**Jabier Retegi** | Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakaria

# "Gaurko gazteek badituzte balioak, baina falta zaie ikuspegi aurreratua, falta zaie lidergoa"

▶ Arizmendiarrietaz, Eusko Ikaskuntzaz eta unibertsitateaz dihardugu Jakiundeko kidearekin

▶ "Beste ezeren gainetik, pertsonak formatzea izan zen Arizmendiarrietaren helburua"

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakaria, Jakiundeko kidea, MUren sortzaileetakoa, Eusko Jaurlaritzako sailburu izana... eta Arizmendiarrietaren Lagunak elkartekoa, besteak beste, da Jabier Retegi (Bergara, 1937). Denetik egin dugu berba.

**Aurten beteko dira 35 urte On Jose Maria Arizmendiarrieta hil zela eta hori dela-eta mahai-inguru zikloa antolatu duzue, ezta?**

Bai, hala da, Oñatin, Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran antolatu ditugu eta azaroaren 29an amaituko dugu meza batekin. Egun horretan betetzen dira 35 urte Arizmendiarrieta hil zela.

**Zein da ekimen hauen helburua?**

Nahi dugu gogora ekarri On Jose Maria Arizmendiarrieta zer izan zen, edo zer den. Haren mezua, helburuak, egitekoak... gaur egun bizirik dirau.

**35 urte dira, jada, On Jose Maria Arizmendiarrieta hil zela. Zein da haren ekarpen nagusia?**

Fedean oinarritu zuen bere diskurtsoa eta praktika. Baina, batez ere, bere fede sakona ekintzetara eroan zuen, jendartearen mesedetan jarri zuen. Beste ezeren gainetik, pertsonak formatzea izan zen bere helburu nagusia. Teknikoki bai, baina, batez ere, jendartearen eta etorkizunaren alde lan egiteko. Eta, azkenik, esango nuke ikuspegi aurreratua izan zuela eta zetorrenari aurre hartzen jakin zuela. Utopia puntuarekin, betiere. Gaur egun ere beharrezkoa da hori. Eta nabarmenduko nuke herriarentzat baina herriarekin, batez ere, gazteekin, lan egiten jakin zuela. Hala sortu zuen kooperatiben mugimendua. Gaur egun haren balioak sekula baino biziago daudela esango nuke.

**Gaur egungo kooperatibistek, gazteenek batez ere, baloratzen dute hark egindakoa?**

Balio horiek presente daudela esango nuke. Egia da, hala ere, ez direla lantzen eta ez dela hausnarketarik egiten. Lidergoa falta da. Gaurko gazteek badituzte balioak, formazio izugarria daukate, baina falta zaie ikuspegi aurreratua, lidergoa.

**Erretiroa hartu eta Eusko Ikaskuntzan jardun zenuen...**

Bai, sei urte egin nituen lehendakari moduan. Eta, orain, buru -belarri dihardut Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademia martxan jartzen, egonkortzen...

**Horretaz gain, zertan ematen duzu denbora?**



Jabier Retegi, Arrasaten, martizenean. | ENEKO AZKARATE

Eusko Ikaskuntzako eta Jakiundeko kide izatez gain, Arizmendiarrietaren Lagunak elkartekoa ere banaiz eta, bestalde, idatzi ere egiten dut. Badut, gainera, liburu bat idatzia. Argitaratzeke dago. *Neguko loreak* du izenburua. Neguko loreek ez dute ezertarako balio: ez dute fruiturik ematen, ia ez dute kolorerik, usainik ere ez... Zahartzaroaren moduan. Hausnarketak dira, pentsamenduak, askatasunari buruzkoak e.a. Lore solteak, liburuxka bat. Laster aurkeztu nahiko nuke.

**Jakiundeko kideetako bat zara. Azalduko diguzu zein den Jakiunderen egiteko nagusia?**

Herri batek behar duen erakundea da. Beti gabiltza borroka politikoan murgilduta, eta beste maila bat ere landu behar da: pentsamendua. Goi mailako pertsonak dira bertako kideak, jende jakintsua, herri honetan zeresan handia duena. Diziplina askotariko jendea batzen da bertan. Gure jendarteak, etorkizunean, ze behar duen aztertzea du helburu, hausnarketa egitea... Herriak edo erakundeek eskatutako hausnarketak izan daitezke edo Jakiundeko norbaitek, bere ekimenez, egindakoak. Askatasun osoz.

> "Herriarentzat baina herriarekin, batez ere, gazteekin, lan egiten jakin zuen"

> "Jendarteak ze behar duen aztertzea du helburu Jakiundek"

**Jakiundek osoko bilkura egingo du aurki Bergaran. Ze izango da?**

Bi osoko bilkura egiten ditugu urtean. Bata udaberrian eta bestea udazkenean. Eta aurten Bergaran egingo dugu azaroaren 18an, Irizar jauregian eta udaletxean. 16an eta 17an ere elkartuko gara. Proiektuak eztabaidatuko ditugu aurretik eta 18an osokoa egingo dugu.

**Bergaran egongo da, gainera, Jakiunderen egoitza, ezta?**

Bai, Olaso dorrean. Hitzarmen bat sinatuko dugu Olaso Dorrea Sorrerakundearen, Kutxaren eta Jakiunderen artean. Olasoko hirugarren solairua berrituko dugu eta han egongo da Jakiunderen egoitza. Hala, osoko bilkurak egiteaz gain, bestelako ekintzak ere antolatuko ditugu. Hilean behin, esaterako, Jakiundeko mahai iraunkorra batuko da.

**Zenbat kidek osatzen duzue?**

44 kide gaude bertan, baina 80 lagunez osatutako erakundea izango da hemendik urte batzuetara. Pedro Migel Etxenike da lehendakaria eta bertan daude, besteak beste, Jean Haritxelar, Bernardo Atxaga, Maria Bayo, Pedro Armendaritz, Rafael Moneo, Javier Agirresarobe, Inma Shara. Maila handiko jendea, inorekin ezkontzen ez dena.

**MUko errektore izan zinen 1999tik 2002ra arte. Zein izan zen, sasoi hartan, erronka nagusia?**

MU sortu aurretik, 1961ean Eskola Politeknikoan hasi nintzen eta gero, ETEOren sorrera ere jardun nuen. Gerora, MU sortu osteko hasierako urteetan, errektore nintzela, nire ardura izan zen hiru fakultateak batzea. Unibertsitate ikuspegi bateratua sortzea, erakundetzea. Gehienbat, etorkizuneko ikuspegi zabal eta aurreratu bat ematea. Ikuspegi estrategikoa landu genuen, zortzi urtera begira. Unibertsitate eredua finkatu genuen. Gure unibertsitateak izan behar zuen ez oso handia, 4.000 bat ikaslekoa; ikerketara bideratua, hezkuntza bezainbat ikerketara bideratua. Garaia ikerkuntza gunea hala mamitu zen, Mendeberri egitasmoa ere bai... Hau da, etorkizuneko ikuspegi zabal batekin unibertsitatea bideratzea izan zen nire helburu nagusia.

> "Bergarako Olaso dorrean egongo da Jakiunderen egoitza"

> "Nik amestutakoa baino hobea da gaur egun MU; oso pozik nago"

**Asko aldatu da MU ordutik hona?**

Bai, ikaragarrizko indarra hartu du. Asko aberastu da. Ze, esaterako, orduan, ikerketara aurrekontu osoaren %10 edo bideratzen baiten eta gaur egun %30 edo %40, eta %50era heltzeko helburua du. Orduan ez zen doktoretzarik... Nik amestutakoa baino hobea da gaur egun MU. Oso pozik nago.

**Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburu izan zinen 1995etik 1998-ra bitartean. Zela gogoratzen ditu-zu urte haiek?**

Sailburuorde ere egon nintzen, lehenbizi, Jon Azuarekin. 90eko hamarkada hasiera zen. Fabrikak itxi eta itxi. Langabezia tasa %26koa zen... Lan handia izan genuen. Enpresak ixten lagundu eta berriak abian jartzea izan zen gure egitekoa. Lortu genuen, ze Euskadi indartsu atera zen krisitik eta hamarkada oparoa bizi genuen ostean.

**Gaur egungoarekin ez dauka zerikusirik 90eko krisiak?**

Ez. Industria sektorearen krisi basatia izan zen eta inork ez zuen espero hartatik aterako ginenik. Euskadiren etorkizunean ez zuen inork sinisten. Gaur egun ere antzeko prozesuan gaude. Gutxik sinisten dute gure etorkizunean eta nik uste dut dauzkagula inoiz baino aukera handiagoak. Zailagoa izango da, ze ez da industriaren krisia, sistema osoarena baizik. Egituren aldaketa bizkor baten aurrean gaude, iraultza baten aurrean. Erabat ezberdina izango da etorkizuna. Beste jendarte batera, beste eredu batera, goaz. Ikuspegi berria eskatzen du horrek.

**ETAren sorreraren eta amaieraren testigu izan zara...**

Duela 50 urte sortu zen eta, orain, amaiera ikustea izan da oso pozgarria. Guretako zama handia izan da, errobera bareko gurdi astuna mugiaraztea bezala. Eta, hala eta guztiz ere, Euskal Herria aurrera atera da. Orain, pisu hori gainetik kenduta, ikaragarrizko abiada hartuko dugu. Helburua da asmatzea etorkizunean ze Euskal Herri nahi dugun. Eta borrokatu behar dugu Euskal Herri berria sortzeko.



## Arantzazuko Santutegia

*Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI*
*943 78 13 13*
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

**Egunero zabalik**



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**

# Jatetxe Gida



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

**Eskaintza**

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

**Astelehenetan itxita**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

## DUELA 10 URTE

2001-10-26

### Zubiaurreko tunela zulatzen hasi ziren

Bergarako ekialdeko saihesbideko lanen barruan, Zubiaurreko tunela zulatzen hasi ziren urrian. Hasieran, egunean hiruzpalau metro zulatzen zituzten, baina, hil bukaeratik aurrera, egunero sei edo zazpi metro aurreratzen hasi ziren. Denera, 320 metroko tunela egin behar zuten langileek. Esan bezala, tunela ekialdeko saihesbidearen parte zen eta saihesbidea, aldi berean, Beasain-Durango korridorearen zati.



Zubiaurreko tuneleko lanak. | MONIKA BELASTEGI

2001-10-26

### Arizmendi kooperatiba osatu zen

Arizmendi Ikastolak bateratze prozesuaren berri eman zuen. Hain justu, 2001/2002 ikasturtetik aurrera kooperatiba izaera izango zuela eta ordura arte lau ikastetxe zirenek bakarra osatu eta kooperatiba moduan funtzionatzen hasia zegoela: San Frantzisko Xabier, Almen, San Viator eta Umezaintza. 3.000 ikasletik gora batu zituen Arizmendi Ikastolak, 280 langile eta 11 kokagune (Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan).

## DUELA 5 URTE

2006-10-24

### Herriko tabernetan miaketak

Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergarako herriko tabernak miatu zituen egun hartan Ertzaintzak. Herriko tabernen inbentarioa egiteko Auzitegi Goreneko 61. Sala Bereziak emandako aginduari jarraituz egin zituzten miaketok. Bada, horiek salatzeko hainbat protesta egin zituzten.

## HERRITARRAK

ESKORIATZA

**Kepa Isasmendi** 26 urteko eskoriatzar honen ustez, bere herriko jendea herrikoia eta gertukoa da orokorrean, eta horrek "handia den herri txikiari" xarma "berezia" ematen dio

# "Agian, Londresera joango naiz udan, Olinpiar Jokoen aitzakiarekin"

Lanean harrapatu genuen eguazten goizean Kepa Isasmendi eskoriatzarra. Horren gustuko dituen kirol eta umeekin egiten du lan: hain justu, Leintz eskola kirola elkarteko koordinatzailea da Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Haren zaletasunak ezagutu ditugu.

**Jakina da kirola gustuko duzula. Noiztik praktikatzen duzu?**
Txikitan hasi nintzen. Ikasten nengoenean, multikirol moduan ezagutzen dena ere bazegoen, eta ordutik daukat nik oroitzapena. Dena dela, ziurrenik, lehenago hasiko nintzen, gurasoekin mendira joateko zaletasuna izan dugu -eta etxean. Ohituta geunden mendira joatera, eta, agian, hortik etorriko zait niri ere zaletasuna.

**Eskubaloian jokatzen duzu. Noiztik?**
Nik uste dut 12 urterekin-edo hasi nintzela, Almenen. Hasiera gogorra izan zen, gehienek futbolean jokatu nahi zutelako. Baina batzuk eskubaloian hasi ginen, eta sekula ez naiz damutuko pauso hura emateaz.

Gazte mailara iritsi arte Almenen jokatu nuen eta jarraian Arrasatera joan nintzen. Gero, Huescan izan nintzen Gorputz Hezkuntzarako Institutu Nazionala (INEF) ikasten, eta hango talde baten urtebete eman nuen. Hiru urte eman nituen Huescan: bitan asteburuetan etortzen nintzen eta hirugarren ikasturtean, han lagun asko nituenez jokatzea erabaki nuen. Erabaki ona izan zen hura, nahiz eta profesionala ez izan, esperientzia txikia izan nuen-eta profesionaltasunarekin. Bizipen polita izan zen niretako; asko ikasi nuen han. Baina gaur egun eskubaloitik bizi izatea oso utopikoa da.

Azkenik, Arrasatera itzuli nintzen ostera ere; etxean moduan sentitzen naiz han.



Kepa Isasmendi eskoriatzarra, eguaztenean, Eskoriatzan. | MIRIAN BITERI

**"Gurasoekin mendira joateko zaletasuna izan dugu etxean"**

**"Gustura nago Eskoriatzan, baina edozein tokitara joango nintzateke"**

**Zer dauka eskubaloiak futbolak ez duena?**
Gaztea zarenean, 11 edo 12 urterekin, telebistan futbola ikusten duzunez gehiago erakartzen zaitu horrek. Baina gero konturatzen zara beste kirol asko daudela eta horiek ere xarma dutela; esaterako, futbolean hamaika lagunek bakarrik jokatzen dute eta hainbat aldaketa egiteko aukera dago. Eskubaloia eta saskibaloia dinamikoagoak dira, eta partidu guztia jokatzeko aukera ematen du. Txikitan, gehiago edo gutxiago, guztiok jokatzen genuen eta giro ona geneukan. Horixe da eskubaloiak duen alde positiboa.

**Beste kirol batzuk ere ederto asko ezagutzen dituzu, orain zuk zeuk antolatzen duzu-eta umeendako multikirola...**
Hala da. Lehenengo, Irakasle ikasketak egin nituen Gasteizen eta gero, Huescara joan nintzen INEF egitera. Zortea izan nuen, ikasketak amaitu bezain pronto lana aurkitu nuelako. Multikirola antolatzen dut, Leintz eskola kirola elkarteko koordinatzailea naiz Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Oso gustura nago.

**Zer dute gustuko umeek?**
Futbola. Hori ez da aldatu orain dela 15 urtetik hona. Gaur egun, futbol elkarteak oso lan ona ari dira egiten. Dena dela, askotariko kirolak egiten dituzte. Bailaran elkartea duten kirol guztiak lantzen saiatzen gara, gerora begira ume horiek aukera izan dezaten kirol hori Debagoienean praktikatzeko.

**Bestalde, udalekuetan ere ibiltzen zara neska-mutikoekin...**
Bai, sei bat urte daramatzat joaten. Oso esperientzia polita da, bai begirale moduan joaten garenendako, baita ikasleendako ere. Ikastetxeetatik kirolarekin lotuta antolatzen diren udalekuetan parte hartzen dut: esaterako, bizikletan ibiltzera edo mendira. Aurten, Santiago bidea egin dugu. Bestetik, orain dela bi urte, Tourrean izan ginen: Iruñetik irten ginen bizikletan eta Tourmaletera heldu ginen. Oso irteera polita izan zen hori.

**Kirola albo batera utzita, gustura bizi zara Eskoriatzan?**
Gustura nago. Baina edozein tokitara joango nintzateke bizi izatera; beste herrialde batzuetako kulturak ezagutzea beti da aberatsa. Atzerrira joango nintzateke, baina ingeles maila hobetu behar dut. Hori lantzen nabil, eta, agian, datorren urtean Londresera joango naiz, udan, Olinpiar Jokoak han direla aitzakia hartuta.

**Nolakoa da Eskoriatza?**
Handia den herri txikia da. Eskoriatzarrak herrikoiak eta gertukoak dira, eta horrek xarma berezia ematen dio herriari. Eta aipatzekoa da hainbat elkartek egiten duten lana.

### NIRE HERRIAN

**:) KULTURA ELKARTEAK**

Aitzorrotz, Eingeinke eta halako elkarteek egindako lanari esker, ekintzak daude astero. Hori eskertzekoa dela dio.

Bestalde, ingurunea ere oso gustuko duela esan du, eta honakoa gehitu: "Atxorrotz oso polita bada ere, handik gora oso paraje ederrak daude". Gernikako Arbolaren plaza eta Dorleta ere aipatu ditu.

**:( AMAITU BARIK DAUDEN ETXEAK**

Hainbaten parte-hartzea nabarmentzearekin batera, beste herritar batzuen pasibotasuna kritikatu du. Honakoa esan du: "Betikoek egingo dutela lan uste dute; hori ez dut ondo ikusten".

Bestalde, salatu du Intxaurtxuetako sarreran amaitu barik dauden etxeek herriari oso itxura eskasa ematen diotela.

# HERRIAK

ARAMAIO

# Oroimenerako 400 adibide

▸ Udalak 1950a baino lehen Aramaion ateratako 400 argazki batu ditu, artxiboa sortzeko

▸ Azaroan katalogatuko dituzte eta gero, herritarrek erraz ikusteko moduan jarriko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

1950. urtea baino lehen Aramaion ateratako 400 argazki inguru jaso ditu Udalak. Geroagokoak ere badaude, baina gehienek 60 urte baino gehiago dituzte. Zuri-beltzean dira, beraz, eta denetariko argazkiak daude: jaietakoak eta bestelako ospakizunetakoak, nekazaritza jarduna erakusten dutenak, eskola giroan ateratakoak... 400 argazki horietatik 300 bat digitalizatu dituzte dagoeneko.

Lan hori egiteko beka atera zuen Udalak eta Naia Bailez aramaioarra izan zen auzoz auzo, etxez etxe zein baserriz baserri argazkiok batzearen arduraduna. Urtarril amaieran hasi eta maiatzera arte aritu zen lan horretan. Bailez, baina, ez zen auzo guztietara heldu; hala azaltzen du bilketaren ostean egindako memorian: "Interes pertsonala guztiz ase dut, baina ez ditut nahi beste argazki bildu". Hala ere, bilketa lanean ezagutu duen jendearengatik eta bizi izan dituen egoerengatik "esperientzia oso aberasgarria" izan dela dio.

**Ondo katalogatu eta erakutsi**

Udalari interesgarria iruditu zitzaion argazki artxiboa osatzea, herritar bat baino gehiago joan izan delako udaletxera ea aspaldiko argazkiak dituzten galdetzera.

Lehen bilketa horren ostean Udalaren asmoa da argazki horiek guztiak herritarren eskura jartzea, modu errazean ikus ditzaten. Horretarako, argazkiok programa informatiko baten bidez ondo katalogatu behar dituzte, herritarrei modu itxurosoan aurkezteko. Izan ere, argazkiak protagonista, ateratze datarekin eta bestelako informazio osagarriarekin jarriko dira kontsultatzeko moduan.

**Katalogazioa, azaro hasieran**

Bada, Udalak oraindik ez du erabaki argazkiak non eta nola zabaldu. Udaletxean jarriko dituzte, hasiera baten, baina, agian, baita kultura etxean ere. Izan ere, oraindik ez dituzte argazki guztiak digitalizatu eta ez dute katalogazio prozesua hasi.

Udaleko ordezkariak azaro hasieran bilduko dira programa informatiko hori instalatuko duten arduradunekin.



Arexolako jaiak, 1951n. Makilena baserri parean hartutako irudia. | PERUENA BASERRIA




Azkoaga auzoko plazan Juan Ramon, Karmelo eta Donato Kortabarria auto baten ondoan, 1947an. | ETXALUZE BASERRIA



1926an ateratako argazkian, haur mordoa Sastiña kanpoan. | PERUENA BASERRIA



1940ko hamarkadan, gaztainak batzen. | LIZTERRENA BASERRIA



ARTXIBOA

**NAIA BAILEZ**
ARDURADUNA

## "Nire amamak balira bezala egin didate berba, eta hori oso polita da"

Etxez etxeko bilketa ez da erraza izan, baina esperientzia oso aberasgarria izan dela dio. Aramaioko zazpi auzotan jaso ditu argazkiak, eta, beraz, badaki beste asko falta direla.

**Nahi beste argazki jaso ez dituzula diozu. Zergatik?**
Aramaion etxez etxe joateak lan handia dakar. Herri handia da eta auzoz auzo joan beharra dago. Aramaioko14 auzoetatik zazpi auzotan jaso ditut argazkiak. Horregatik diot 400 jaso baditut ere 800 egon daitezkeela, eta guztiak interesgarriak direla.

**Lan handia, baina gustura egindakoa, ezta?**
Pertsonalki oso aberasgarria izan da, lehengo ohiturak eta bizimodua nolakoak ziren lehen eskutik jasotzeko aukera izan dudalako. Istorioak kontatzeko moduak harritu nau, nire amamak balira bezala kontatzen zizkidaten garai hartako gorabeherak. Eta gertutasun hori oso polita izan da niretako.

**Gomendatzeko moduko lana da? Norendako?**
Edonorendako. Lan polita da Aramaion bertan lehen nola bizi ziren jakiteko; plazer hutsa da herriko pertsona nagusien testigantza jasotzea. Adibidez, parrandan egitera Urkiolara oinez joaten zirela entzutea... hori gaur pentsaezina litzateke. Eta uste dut eurei ere gustatzen zaiela pertsona gazte bat ikustea aspaldiko kontuen gainean galdezka.

NIRE USTEZ



AITOR IZAGIRRE

## 'Follonero'-a Arrasaten

Duela gutxi La Sexta telebista katekoak Arrasaten egon dira. *Follonero* deritzan *showman*-a etorri da bere saiorako pasarte batzuk grabatzera. Onartu beharra daukat normalean ez dudala saio hori ikusten, ez dut atsegin; sekula ez dut gustuko izan gizon hori, ez dit barrerik eragiten. Oraingoan, baina, Arrasaten egon zenez ikusi egin dut.

Gustatu zait Pello Urizar, oso komunikatzaile ona dela uste dut, gustura entzun ditut berak esandakoak. Bilduko bi zinegotzirekin ere topo egin du *Folloneroa*-k baina ez du erantzunik jaso.

Nik ere ez nuke erantzungo, oharkabeko galdera horiei erantzutea ez delako erreza izaten eta emandako erantzunak sarritan ez direlako testuinguru egokian kokatzen.

Aritz Arrieta egon da denbora gehien *Folloneroa*-rekin. Bere ibilbide politikoaren hasiera PSEn kokatu du, honek harritu egin nau, UA alderdiko kide ere izan zelako. Ahaztu egin al zaizkio Unidad Alavesan egindako urteak? Egun existitzen ez den eskuineko alderdi hartan Arabako zerrendako hirugarrena izan zen, 2005eko legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Orokorrean oso txarra iruditu zait erreportajea: ezer berririk ez. Arrasaten egon zirela entzun nuenean onartu beharra daukat ikusteko gogoa ere piztu zitzaidala baina ikusitakoak ikusita, ez dut uste berriro ikusiko dudanik saio hori.

**"Oso txarra iruditu zait erreportajea; ezer berririk ez"**

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*

Gubi



ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

# Gurasolandiaren hirugarrena dator, gurasoen inplikazioa lortzeko asmoz

## Azaroaren 2tik 6ra hainbat ekintza izango dira, herriko hiru gunetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

*Ikasi, transmititu eta praktikan ipini!*. Hori da Txatxilipurdik antolatzen duen Gurasolandiaren hirugarren edizioko leloa. Eguaztenean egin zuten aurkezpena, Txatxilipurdiko egoitzan. Gurasoendako ekintza sorta da, eta helburutzat ditu hizkuntza transmisioa bultzatzea eta guraso eta haurren arteko harremanak estimulatzea. Iaz moduan, astebeterako egitaraua prestatu dute, azaroaren 2tik 6ra. Arrasateko gune ezberdinetara helduko da ekimena: hitzaldi eta tailerrak Kulturaten eta erdiguneko gaztegunean egingo dira eta kanpo ekintzak, berriz, Biteri plazan.



Arando, Barberena, Otxandiano eta Pagoaga, aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

### Ekintza guztiak, doakoak

Txatxilipurdiko zuzendari Eneko Barberena eta Guraso Saileko arduradun Aizpea Otxandiano izan ziren aurkezpenean. Eurekin batera egon ziren Larraitz Arando sexologoa eta Itsaso Pagoaga jolasetan aditua, ekimenean parte hartuko duten bi emaile.

Lehen edizioan egun bakarreko jaialdia antolatu zuen Txatxilipurdik, eta Barberenaren arabera, ez zuten aurreikusitako gurasoen inplikazioa lortu. Iaz, berriz, astebeterako ekimen moduan planteatu zuten eta erantzuna desberdina izan zen gaiaren arabera: "Sare sozialen ikastaroan ez zen guraso larregi egon, baina psikomotrizitate tailerrak, esaterako, interes handia piztu zuen", esan zuen Barberenak. Gainera, iaz eguraldiak ez zuen lagundu.

Ekintza guztiak doakoak izango dira eta parte hartzeko dagokion lekura dagokion orduan agertzearekin nahikoa izango da.

### Zaintza zerbitzua

Azaroaren 2an Larraitz Arandok hitzaldia emango du erdiguneko gaztegunean (18:00): *Nerabezaroa eta haurdunaldia*. Hilaren 3an, leku berean, Ixabel Millet ipuin kontalariak *Nola kontatu ipuina* izenburu duen tailerra emango du, 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 4an, ordu tarte berean, *Gurasoak ere jostari* tailerra gidatuko du Itsaso Pagoagak Kulturateko Jokin Zaitegi gelan eta hilaren 5ean Garikoitz Lopez de Munianen eskutik haur masaje tailerra izango da du Kulturateko Loramendi gelan (11:00). Egun berean jostailu erakusketa jarriko dute Jokin Zaitegi gelan, 10:00etatik 13:00etara.

Azkenik, azaroaren 6an Biteri plazan jaialdia egingo dute: aurpegi margotzea, hankapaluak eta eskulanak izango dira, besteak beste. Eguraldi txarra egiten badu bertan behera geratuko da.

Zaintza zerbitzua egongo da gurasoendako ekintzetan. Lehen hiru ekintzak gurasoendako dira; gainerako hirurak, berriz, haur zein gurasoendako.

## Mozambikeren aldeko elkartasun kontzertua Txorbelaren eskutik

Txorbela otxoteak elkartasun kontzertua eskainiko du Kulturateko areto nagusian azaroaren 2an (18:30). Arrasateko Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako kontzertua da, Mundukide fundazioa Mozambiken gauzatzen ari den proiektua laguntzeko.

## Autobus zerbitzu berezia egongo da Domu Santu egunean

Azaroaren 1ean hiri autobus zerbitzu berezia egongo da hilerrira joateko. 10:00etatik 18:30era ordu erdiro irtengo dira autobusak –bazkalorduan ezik, 13:30etik 15:00etara ez da autobusik egongo– Gorostizako geltokitik. Hilerritik azken autobusa 19:00etan irtengo da.

KINTADAK

**1942AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 5ean egingo dute bazkaria, meza eta guzti. Mari Carmenengana jo.

**1958AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 12an egingo dute urteroko bazkaria. Interesatuek 60 euroko ordainketa egin behar dute 3035 0001 59 0011144438 kontu korronte zenbakian. Izen abizenak jarri kontzeptu moduan.

**1959AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 12an egingo dute bazkaria, batzokian. 50 euroko diru sarrera egin 3035 0047 180471081986 kontu korronte zenbakian (Jabier Urzelai).

**1960AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 19an. Izena eman azaroaren 7a baino lehen. 3035 0047 10 0470072778 kontu korrontean 60 euroko sarrera egin, izen abizenak kontzeptu moduan jarrita (Bittor: 630 018 281 eta Kontxi: 652 762 163).



Asteleheneko plenoan egin zen hauteskunde mahaietarako zozketa. | J.B.

## Azkarraga-Urizar: "Gogoz eta ilusioarekin egin dezagun lan"

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 20ko Espainiako hauteskundeetako mahaian nortzuk egon behar diren zehazteko zozketa egin zen astelehe-neko ezohiko plenoan.

Hala, Inaxio Azkarraga-Urizar alkateak aipamen berezia egin zuen plenoa ETAren agiriaren osteko lehen plenoa zela -eta: "Hemendik aurrera aro berri bat zabaltzen da. Orain ez dago aitzakiarik demokraziaren muga bakarra herritarren borondatea dela erakusteko. Aukera paregabe honen aurrean gogoz eta ilusioarekin jar gaitezen denok lanean".

### Hauteskundeetarako zozketa

Hauteskundeetan mahaian egon behar diren herritarrak zehazteko zozketa programa informatiko baten bidez egin ziren, minutu gutxitan. Behin emaitzak jasota ahalik eta lasterren jakinaraziko dio Udalak dagokionari, izan ere, herritarrek alegazioak jarri ahal izateko zazpi egon izango dituzte, jakinarazpena jasotzen duten egunetik hasita.

288 jakinarazpen egin behar dira, etxez etxe: 32 hauteskunde mahai egongo dira eta mahai bakoitzean hiru titular eta sei ordezko.

# Enplegua sustatzeko lanpostuak kaleratu ditu Udalak

EDE Fundazioko lanpostu bat betetzeko tenikari bat behar da; azaroaren 4an bukatzen da deialdia

**IRATI GOITIA** | ARRASATE

Arrasateko Udalak eta Lanbidek enplegua sustatzeko programaren barruan, hainbat lanpostutarako deialdia ireki dute. Guztira, 20 bat lanpostu atera dituzte. Dagoeneko jendea aukeratzeko hainbat prozesu martxan daude, baina beste batzuetarako bigarren deialdia egin da eta atzo bukatu zen horietan izena emateko epea.

### Hamar lanpostu

Bigarren deialdi horretan irten diren lanpostuak honakoak izan dira: bide ingeniari bat, dokumentalista bat, bi basozain, basozain taldeburua, bi peoi, argiketari bat (elektrizista) eta bi pintore. Aurreikusten da hautaketa prozesua azaro erdialdean bukatuko dela.

### Enplegua sustatzea

Enplegua sustatzeko helburuarekin eginiko deialdia izan da eta horregatik langabezian dauden pertsonei zuzendutako lanpostuak izan dira. Horrenbestez, eskaera egin ahal izateko eskatzen ziren baldintzak honakoak ziren: langabezian egotea, Lanbiden izena emanda egotea eta Arrasaten erroldatuta egotea. Horiek baldintza orokorrei zegokionenak ziren, baina lanpostu bakoitzak bazituen bere baldintza espezifikoak ere.

### Teknikaria behar da EDErako

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko haur eta gazteria politiketarako bulego teknikorako aholkulari-teknikari bat behar da. Pertsona horrek bete beharreko funtzioak honakoak izango dira: Foru Aldundiak eta udalek gazteria alorrean aurrera eramaten dituzten proiektuen koordinazioa, planifikazioa, ebaluazioa eta jarraipena egitea. Izena emateko bete beharreko baldintzak dira: Giza Zientzietan lizentziaduna izatea, EGA titulua izatea eta nahitaezkoa da B2 gidabaimena izatea. Interesatuta daudenek azaroaren 4ra arteko epea dute curriculuma bidaltzeko.



ARANTZAZU EZKIBEL

## Brouard gogoan, solasaldia

*Argia Egunak* ekimenaren barruan, *Santi Brouard. Duintasuna omen* izeneko dokumentala proiektatu zuten eguaztenean Kulturaten. Emanaldiaren ostean, Gontzal Landa kazetariak eta Tasio Erkiziak solasaldia izan zuten, Brouarden militantziaren eta bizitzaren inguruan. Erkiziak adierazi zuen Brouard harro egongo litzatekeela egun Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa ezagutuko balu.

## Sorospen eta lehen laguntzan titulua lortzeko ikastaroa

Sorospen eta lehen laguntzan titulua eskuratzeko ikastaroa eskainiko du Gurutze Gorriak. Azaroaren 7an hasiko da eta 29an bukatu; astelehenetik egubakoitzera izango dira eskolak, Kulturaten. Guztira, 40 orduko ikastaroa izango da. Ordutegia da 18:00etatik 20:20ra. Ikastaroan izena emateko baldintza da 16 urte beteta izatea. Interesatuek Gurutze Gorriko telefono honetara 619 00 35 00 deitu behar dute edo *altodeba@cruzroja.es* helbidera idatzi.

## Dirulaguntzak musika grabazioak egin dituztenentzat

2011. urtean musika grabazioren bat egin duten taldeek dirulaguntzak eskuratzeko aukera dute. Eskaera egiteko baldintzak dira taldekideen erdiak arrasatearrak izatea eta azken bi urteotan dirulaguntzarik jaso ez izana. Laguntza da grabazio edota edizio kostuen erdia ordaintzeko; gehienez ere 680 euro emango dira. Eskaera egiteko epea azaroaren 30ean bukatuko da. Oinarriak eta eskaera orria *gaztebulegoa.com* atarian daude.

SAN FELIPE APOSTOL

ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

***www.sanfelipeapostol.com***
***fsanfelipe@telefonica.net***

**Gipuzkoa etorbidea 33 behea**
**Tel.: 943 79 16 82**
**Tel./Faxa: 943 77 30 22**

**ARDURADUNAK**
**Alberto Ojanguren Ugarte**
**Kontxi Bedia Madinabeitia**

**1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL** etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantza eta Lan Departamentuko Gizarte Segurantza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen** eta **13.100 bazkide** ditu.

**2. Eskainitako prestazioak**
San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:
- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak; hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria.
- Hildakoen jantze lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria
- **650** euroko diru-laguntza, hildako bakoitzagatik.

**3. Sarrerako kuotak**

| | |
|---|---|
| 40 urtera arte sarrera doan | |
| 41 etik 45 urtearte | **110** € |
| 46 etik 50 urtearte | **170** € |
| 51 etik 55 urtearte | **280** € |
| 56 etik 60 urtearte | **390** € |
| 61 etik 65 urtearte | **560** € |
| 66 etik 70 urtearte | **900** € |
| 70 urtetik gorakoak | **1.350** € |

**4. URTEKO KUOTAK**

| | |
|---|---|
| Titularrak: | 24 € |
| Ezkontideak: | 24 € |
| Onuradunak: | 11,5 € |



**SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:**
**Ezkerretik eskumara:** Santiago Garai (Diruzaina), Gaizka Mondragon (Bokala), Luis Heriz (Presidentea), Manuel Moreiras (Bokala), Jesus Merino (Bokala), Luis Etxebarriarteun (Presidenteordea), Joshe Elorza (Idazkaria), Juan Luis Merino (Bokala), Ramon Luengo (Bokala) eta Alberto Ojanguren (Maiorala).

**INFORMATU ETA EGIN BAZKIDE**

# Zabalik dago santamasetako tenis txapelketarako izen-ematea

X.U. | ARRASATE

Azaroko lehenengo asteburuan –azaroak 5 eta 6– hasiko dute AKE tenis elkartekoek santamasetako txapelketa, eta dagoeneko zabalik dago txapelketan izena emateko epea. Antolatzaileek erabaki dute 32 laguneko taldea osatzen dutenean itxiko dutela inskripzioa; izan ere, santamas jaiekin bat eginda, finalak abenduaren 18an jokatu dituzte, eta torneoa ondo antolatu ahal izateko kopuru polita dela erabaki dute.

Hala, txapelketa ibarreko tenis-zale guztiei dago zuzenduta, eta, izena emateko, nork bere datuekin idatzitako mezua bidali behar du helbide honetara: *ake.tenis@gmail.com.*

**Ligaxka formatua**

Txapelketako lehenengo faseak ligaxka formatua izango du; lau jokalariz osatutako zortzi talde egingo dituzte eta hurrengo faserako talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira. Hala, bigarren fasean, sailkatutako hamasei jokalariek kanporaketa bidez egin ahal izango dute aurrera.

Txapelketan parte hartzeko 12 euro ordaindu beharko dituzte Arrasateko kiroldegiko bazkideek, Debagoieneko txartel mankomunatua dutenek eta tenisean federatuta daudenek. Eta gainontzekoek 15 euro. Hala, izena ematearekin batera azalduko dute antolatzaileek zelan egin ordainketa.



AKEk antolatutako aurreko txapelketa, sari banaketa. | JOSETXO ARANTZABAL

# Iazko talde kopuru berarekin hasiko dute Zaldibarko torneoa

X.U. | ARRASATE

Talde gehiago animatuko zirelakoan Zaldibarko antolatzaileek izen-ematea astebete luzatzea erabaki dute, baina izena emateko azken eguna pasata –joan den eguaztena–, iaz bezala, aurten ere hamalau talde izango dira torneoan: "Ez da kopuru txarra, egia esateko, txapelketa txukuna antolatzea ahalbidetzen duelako. Bi multzo egin ahal izango ditugu, eta ea datozen urteotan ere zenbateko honi eusten diogun. Pozik gaude", adierazi digu txapelketan antolatzaile lanetan dabilen Mikel Vigerak.

**Hasiera aldrebesa**

Datorren asteburuan, azaroaren 5ean, hasiko dute Zaldibarko txapelketaren 50. edizioa. Baina bigarren jardunaldia ez dute azaroaren 26ra arte jokatuko. Horrenbestez, hasiera aldrebesa izango du torneoak, abendura arte ez duelako jarraikortasunik izango, baina hala dago egutegia.

Aurten bi talde berri daude, Sonografos eta Aston Birra, eta beste bik ez dute izenik eman, Fuxxion eta Steaua del Grifok. Bestalde, iaz txapelketa irabazi zuen Cipris taldeak Aldatz izena izango du.



Txapelketan esku hartu zutenen taldeko erretratua. | ARRASATE FACTORY

# Arrasate Factory taldekoek lan ona Euskadikoan

## Azpimarratzekoa izan zen Mirian Mulasen bigarren postua

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasate Factory, Debagoieneko eskalatzaile taldeko ordezkariek lan ona egin zuten Gasteizen jokatu zuten Euskadiko txapelketan. Ariznabarra kiroldegian eskalatzaile mordoa batu ziren, eta, orain arte ez moduan, nagusien kategorian beharrean gazteetan batu ziren eskalatzaile gehien.

**Hamar ordezkari**

Joxean Mulasen aginduetara Debagoieneko Eskalatzaileak (Arrasate Factory) taldeko hamar ordezkari izan ziren Euskadiko txapelketan –maila gazteei dagokienez, ordezkaritza zabalenetakoa izan zuen kluba–. Hala, azpimarratzekoa izan zen seniorretan beharrean gaztetxoen kategorietan izan zen parte-hartze handia; esaterako, gazte mailan 37 neska -mutiko lehiatu ziren.

**Finaletan sorpresa gutxi**

Goizak luze jo zuen, kanporaketak *flash* modalitatean egin zituzten eta arratsaldeko finalak askoz ere dinamikoagoak izan ziren. Alde horretatik, aurreko postuei dagokienez, ezusteko gutxi izan ziren.

Ibarreko taldeko ordezkariei dagokienez, 14 urtez azpikoetan Arrasate Factory taldeko Mikel Linazisoro izan zen lehiara aurkeztu zen eskalatzaile bakarra, eta automatikoki eman zioten garaipena. 16 urtez azpikoetan, berriz, Beñat Arrieta laugarren izan zen eta Jon Aranburu, zazpigarren.

18 urtez azpikoen mailan eskalatzaileek erakutsi zuten dagoeneko oinarri ona dutela eta ondo dakitela zertan dabiltzan. Mirian Mulas arrasatearrak meritu handiko bigarren postua lortu zuen eta gizonezkoetan Jon Azpilikueta bosgarren izan zen. 20 urtez azpikoetan Kepa Bruña seigarren sailkatu zen eta Iñaki Velasco, zazpigarren. Eta, azkenik, seniorretan Mikel Velasco bederatzigarren sailkatu zen eta Josu Viejo, hamargarren.

Txapelketako irabazleei dagokienez, Mikel Linazisoro nagusitu zen 14 urtez azpikoetan; Jone Ugartemendia eta Mikel Inoriza 16 urtez azpikoetan; Itziar Zabala eta Ibai Isusi 18 urtez azpikoetan; Jon Ander Bravo 20 urtez azpikoetan; eta Itziar Rodriguez eta Gorka Karapeto senior mailan.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Realak fitxatu ditu Istar Dapena eta Iñigo Uribarren

Arrasate Kanpanzar Taldeko bi atleta horiek talde berria estreinatuko dute datorren denboraldian, Realak fitxatu ditu–eta. Dapenak Espainiako txapelketan zilarra lortu du eta Uribarrenek, berriz, Euskadiko bigarren marka onena du salto hirukoitzean (14,68).



ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO TALDEA

# 'Herrixa dantzan' jartzeko asmoz, dantzaldi irekiak gaur hasita

Patxi Monterok gidatuta, bertako eta Europako dantzak ikasteko aukera

IRATI GOITIA | ARRASATE

Dantzaldi irekiak abiatuko ditu gaur *Herrixa dantzan* egitasmoak Arrasaten. Hitzordua 20:00etatik 21:30era da Garaia Berrikuntza Guneko tabernan. Udalaren laguntzaz, Portaloi taldeak antolatutako egitasmoa da eta Patxi Montero izango da dantzen gidaria. Izaera herrikoia eta parte-hartzailea du dantzaldiak eta sarrera doan da. Hala, antolatzaileek dantzarekin gozatzera animatu nahi dituzte herritar guztiak. Jakinarazi nahi izan dute tabernan jatekoak izango direla, aparkatzeko ez dela arazorik izango eta herri barruko autobusa bertan gelditzen dela ordu erdian behin.

**EHko eta Europako dantzak**

Gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan;* Euskal Herriko eta Europa osoko dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, taldean, bikoteka... Batzuk ezagunak dira eta beste batzuk ez, baina Patxi Montero gidariak emango ditu azalpenak. Egitasmoaren helburua da adin guztietako herritarrak elkarrekin dantzan jarri eta gozatzea. Dantzaldi hori *Plazako dantza tradizionalak* ikastaroen jarraipena da.

**Hilero, azken egubakoitzean**

Gaurkoa lehenengo saioa izango da, eta, ekimenak erantzun ona izaten badu, asmoa da hilero egitea, azken egubakoitzean. Elgetan (Espaloia Kafe Antzokian) eta Bergaran (Zabalotegi aretoan) ere egin ohi da hilero dantzaldia. Beraz, Arrasatekoa hirugarren plaza izango da.



Jendea dantzan 'Herrixa dantzan' egitasmoan, Elgetako Espaloian. | GOIENA

# 'Ipar haizearen kontra' antzezlana Amaian

Tanttaka taldeak ziberamodioaren gaineko antzezlana eskainiko du domekan, 19:30ean

I.G. | ARRASATE

Tanttaka taldeak *Ipar haizearen kontra* antzezlana eskainiko du domekan Amaia Udan Antzokian, 19:30ean.

**Sareko amodioa**

Daniel Glauttauer idazlearen *Gut gegen Nordwind* eleberrian oinarritutako obra da eta Fernando Bernues da zuzendaria.

Ziber-amodioaren inguruko kontakizuna da antzezlana. Joseba Apaolatzak antzezten duen Leo Leikek, akats baten ondorioz, Emmi (Itziar Atientza) izeneko emakume ezezagun batek bidalitako mezu bat jasotzen du bere e-postan. Leok erantzun egiten dio, eta, hala, bien arteko harremana sortzen da. Sarean heltzen da elkarren arteko erlazioa, baina beldur diote elkar ezagutzeari. Bada, obrak Internetekiko dependentzia islatu nahi du.

# Egidius Kwartet taldearen kontzertua San Juan parrokian

I.G. | ARRASATE

Gaur arratsaldeko zortzietan kontzertua eskainiko du Egidius Kwartet talde holandarrak Arrasateko San Juan parrokian.

Goikobalu abesbatzak antolatu duen kontzertua da, Udalaren laguntzaz. Badira urte batzuk Goikobaluk ohitura hartu zuela Tolosako nazioarteko abesbatzen txapelketan parte hartzen duen talde bat herrira ekartzeko, eta aurten ere hala izango da. Oraingoan, lau gizonezkok osatzen duten taldea gonbidatu dute emanaldira; tartean da Jon Etxabe euskalduna ere. Mundu osoko areto eta jaialdi ospetsuetan kantatu duen taldea da.

**Errepertorio zabala**

Laukotearen errepertorioaren iturri nagusia XVI. mendean idatzitako musika polifonikoa da. Hala ere, Orlando di Lasso eta Clemens Non Papa konposatzaileen lanak ere interpretatzen dituzte, eta Nicolas Payen, Cornelius Canis, Thomas Crequillon eta Gheerkin de Hondt maisuei ere denbora luzea eskaintzen die laukoteak. Herrialdeko musika garaikidea ere ez du ahazten Egidius Kwartet taldeak; horrenbestez, konposatzaile holandar garaikide ugarik lanak sortu dituzte laukotearentzat. Beraz, errepertorio zabala eskainiko dute gaur parrokian.

## 'Urte berri on, amona!' eta 'Harry Potter y las reliquias de la muerte' pelikulak Amaia antzokian

Telmo Esnalek zuzendutako *Urte berri on, Amona!* filma ikusteko aukera izango da Amaia antzokian bihar 19:30ean etzi 20:30ean eta azaroaren 1ean 19:30ean. Mari amama berezi samarra zaindu behar duen familiaren gatazketan oinarritzen den komedia beltza da pelikula.

*Harry Potter y las reliquias de la muerte* filma, bestalde, J.K. Rowling idazleak Harry Potter aztiaren inguruan kaleratutako zazpigarren liburuan oinarritzen da. Abenturaz betetako filma da.



IAGOBA DOMINGO

## Tommy Denander, Kulturaten

Michael Jackson, Paul Stanley, Alice Cooper, Eric Clapton eta BB Kingekin kolaborazioak egin dituen gitarra jole suediarrak eskola berezia eskaini zuen martitzenean Kulturaten, eta areto nagusia bete egin zen haren azalpenak entzuteko. 120 lagun inguru elkartu ziren; tartean, musikari asko. Denanderrek gitarra joleendako sekretutxoak erakutsi zituen, eta kantuak sortzeko unerako ideiak eman zituen.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Udal zergek %3ko igoera izatea onartu dute Bilduk eta Aralarrek

## EAJ eta PSE–EE igoeraren aurka azaldu ziren eguazteneko osoko bilkuran; Mankomunitateko udal ordezkariak ere izendatu zituzten

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Ordenantza fiskalen aldaketa onartu zuen Udal Gobernuak eguazteneko osoko bilkuran. EAJ-ko eta PSE-EEko zinegotziek kontrako botoa eman zuten. Luze joan zen osoko bilkura: bi ordu pasa iraun zuen. 2011ko urteko KPIri dagokionez, urte amaieran %3 inguruan egotea aurreikusten du Gobernuak eta zerga gehienek igora hori izatea proposatu zuten. EAJ kontra azaldu zen krisi egoera honetan herritarrek are eta gehiago sufrituko dutelako aipatutako igoerarekin. Oinarrizko hainbat zerbitzutan igoera gehiegizkoa dela gaineratu zuten: estolderiak, adibidez, %27ko igoera izango du eta urak %3koa. Lauri Askargorta Bilduko ordezkariak zera esan zuen, estolderia zerbitzuaren defizitari aurre egiteko igoera ezinbestekoa dela, baina horrek bi euroko igoera baino ez duela ekarriko sei hilabeteko erreziboan.

Bestalde, Mankomunitatean honako hauek izango dira Udaleko ordezkariak: Kontu, Ogasun eta Langile gaietarako batzordean, Lauri Askargorta; Ingurumen batzordean, Leire Iruin; eta Garapen ekonomikoa eta Turismo batzordean, Juanje Amasorrain. EAJ abstenitu egin zen.



Kanposantuko eta Agorrosingo tasek %5eko igoera izango dute. | GOIENA

Aspaceren lokal eskaera ere izan zuten aztergai. Aho batez onartu zuten Oxirondo azokan Super BMk zeukan lokalaren zati bat uztea. Dena dela, aipatutako lokala erabiltzen dutenekin hitzarmena egitea komeni dela aipatu zuten.

PSE-EEk, hondakinen gaiarekin, Diputazioak lehen onartutako plana martxan jartzeko mozioa eraman zuen, mozioa alternatiboa onartu zuen gobernuak. Europako araudira egokitzeko Aintzane Oiarbidek zabortegiak kentzea beharrezkoa dela gogoratu zion gobernuari eta erraustegiaren alde azaldu zen. Flandeseko adibidea jarri zuen: han omen daukate birziklapen tasarik altuena, baina errauskailuak ere erabiltzen dituzte. Gobernuaren mozioak hondakinen plana geratzea eskatzen du.

### Arrizuriagako mozioa

EAJk Arrizuriagaren gaineko mozioa aurkeztu zuen urriaren 20an, baina ez zuten gai-zerrendan sartu. Oiarbidek ea mozioa aztertzerik zegoen galdetu zuen; Bildu eta Aralar aurka azaldu zirenez, hurrengo baterako geratu da.

### Turismo Bulegoa zabalik

Bestalde, Turismo Bulegoa zabalik izango da oraingo zubian, urriaren 29tik azaroaren 1era, 10:30etik 19:00etara (domekan eta martitzenean goizez bakarrik, 13:30ak arte).

# Bertso afaria Maialenekin eta Ametsekin Artatsen

Zapatuan bertso afaria egin zuten Artatse elkartean, ez nolanahiko gonbidatuekin, gainera: Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelduna eta BECeko finalean bigarren geratu zen Amets Arzallus izan ziren Bergaran. 90 bat lagun batu ziren Artatsen eta afari gozoaz eta bertso bikainez gozatu zuten, goizeko ordu biak aldera arte.



IRATI ALBERDI

## KINTADAK

**1962AN JAIOTAKOAK**
1962koen afaria Azpeitxi jatetxean, azaroaren 5ean. Izen-ematea (10 euro) Ariznoan, Deportivon edo Azpeitxin.

**1940KOEN BAZKARIA**
1940an jaiotakoen bazkaria azaroaren 5ean, Agorrosinen. Aurretik, meza izango dute San Lorentzon, 13:30ean. Izen-ematea: 943 76 35 76 (Paco) edo 943 76 30 26 (Encarna).

**1938KOEN OSPAKIZUNA**
1938an jaiotakoen ospakizuna azaroaren 5ean Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea: 943 76 18 64 (Miguel Lazkano) edo 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia).

**1968AN JAIOTAKOAK**
1968koen afaria azaroaren 5ean Tartufon. Izen-ematea Deportivon, 10 euro aurreratuta.

**1958KOEN AFARIA**
Azaroaren 5ean Zumelaga jatetxean. Frontoian elkartuko dira, 20:30ean. Izen-ematea (20 euro) Usoa tabernan.

**1935EAN JAIOTAKOAK**
1935an jaiotakoen bazkaria azaroaren 6an Zumelagan, 14:30ean. Izen-ematea (12 euro) Euskadiko Kutxan.

**1943KOEN BAZKARIA**
1943koen bazkaria azaroaren 12an Azpeitxi jatetxean. 943 76 16 13 (Arantxa) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez).

**1946KOEN BAZKARIA**
1946an jaiotakoen bazkaria azaroaren 12an Tartufon. Bazkarirako izen-ematea, bertan: 943 76 35 51.

**1930EKOEN BAZKARIA**
1930ean jaiotakoen bazkaria azaroaren 12an Zumelagan. 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

**1947AN JAIOTAKOAK**
1947koen afaria azaroaren 12an Agorrosinen. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro sartu behar dira.

**1933KOEN BAZKARIA**
1933an jaiotakoen bazkaria azaroaren 13an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea (6 euro) Intxortan edo Azpeitxin.

**1934AN JAIOTAKOAK**
1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Izen-ematea (12 euro) Errekin bertan.

**1948KOEN AFARIA**
1948an jaiotakoen afaria azaroaren 19an Zabalan. Izen-ematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

**1953AN JAIOTAKOAK**
1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxan. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio).

# Kultur hamabostaldiari amaiera emateko erretiratuek bazkaria izango dute bihar

Carlos Arrondo San Joxepeko presidentearen hasierako balorazioa positiboa izan da

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bihar, zapatua, bazkari batekin amaiera emango diote erretiratuen kultur hamabostaldiari. 55 lagun inguru batuko dira Zabala jatetxean. 14:00etan autobusa aterako da Agorrosinetik eta itzulerakoa 19:00etan izango da. Bazkalostean dantzaldia eta oparien zozketa izango dute San Joxepeko lagunek.

Gaur, egubakoitza, belaunaldien arteko xake txapelketa eta herri jolasak izango dira erretiratuen egoitzan, 16:00etan hasita.

**Balorazio positiboa**

Carlos Arrondo San Joxepeko presidenteak azaldu digunez, aurtengo kultur hamabostaldiaren hasierako balorazioa positiboa da. Jende ugari batu da antolatutako hitzaldietan (atzo arratsaldean egitekoa zen ikusmin handiena sortu duena, Mariano Ferrer kazetariarena) eta, aldi berean, belaunaldi ezberdineko jendea erakartzea lortu dute. Programazioari dagokionez, aurreko egubakoitzean Oñatiko erretiratuen Ikusi Makusi antzerki taldeak Zabalotegin egindako antzezlana ere nabarmendu du Arrondok. "Oso emanaldi polita egin zuten oñatiarrek. Nahiko lan eskatzen digu hamabostaldiak, baina jendearen erantzuna ikusita, pozik egoteko moduan gaude".


Eguaztenean 55 lagun joan ziren Hondarribira, egun pasa. | JOSE RAMON LOZANO

Eguaztenean, urriaren 26an, Hondarribira irteera egin zuten erretiratuek. Hondarribiko alde zaharra eta bestelako txokoak ezagutu ondoren, Batzokian bazkaldu zuten. Aurreko astean, berriz, Gatzagara joan ziren eta orduan ere autobusa bete zuten. Aurtengoa kultur hamabostaldiaren 15. ekitaldia izan da eta giza eskubideak izan da antolatutako ekitaldien ardatza.

## Laguntza jasotzeko premian El Salvadorren

**E.M.** | BERGARA

1980ko hamarkadatik Ertamerikan lanean dabilen Mikel Andueza apaiz bergararrak deia egin du laguntza eske El Salvadorretik. Azken asteotako euri jasak direla eta, Mitch urakanaren sasoian baino okerrago daudela dio Anduezak. Errekak gainezka, etxe ugari behera etorri dira eta hainbat errepide ere suntsitu ditu urak. Mikel Andueza Tacuban, Ahuachapan departamentuan dabil lanean. Gobernuz kanpoko Oscar Romero elkartearen laguntzaz hainbat proiektu garatu dituzte azken urteotan. Jasandako kalteak konpontzeko laguntza ezinbestekoa dutela azpimarratu du.

**Hiru kontu**

Hiru kontu ireki ditu Oscar Romero Solidaritate Batzordeak: Kutxan (2101 0001 14 0004048278); Euskadiko Kutxan (3035 0059 81 0590021346); eta Banco Guipuzcoanon (0042 4161 31 0001037408). Harremanetarako e-maila, hauxe: *donostia@comitesmero.org*.

## OHARRAK

**EAJ: BOTOA POSTA BIDEZ**

Azaroaren 20an botoa postaz eman nahi dutenendako bulegoa ireki du EAJk Batzokian, 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara. Argibideak 943 76 47 00 telefono zenbakian.

**AMAIURREN BULEGOA**

Azaroaren 20ko hauteskundeei begira, Amaiurrek bulegoa ireki du Barrenkaleko 12. zenbakian: aste barruan 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara izango da zabalik. Botoa posta bidez emateko eskaera azaroaren 10era arte egin daiteke. Botoa bidaltzeko epea azaroaren 16ra arte izango da zabalik.


E.M.

## Zubiarteako arbola, egoera larrian

Argazkian ikusten den zuhaitz Zubiartea etxean dago, Usondo pareko etxean eta orain dela egun batzuk hesi batekin inguratu dute Udaleko Brigadako langileek. Hesiaren artean harrapatuta geratu da arbola eta hori gutxi balitz sustraiek egindako indarraren ondorioz, lurra altxatu egin da inguruan. Arazoak ez dauka konponbide errazik..

## NIRE USTEZ



**MAITE PLAZAOLA**

## Udazkena neguratzen denean

Udazken betean sartuta gaude jada. Laster hasiko dira zuhaitzen hostoak hori-gorritzen eta abar luze-meharrak biluzten. Ezkurrek ere laster hartuko dituzte kaleak beraien gorputz marroi eta biribilekin. Baina aurten udazkena negeratu egingo zaigu eta ezkurrek murrizketekin egingo dute topo kalean, leku bila.

Murrizketa, inondik inora ere hitz gordina da, baina egon ziur egunerokotasunaren epela ere aurkituko diogula. Izan ere, azken aldian, krisiaren izenean, familiako bilakatu zaigu. Diru faltan gaude, egia da; gastuak murriztu behar dira, egia hori ere. Baina edozein arlotatik murrizketak egitea zilegi da? Ez horixe.

Ongizate Estatu batean hezkuntza eta osasuna izan beharko lirateke zutabe ukaezinak. Lirateke diot hauetan ari baitira inbertsio gutxitze gehienak burutzen, herritarron oinarrizko eskubideak diren horietan, hain zuzen. Bitartean, AHTa bezalako proiektuak aurrera doaz, krisiaren atzaparretatik urrun.

Badirudi, azpiegiturek oinarrizko eskubideek baino garrantzia handiagoa dutela mandatarientzat. Hauxe dugu politikoek hainbeste goraipatzen duten Ongizate Estatua. Krisi garaian udazkena negu bilakatu zaigu.

**"Badirudi azpiegiturek oinarrizko eskubideak baino garrantzi handiagoa dutela"**

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

# Soraluze-Bergara krosa Iban Altuberen omenez

M.B. | BERGARA

Antxintxika taldekoek lanean dihardute azaroaren 5ean jokatuko den Soraluze-Bergara lasterketa prestatzen. Hainbat berrikuntza ditu aurtengo edizioak: lehena, izena. Antolatzaileek horrela erabakita, Olatz Rementeriaren omenez gain, Iban Altuberen omenez ere egingo dute. "Taldekide eta parte-hartzaile izan genuen oñatiarra. Herri lasterketa izanda hura gogoratzea pentsatu dugu", diote antolatzaileek.

Beste hiru berrikuntzak dira: proba egunean egingo duten pintxo-poteoa, Astigarragako sagardoaren museoarekin; dortsalak eta txipak Bergarako San Martin plazan jaso ahal izango direla (10:00-13:30); eta patinatzaileendako lasterketa ere badela. Azken berrikuntza horrek ibilbidean aldaketak ekarri ditu. "Segurtasun neurriak gogortu egingo ditugu. Parte-hartzaileak herrigunean ibiliko dira eta helmuga San Martin plazan ipiniko dugu", diote.

**Izen-ematea Internetez**

Bestalde, izena emateko epea zabalik dago. Internet bidez bakarrik eman ahal da, *www.kirolprobak.com* atarian. Izen-emate epea lasterketaren aurreko egunean, azaroaren 4an, amaituko da. Lasterketaren beraren egunean ez da aukerarik izango izena emateko. Parte-hartzaile kopurua mugatua izango da, gainera: 100 patinatzaile eta 700 korrikalari, gehienez.

Ordaindu beharrekoari dagokionez, hainbat aukera daude: txipa erosten dutenek 13 euro ordaindu behar dituzte; txipa alokatzen dutenek, bi euro; eta Soraluzera joateko autobusa behar dutenek, bi euro.

Sei autobus irtengo dira Bergaratik: hiru 15:30ean eta beste hirurak 16:30ean.




Iazko parte-hartzaileak Ibargaraiko helmugara heltzen. | GOIENA

# Beistegi: "Uste baino hobeto hasi dugu liga"

Saskibaliko senior mailako taldeak bost partidutatik hiru irabazi ditu; bosgarren daude

M.B. | BERGARA

Lehenengo mailako Bergarako taldeak "ondo" hasi du liga. Aurreko aste bukaeran bi puntuko errentarekin irabazi ostean (64-62), sailkapeneko bosgarren lekuan daude. "Egia esan, uste baino hobeto hasi dugu txapelketa. Azken bost urteotan gorabehera asko izan ditugu: urte batean maila galdu, eta hurrengoan berreskuratu. Oraingoz, gustura gaude", esan digu Jon Beistegi entrenatzaileak.

**Lehia parekatua Donostian**

Bide beretik jarraitzeko asmoz, partidua jokatuko dute zapatuan, 20:00etan, Donostian, Bosteko taldearen kontra: "Lehia parekatua izango da. Sailkapenean berdinduta gaude eta zaila izango da irabaztea. Donostiarrek talde azkar eta gaztea dute, eta fisikoki oso indartsuak dira".

Bergararrek hainbat aldaketa dituzte taldean: jokalari beteranoetako batzuek taldea utzi dute eta gazteagoak sartu dira. Hori horrela, maila mantentzea dute helburu. "Orain ondo gaude sailkapenean; dena den, maila mantendu behar dugu", dio Beistegik.

**Zaleen laguntza**

Eskertzen dute zaleen laguntza etxeko partiduetan. "Saskibaloiak orain dela lau urte baino indar handiagoa du hainbat lagunek egindako lanari esker. Elkarteko kideak eta joaten dira Labegaraietara, eta euren laguntza eskertzen dugu", dio entrenatzaileak.

**Manu Diaz** | Gazte mailako futbol taldearen entrenatzailea

# "Hurrengo denboraldian ikusiko dugu taldearen benetako maila"

▶ Manu Diazen taldeak jokatutako partidu guztiak irabazi ditu, zazpi

▶ Aste bukaeran Amaikak Bat taldearen kontra lehiatuko da Deban

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Gazte mailako futbol taldeak maila galdu zuen iaz. Egun, ohorezko mailan dihardute bergararrek. Zazpi jardunaldi jokatu ostean lehen postuan daude, partidu guztiak irabazita. Manu Diaz eta Manolo Ortiz dira arduradunak.

**Iaz taldeak maila galdu zuen.**

Gogorra izan zen. Denboraldi hasieran bolada txarra izan zuten eta sailkapeneko zuloan sartu ziren. Dinamika txarrean zaudenean oso zaila da gauzak ondo egitea eta gora begiratzea. Denboraldia zaila izan zen, eta maila galdu zuten.

**Hori horrela, aurtengo helburua galdutako maila berrekuratzea da?**

Ez. Gure helburua da taldearekin lan egitea, oinarriak finkatzea. Jokalari gazteak ditugu, eta esperientzia txikikoak. Faktore horietan egin behar dugu lan. Talde honen benetako maila hurrengo denboraldian ikusiko da.

**Orduan, zeintzuk dira denboraldirako erronkak?**

Lasai egin gura dugu lan. Jokalari gazteak ditugu, gehienak gazte mailako lehen urtekoak. Talde giroa sortu eta etorkizunean maila ona erakutsiko duen taldearen lehen urratsak egingo ditugu. Egia da igoera faserako sailkatu gura dugula; izan ere, azken txanpa horretan, liga erregularrean gure kontra jokatzen ez duten taldeen kontra lehiatuko gara. Besteak beste, Antiguoko eta Añorga. Gu baino talde indartsuagoak dira, eta haien kontra nola moldatzen garen ikusi gura dugu. Bestalde, harrobiko taldeen helburu nagusiak talde nagusiarendako jokalariak heztea izan behar du, hori lortzeko egingo dugu lan.

**Denboraldia oso ondo hasi duzue. Zeintzuk dira taldearen ezaugarri nagusiak?**



Manu Diaz, gazte mailakoen entrenatzailea. | EDU MENDIBIL

## "Atzean sendo jokatzen dugu, jokoa antolatu eta erasoa erraz antolatzeko"

Atzean sendo jokatzen dugu, zelai erdian jokoa antolatuta, erasoan erraz irteteko. Orain arteko zenbakiek hori erakusten dute: gol bakarra jaso dugu gure atean. Kontra duguna da esperientzia txikiko taldea garela. Baina hori zelaian lortzen da.

**Aurreko aste bukaeran derbia jokatu zenuten Aloñaren kontra eta aise irabazi zenuten.**

Derbi polita izan zen. Lehen zatia nahiko parekatua eta bigarrenean guk jokatu genuen hobeto. Egia da Aloñak bi jokalari garrantzitsu falta izan zituela. Antzeko taldeak gara, eta, denboraldia luzea den arren, esango nuke nahiko goian ibiliko garela sailkapenean.

**Ohorezko erregional taldea utzi zenuen orain dela bi denboraldi eta orain gazte mailako entrenatzailea zara. Zergatik hartu zenuen taldea?**

Alebin mailan nirekin entrenatu ziren, eta orduan argi ikusi nuen belaunaldi ona zela. Jokalari bereziak eta onak dira. Orain aukera izan dut jokalari horiekin lan egiteko, futbola bizio hutsa da eta hementxe nago berriro. Bueltan.

**Non duzu tentsio handiagoa, ohorezko erregionaleko aulkian ala gazte mailakoan?**

Duda barik, ohorezko erregionalean. Maila horretan zale asko daude zuri begira. Aldiz, gazte mailan, nork bere buruari jartzen dion tentsio puntua dago, besterik ez. Hedabideak ez daude guri begira.



Aloñako eta Bergarako jokalariak Ipintzako derbian. | JULIO CALLEJA

## Amaikak Baten kontra Deban

Orain arteko bolada onarekin jarraitzeko asmoz gogotsu doaz Manu Diazen mutilak Debara. Zapatuan jokatuko dute Amaikak Baten kontra. "Gogotsu gaude lehen postuari eusteko, baina beldurtuta ere bai. Denboraldi-aurrean haien kontra jokatu eta galdu egin genuen. Errebantxa hartzeko lehia da, baina gauzak oso ondo egin beharko ditugu, bestela...", dio entrenatzaileak.

# Kartzela zaharrean agur esan diote domekeroko zineklubari

I.G. | BERGARA

Kartzela zaharrean hiru urteko zikloa itxi dute. Izan ere, 2011 -2012 denboraldian ez da zineklubik egongo. Guztira, azken hiru urte hauetan, 110 film proiektatu dituzte.

**Maiztasunari ezin eutsi**

Antolatzaileek adierazi dute zinekluba etetearen arrazoietako bat honakoa izan dela: "Ezin izan diogu domekeroko maiztasunak eskatzen duen lan-kargari aurre egin eta aurten proiektua bertan behera uztea erabaki dugu".

Hala ere, jakinarazi nahi izan dute horrek ez duela esan nahi gaztetxean ez denik zinema proiekziorik izango: "Data esanguratsuetan antolatuko ditugu emanaldi solteak, eta, horrez gain, aurten, ikus-entzunezkoekin zerikusia duen beste proiektu bat sortuko da gaztetxean: lagun talde batek hileko azken eguenean dokumental bat proiektatuko du". Gaineratu dute gaztetxea herriari irekita dagoela eta inork zineklubaren testigua hartu edo zerbait berria sortu nahi badu, kartzelako ateak irekita daudela herritar guztientzat.

Bestalde, adierazi dute "mingarria" iruditzen zaiela Bergaran zinema aretorik ez izatea. Hala, kritikatu dute *Kixi*-k ezin duela estreinatu bere lana herrian.

## Asier Altunaren 'Bertsolari' bihar eta domekan Zabalotegin

Asier Altunaren *Bertsolari* dokumentala ikusteko aukera izango da Zabalotegi aretoan, DVD formatuan bada ere. Emanaldiak bihar 19:00etan eta domekan 18:00etan izango dira. Gainera, Asier Altuna bera izango da etziko emanaldian, ikusleek dituzten zalantzak argitzeko.

## Moises Aspiazu dantza taldeak batzarra egingo du azaroaren 3an

Moises Aspiazu dantza taldeak batzarra egingo du azaroaren 3an, eguenean, 19:00etan, Irizar jauregiko hirugarren solairuan. Bertan, 2011-2012 ikasturteko eskolen ordutegia landuko dute. Hain zuzen ere, matrikula orria beteta duten guraso guztiei dago zuzendu ta deialdia.



Zumaiako Beheko Plaza abesbatza kantuan. | GOIENA

# Zumaiako erretiratuak Santa Marinan kantari

IRATI GOITIA | BERGARA

Zumaiako Beheko Plaza erretiratu elkartearen abesbatzak emanaldia egingo du gaur Santa Marina parrokian, 19:45ean.

San Joxepe elkartearen XV. hamabostaldi kulturalaren barruan antolatutako kontzertua da. Hilaren 17an ekin zioten hamabostaldiari eta jada hainbat jarduera egin dituzte. Bihar amaituko da hamabostaldia, Zabala jatetxean egingo duten bazkariarekin, baina, aurretik, kontzertua izango dute gaur.

**Bi abesbatza uztartuta**

Gaurko kontzertuan San Joxepeko eta Zumaiako Beheko Plaza abesbatzek jardungo dute kantuan. Emanaldia hasteko, Jose Patxi Azkarateren zuzendaritzapean lau abesti kantatuko ditu San Joxepeko abesbatzak. Ondoren, Zumaiako abesbatzaren txanda izango da eta kontzertu berezia eskainiko dute. Izan ere, emanaldiaren lehen zatian korutik abestuko dute organoaren laguntzarekin; Mari Karmen Azpeitiak joko du organoa. Bigarren zatian, bestalde, behera jaitsi eta aldaretik abestuko dute. Azkenik, bi abesbatzek batera kantatuko dute aldaretik eta kontzertua amaitzeko *Agur Jaunak* abestuko dute guztiek batera.

# Dagoeneko prest dago azaroko kultura gida

I.G. | BERGARA

Azaroko kultura agenda ere ekintzaz beteta dator: ikastaroak, antzerkiak, hitzaldiak, kontzertuak... Gozatzeko hainbat aukera izango dira hilabete osoan.

Erakusketei dagokienez, Luis Laskurainek bere lanak erakutsiko ditu azaroaren 4tik aurrera Aroztegi aretoan. Osoko bilkuren aretoan, bestalde, *Molekulen artean* erakusketa egongo da ikusgai azaroaren 29tik aurrera.

Antzerkiaz disfrutatzeko aukera ere izango da: azaroaren 4an *Baginaren bakarrizketak* helduendako emanaldia izango da. Umeendako aukerak ere ez dira faltako: Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen emanaldia izango da Osintxun.

Musikari dagokionez, Bergarako Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du azaroaren 13an eta goiko estazioko taldeek rock kontzertua eskainiko dute azaroaren 25ean.

Hori eta askoz gehiago izango da, azaroan ere, kulturaz gozatzeko.





Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

# Egubakoitzetan batzen da ehiztari gehien ehiza-lekuen zozketan

## Azaroaren 9ra arte egunero zozketatuko dituzte ehiza-postuak Oñati tabernan: 19:00etatik 20:00etara izen-ematea eta ondoren zozketa

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Egunero egiten dituzte zozketak, baina egubakoitzetan batzen da ehiztari gehien Oñati tabernan. "Aurreko egubakoitzean 90 ehiztari etorri ziren, eta 68 postu bakarrik daude. Asko leku barik geratu ziren. Zozketa ia ordubeteko atzerapenarekin hasi genuen. Ilara plazaraino heldu zen", esan digu zozketaren arduradun Iñaki Urteagak. Egubakoitzetan –gaur ere bai–, zapatuko, domekako eta asteleheneko ehiza-postuak zozketatzen dituzte.

Zozketa egunero egiten dute, baina hurrengo martitzena jaieguna denez (Domu Santu eguna) ez dute zozketarik egingo. Hori horrela, astelehenean, martitzeneko eta eguazteneko ehiza-postuak banatuko dituzte. Izen-ematea 19:00etatik 20:00etara izango da eta segidan zozketa egingo dute.



Ehiztariak astelehenean Oñati tabernan egindako ehiza-postuen zozketan. | MIREIA BIKUÑA

**Ehiza-postuak zenbakitu**

Hain zuzen, paseko uso eta birigarroen ehizarako Aizkorri-Aratz parke naturalaren eremuan dauden ehiza-postuak zozketatzen dituzte. Lehen aldia da. "Orain arte postuak libreak ziren, eta Ehiza Federazioak nolabaiteko kontrola ipini gura zuen. Gainera, 2007ko Foru Arauaren arabera, parke naturaletako ehiza-postuek legeztatuta egon beharko lukete. Horiek biak kontuan hartuta lan egin du Pago Uso elkarteak", esan digu Urteagak.

Eta zeintzuk dira egindako lanak?: "Ehiza-postu guztiak zenbakitu ditugu. Horren berri eman dugu Diputazioan eta basozaina etorri da GPSarekin mugak zehaztera", esan digu. Lan horiek egin-da 86 ehiza-postu legeztatu dituzte Araotz, Arantzazu eta Belar aldean, basozainen eta Federazioaren oniritziarekin. Horietatik, 18 ehiza-postu lurjabeendako gordetzen dituzte eta gainerako 68ak zozketatu egiten dituzte egunero. Lurjabeek ere zeresana izan dute ehiza-postuak markatzeko orduan. "Batzuek baiezkoa eman zuten eta beste batzuek ezetz. Ezezkoa eman zuten lekuetan ez ditugu postuak txukundu eta zenbakitu".

**DATUA**

**86**

EHIZA-POSTU

Horiek dira Aizkorri-Aratz parke naturalean zenbakitutako postuak.

**ESANAK**

**"Ehiza-postuak legeztatu behar dira parke naturaletan"**

IÑAKI URTEAGA | ZOZKETAREN ARDURADUNA

Aizkorri-Aratz parke naturaletik kanpo gelditzen diren ehiza lekuak (Aurrekomendi, Bakue eta Urrexola, besteak beste), libreak izango dira aurrerantzean ere.

**Hiru urteko lana**

Lerro gutxitan laburbildutako lana Pago Uso elkarteak azken hiru urtetan egindakoa da.

Zozketan parte hartzen duten ehiztariek ordaintzen dutenarekin lanean jarraituko dutela esan digu Urteagak: "Ehiza-postuak txukundu eta hobetuko ditugu. Leku batzuek oraindik berrikuntzak behar dituzte eta apurka-apurka egingo ditugu", diote.

### Kultura jardueretarako dirulaguntzak azaroaren 14ra arte

Udaleko Gaztedia batzordeak ematen duen dirulaguntza gura duten gazteek, gazte taldeek edo elkarteek eta norbanakoek azaroaren 14a baino lehen egin behar dute eskaera. Bete beharreko baldintzak dira: taldearen erdiak edo norbanakoa Oñatin erroldatuta egotea eta 12 eta 30 urte artekoak izatea. Ekintzak egiteko, kultura sormenerako eta materiala erosteko eska daiteke laguntza.

### Mahai-futbol txapelketa egingo dute gaur gaztelekuan

Gaztelekuko arduradunek XVII. mahai-futbol txapelketa egingo dute gaur, 18:00etan. Interesa dutenek txapelketa hasi arte eman dezakete izena –doakoa da–. Parte-hartzaile kopuruaren arabera bikoteka banatuko dituzte eta txapelketa egingo dute gaztelekuko dantzalekuan ipiniko dituzten mahai-futboletan. Bikote onenak finalean batuko dira. Txapeldunek sariak jasoko dituzte.

### Eskulan ikastaroetako matrikula ordaintzeko azken eguna

Kultura Sailak antolatutako ikastaroetan matrikula ordaintzeko epea gaur bukatzen da. Bost ikastaroetan onartu dituzten pertsonek Euskadiko Kutxako kontuan sartu behar dute dirua (helduek 68 euro, gazteek 49,50 eta bitxigintzakoek 32), eta ordainagiria entregatu behar dute kultura etxean.

Epe barruan matrikula ordaintzen ez dutenak ikastarorik kanpo geratuko dira. Azaro hasieran hasiko dituzte ikastaroak.

# Proposamenak egiteko batzarrak hasi dituzte

## Aurrekontua 'Herrijorran' lantzeko sei bilera egin dituzte asteon; gaurtik beste bost egingo dituzte

**M.B.** | OÑATI

2012ko aurrekontua zehazteko Udalak martxan jarritako *Herrijorran aurrekontuak* ekimenak erantzun ona izan du herritarren artean. Asteon sei bilera egin dituzte eta herritarrek proposamenak egiteko aukera izan dute. Gaur, Sozioekonomia batzordeak egingo du batzarra, 19:00etan, udaletxean; eta hurrengo astean egingo dituzte geratzen diren laurak (ikus ondoko taula). Hala, udal batzorde bakoitzak batzar ireki bat izango du.

**"Batzar emankorra"**

Eguaztenean egin zuen batzarra Euskara, Hezkuntza eta Haurrak batzordeak, eta Goiena han egon zen. Nerea Zubia batzordeburuak harrera egin zien bertaratutako guztiei –gehienak hezkuntzan diharduten pertsonak– eta batzarraren dinamika azaldu zien, aurrekontuak zer diren zehaztuta. Ondoren, lantaldetan banatu eta euren ekarpenak zehazten ahalegindu ziren.

Guztiek esan zuten halako bilerak "positiboak" direla.



*Herrijorran* batzarrera joandako kideak taldetan banatuta. | TXOMIN MADINA

"Gure proposamenak mahai gainean jartzeko aukera izatea oso ona da", esan zigun Elkar Heziko Iratxe Aranburuk. Iritzi berekoa zen Txantxiku Ikastolako zuzendaria: "Ekimena ona da, eta, gainera, gaurko batzarra oso emankorra izan da". Larraña Institutuko Iñaki Aiastuik hauxe esan zigun: "Metodologia ona dela uste dut, parte-hartzea bultzatzen duena".

### EGUTEGIA

**Sozioekonomia**

Urriak 28, 19:00, udaletxean.

**Berdintasuna**

Azaroak 2, 19:00, udaletxean

**Ongizatea**

Azaroak 2, 19:00, kultura etxean

**Auzoak eta Landa Garapena**

Azaroak 3, 19:00, udaletxean

**Ingurumena**

Azaroak 4, 18:00, udaletxean



Jose Luis Etxeberria, 75 aldiz odola ematearren jasotako diplomarekin. | M.B.

**Jose Luis Etxeberria** | Odol-emailea

# "Lehen aldiz odola eman nuenean, orain dela 25 urte, litro bat atera zidaten"

Jose Luis Etxeberriak 75 aldiz odola emateagatik intsignia eta diploma jaso zituen hilaren 9an Elgetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Luis Etxeberriak (Oñati, 1943) 75 aldiz eman du odola. Hori horrela, emaile gorenari dagokion errekonozimendua jaso zuen hilaren 9an Elgetan: intsignia eta diploma jaso zituen.

**Zorionak! Gustura jaso duzu omenaldia?**

Bai. Egia esan, eskertzen dira halako errekonozimenduak.

**Zenbat urte diharduzu odol ematen?**

Urtea ez dut zehazki gogoratzen, baina urtean hiru bat aldiz eman izan dut odola. Hori horrela, 25 bat urte daramatzat odola ematen. Ez nintzen gaztetan hasi.

**Gogoan duzu odola eman zenuen lehen aldi hura?**

Bai. Iraila zen, San Migelak hasi aurretik. Oñatiko odol-emaileen presidentea Carlos Odriozola zen eta orduan odola ematen genuen gaur egun Eguneko Zentroa dagoen lekuan.

**Zergatik erabaki zenuen odol-emaile izatea?**

Ulma Construccionen egiten nuen lan. 1967an hasi ziren enpresan osasun azterketak egiten. Horietako batean esan zidaten A+ motako odola nuela. Lankide bat etorri zitzaidan esaten aita ospitalean zuela eta A+ motako odola behar zuela. Horrela hasi nintzen.

Hiru lankide joan ginen odola ematera, eta litro bana atera ziguten. Bukaeran, txikito bat eta txorizo ogitartekoa eman ziguten. Oroitzapen onak ditut.

**Orain 400 ml ateratzen dituzte.**

Bai [Barre]. Lehen aldian bakarrik atera ziguten litroa! Ondorengo guztietan 400 ml bakarrik atera didate.

**Oñatin odol-emaile asko dago eta beti erantzun duzue ondo egindako deialdietan. Gazteak badaude?**

Bai, gazteak badaude. Geroz eta kontzientziatuago daude. Azken finean, odola ematen dugu beste batzuen mesederako.

Odol-emaile moduan egindako bidea ikusita, gazteago nintzenean hasi behar nuela uste dut. Oñatin 400dik gora odol-emaile daude eta asko gazteak dira. Haien odolaren beharra daukagu.

# Etxaluze parkeko saskiak aldatu eta jokatzeko ordutegia arautuko dute

M.B. | OÑATI

Etxaluzeko parkearen egoera txarra ikusita hainbat lan egitea erabaki dute udal arduradunek. Hango bizilagunen eskaerak aintzat hartuta, parkean dauden saskiak aldatu egingo dituzte. Taulak erreta daude eta uztaia falta zaie. Saski berriak ipiniko dituzte.

Bestalde, hango parkeko jolasorduak arautuko dituen ordutegia ipiniko dute. Kartel baten zehaztuko dute hori. Batez ere, gaueko zaratak ekidin gura dituzte. Baimendutako ordutegitik kanpo ezingo da jokatu.

Era berean, bizilagunek eskatu dute parkeko zoladura konpontzea. Baina Udalak mahai gainean utzi du gaia. Parkearen azpian aparkalekuak daude eta jabekideekin batera aztertuko dute gaia.

## OHARRAK

**DEIALDIA**

1967ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 12an Soraluze hotelean. 19:00etan elkartuko dira plazan, eta, poteoa egin ondoren, afaltzera joango dira elkarrekin. Interesatuek azaroaren 11 baino lehen eman behar dute izena. 35 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0005 35 0051045540 zenbakian.

**TRASTE ZAHARRAK**

Edukiontzi berderik ez duten auzoetan traste zaharrak biltzeko kanpaina etenda dago, oraingoz. Udalak erabiltzen duen kamioia apurtu egin da, eta berria ekarri arte ezingo dute materialik batu. Eguenero batzen dituzte traste zaharrak. Herritarrek 943 71 19 38 telefonora deitu behar dute abisua emateko.

**DEIALDIA**

Lope de Agirreri buruzko hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 20:30ean. Lehenengo, afaldu egingo dute eta ondoren izango da berbaldia.

**IKASTAROA**

Gurutze Gorriak lehen laguntzaren gaineko ikastaroa egingo du azaroaren 7tik eta 29ra, astelehenetik egubakoitzera. Interesatuek 619 00 35 00 telefonoan eman dezakete izena, edo bestela mezua bidali *alto-deba@cruzroja.es* helbidera.





Iker del Teso (areto futbola), Juan Mari Enekotegi (presidentea), Juan Mari Errasti (pilota) eta Odilo Vazquez (karatea), Ibarran elkartuta. | M.A.

# Aretxabaleta Kirol Elkartea: futbola baino kirol gehiago dituen elkartea

- Azaroan jarriko dute abian kirol guztiak elkartuko dituen webgunea
- Instalazio egokien beharra da kirol sail guztien eskaera nagusia

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkartea futbola baino gehiago da. Halaxe jakinarazi du Juan Mari Enekotegi presidenteak: "UDA barruan dauden sailak ezagutzera eman gura ditugu, protagonismoa eman eta indartu". Hain zuzen, 2009an egin eta Udalari aurkeztutako plan estrategikoan (2009-2014) jaso zuen elkarteak herriko kirol guztiak elkartzeko konpromisoa, "kirol talde guztien babes izango den guardasola izatea UDA".

Futbolaren inguruan 280 bat neska-mutiko dabiltza eta gainerako sailetan, 120 inguru, "eta hori bada zerbait", diote. Bost dira futbolaz gain UDA barruan dauden sailak: pilota; areto futbola; gimnasia erritmikoa; txirrindularitza; eta karatea. "Futbolerako joera handia dago, baina kirol horiek ezagutzera animatu gura ditugu neska-mutikoak", esan du Enekotegik.

## Kirol elkartea: sailak

**PILOTA**




Askotariko adinetako neska-mutikoak dabiltza hainbat kategoriatan banatuta, 33 inguru. Gipuzkoa eta Arabako txapelketetan hartzen dute parte eta hala jarraitzea da asmoa. Iturrigorri pilotalekuan egiten dute lan, baina instalazioak ez direla egokiak diote.

**ARETO FUTBOLA**

Orain dela sei urte sortutako taldeak bigarren mailan jokatzen du; aurten, gainera, talde polita osatu dute eta igotzeko aukerak ditu. Almenen entrenatzen dira eta hantxe jokatzen dute orain, baina kiroldegi berriarekin herrian izango dute lekua; hori horrela, txapelketako finalak bertan jokatu gurako lituzkete.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

UDAko talderik gazteena da. 40 neska inguru dabiltza lanean bi taldetan banatuta, Esther Barcenillasen ardurapean. Entrenatzeko leku egokiaren beharra daukate.

**TXIRRINDULARITZA**

Sail federaturik ez izan arren, Andramaixetako txapelketa antolatzen jarraitzen dute. Trialsin probaren babeslea da eta Dorletako Ama taldearekin kolaboratzen du.

**KARATEA**



1998an Odilo Vazquezek sortutako taldea 2007a ezkero UDA barruan dago. Kiroldegirik ez dagoenetik Kurtzebarri eskolan elkartzen dira entrenatzeko, "baina porlanezko lurzorua ez da batere egokia kirol honetarako", diote. 150 bat neska-mutiko pasatu dira taldetik eta egun 37 daude, 5 eta 52 urte artekoak. Hainbat txapelketatan jokatzen dute, tartean Gipuzkoakoan eta Euskadikoan. Diziplinaz gain, multilateralitatea (muskulu guztiak) lantzen duen kirola da eta beste kirol batzuekin bateragarria da.

### Murrizketak dirulaguntzan

Sail horien eskaera nagusia da instalazio egokien beharra. Hain zuzen, plan estrategikoan ere jasota dago, eta Udalari gogorarazi gura diote hori.

UDAko zuzendaritzak badaki ez dela samurra izango. Izan ere, elkarteari ematen dion dirulaguntzak ere murrizketa izango duela iragarri die Udalak. "Hori jakinarazi orduko, denboraldiko aurrekontua onartuta geneukan eta beste diru iturri batzuen bila ibili gara", dio Enekotegik. Nahiz eta gastuak murrizten saiatu, samurra ez dela onartu du, eta eskerrak eman gura dizkiete diruz lagundu dieten herriko enpresa eta komertzioei. Gainera, elkartearen asmoa da 740 bazkide izatetik 850era iristea.

### Eskua proiektua

Futbolari dagokionez, 11 talde daude hainbat kategoriatan banatuta eta hiru, futbol eskola barruan. Hain zuzen, hiru talde horiekin Eskua proiektua jarri dute abian, guraso, jokalari eta entrenatzaileekin lantzeko. Igor Arenatza eta Erik Badillo dira arduradunak, eta haien asmoa da oinarrizko futbolarekin egitea lan epe ertain eta luzera jasotzeko emaitzak. Formazio saioak egingo dituzte orain, eta dagoeneko hasita daude elkartzen.

Era berean, kirol elkarteko presidenteak argitu gura izan du UDAren eta Mondraren arteko harremanak "zuzenak" direla; gaizki-ulertua argitzeko batzarra egin ondoren ez dagoela "inolako arazorik" bi elkarteen artean.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

# Tindufen bahitutakoei elkartasun adierazpena

**M.A.** | ARETXABALETA

Udaleko kide diren Bildu, Aralar eta EAJ alderdiek honako adierazpena egin dute Tinduf-eko errefuxiatuen kanpamentuetan hiru borondatezko lankide bahitu ostean: bahitutakoen familia eta lagunei elkartasuna adierazi; gertatutakoaren errudun bakarrak bahiketa egin duen talde kriminala eta bultzatzaileak izan direla eta errefuxiatutako herritarrak eta Saharako agintariek ez dutela ezelako zerikusirik; Republica Arabe Saharaui Democratica (RASD) delakoaren agintariekiko konfiantza osoa errepikatzea; Saharako Herria jasaten ari den injustizia egoerari amaiera emateko ekintza eraginkorragoa bultzatzearen beharra aldarrikatu; eta Somalian bahitutakoei ere elkartasuna adierazi.

## Aretxarteren 1.000 euroak jasoko dituen txartela 122.604

Aretxarte merkatarien elkarteak 1.000 euro zozketatu ditu zapatu goiz batean elkarteko komertzioetan gastatzeko. Hona zenbaki saritua: 122.604 (Asension banatua, epea: azaroak 12). Eta ordezko zenbakiak dira: 121.801 (Begira, epea: azaroak 19); eta 121.405 (Leintz mertzeria, epea: azaroak 26).

## OHARRAK

**TXALAPARTA IKUSKIZUNA**

Arientzako kanpai jole eskolak antolatuta, Juan Mari Beltranen txalaparta ikuskizuna izango da bihar (22:00) Arkupen.

**GURASOENDAKO DEIA**

Haurren hazkuntzaren gaineko zalantza, gogoeta eta kezkak trukatzeko guraso elkartea sortu gura dute; lehen bilera azaroaren 13an. Argibideetarako: 650 93 96 93 (goizez) edo *alkurrena@gmail.com*.

**MASAJE IKASTAROA**

Masaje ikastaroa antolatu dute Kurtzebarri eskolan, ume txikiak dituzten familiendako. Azaroan dira eskolak, astelehen eta eguenetan (17:30); hona egunak: 3, 7, 10, 14 eta 17. Izena emateko: 943 79 00 49.

**1961EKOEN IRTEERA**

Errioxara joango dira 1961ean jaiotakoak azaroaren 19an. Izena emateko Orly, Gurea edo Eguzki tabernara jo (50 euro) azaroaren 10erako.

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

## Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETA | 943 79 96 54



## BASABE

**Menuak eta afariak**

Basabe poligonoa
ARETXABALETA 943 77 31 19



## DORLETA TABERNA

*Loteria eta kinielak*

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA




## Gurea TABERNA

Lotoak eta kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



## HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 06 57



## IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



## Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



## OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko janari prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67



# Kasu gehienetan %3 igoko dira zergak eta tasak

- Eguazteneko osoko bilkuran guztiek bozkatu zuten alde, EAJk izan ezik
- Ordenantza fiskalen azterketa "sakona" egin dute datorren urteari begira

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Eguazten arratsaldean egindako ezohiko osoko bilkuran udalbatzak behin-behingoz onartu zituen datorren urterako ordenantza fiskalak. Zerga eta tasak kasu gehienetan %3 igotzea erabaki zuen; hain justu, 2010eko irailetik aurtengo irailera egondako KPI. Bada, EAJ udal taldeko Aitor Urrutiak izan ezik, gainerako zinegotziek gobernuak proposatutakoaren alde bozkatu zuten.

Beñat Herce alkateak azaldu zuen Udalak zorpetze "esanguratsua" daukala, eta, aurreikuspenen arabera, espero dituzten sarrerekin "nahiko lan" izango dutela aurreikusitako gastu korronteei aurre egiteko. Hori dela-eta, ordenantza fiskalen azterketa "sakona" egin zuten udal ordezkariek Ogasun batzordean. Eskoriatzako zerga eta tasen izateko arrazoia aztertu zuten eta inguruko beste herri batzuetako tributuekin konparatu. Horren harira, Hercek honakoa esan zuen osoko bilkuran: "Askotan, gure tarifak inguruko herrietakoetara hurbiltzeko beharra ikusi dugu. Ondorioz, aldaketa nabarmenak daude".


Ur hornikuntza tasa KPI baino gehiago igoko da. | GOIENA

Aipatu bezala, igoera, orokorrean, %3 bada ere, salbuespenak daude. Zergetan, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan, zaldi fiskalen araberako kuota ordaintzen da eta bigarren tramuan (9 eta 12 zaldi artekoa) KPI baino gehiago igotzea adostu dute, eskualdeko batez bestekotik nahiko urruti zegoelako. Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergan, bestetik, koefizienteak eguneratu dituzte.

### Ura %4,5 igoko da

Tasetan ere salbuespenak daude: ur hornikuntzari dagokionez, Ur Kontsortzioak igoera %8koa izatea aurreikusten badu ere, Udalak %5,5eko igoera onartu du. Bestetik, herriko kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeko tasetan ere aldaketak daude. Abonuaren barne, orain arte, instalazioak erabili eta igerilekurako sarrera bakarrik zeuden. Datorren urtean, baina, sauna eta gimnasioa ere erabili ahal izango da, eta, ondorioz, %4,5 igoko da abonua. Hirugarrenik, Ibarraundi museora joaten diren taldeei bonifikazioak ematea adostu dute. Egun, hiru euro balio du sarrerak.

### Terrazak urte osoko kuota

Bestalde, jabego publikokoak diren lekuetan aulkiak eta mahaiak jartzeagatik ere gehiago ordainduko dute orain tabernek. Hercek gogorarazi zuen Tabakoaren Legea dela-eta terrazak urte osoan jartzen direla orain, eta, ondorioz, urte osoko zergaldia onartu dute, hiruhileko kuotari %25eko igoera aplikatuta.

Azkenik, honakoak dira eskualdeko batez besteko tasetara hurbiltzeko KPI baino gehiago igo direnak: hirigintzako hainbat lizentzia, jarduera zabaltzeko lizentziagatiko tasa, taxi lizentziak, udal hilerriko zerbitzuengatiko eta animaliak edukitzeagatik eta zainketagatiko tasak. Alkateak aipatu du herritarrengan eragin "minimoa" izaten saiatu direla aldaketa horiekin.

# Udalak "denok denona entzuteko" prozesua jarri du martxan

Bi modutan egingo dute lan: azaroaren 2tik 9ra egingo diren sei bilera sektorialekin; eta azaroaren 12ko ekitaldi nagusiarekin

**M.B.** | ESKORIATZA

Udalak eskoriatzarren ideiak, iritziak eta iradokizunak jaso nahi ditu eta horretarako parte-hartze prozesu irekia jarriko du martxan azaroan. Eguazten arratsaldean egindako aurkezpenean, Eskoriatzako alkate Beñat Hercek jakinarazi zuen 16 urtetik gorako "edozein" dagoela gonbidatuta. Honakoa aipatu zuen: "Herritar desberdinak elkarreraginean jarri nahi ditugu. Denok denona entzun eta bakoitzak berea esateko. Baina, interes komuna izango da: Eskoriatza".


Etxetik katilua eroateko deia egin zuten eguazteneko prentsaurrekoan. | M.B.

Komunikazioa errazte aldera lan taldeka banatuko direla esan zuen, eta bi modutako lana antolatu dutela: arlokakoa azaroa hasieran egingo da, bilerak sektorialen bidez. Azaroaren 2an izango da lehena. Gizarte Ongizateaz jardungo dute 16:30ean; 3an, Pertsonalez 14:00etan eta Kulturaz 18:00etan; 4an, Parte-hartze eta Komunikazioaz 19:00etan; azaroaren 8an, Turismoaz eta Ingurumenaz 18:00etan; eta 9an, Hirigintzaz 19:00an. Batzar guztiak kultura etxean dira, Turismoa eta Ingurumenarena izan ezik; museoan da hori.

### 'World Cafe' metodologia

Horretaz gainera, azaroaren 12an, *World Cafe* metodologian oinarritutako ekitaldia izango da, 10:00etatik 13:00etara, herriko kiroldegian.

Hercek azaldu zuen prozesu horren helburua dela datorren urterako ekintza plana eta aurrekontua parte-hartzailea uztartzea. Bestalde, gogorarazi du parte hartzeko asmoa dutenek aurretik eman behar dutela izena 943 71 46 88 (kultura etxea) zenbakian edo *komunikazioa@eskoriatza.net* helbidean.





Aurkezpen ofiziala egingo dute gaur Inkernun. | JULIO CALLEJA

# Xarma taldeak 'Karenka' aurkeztuko du gaur Inkernun

**M.B.** | ESKORIATZA

Eguaztenean Donostian *Karenka* izeneko lanaren aurkezpen ofiziala egin ostean, Danbaka lehiaketako laugarren edizioko irabazleek lehenengo kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan. 19:00etan hasiko da musika emanaldia.

Xarmaren lan berria 12 abestiz osatuta dago. Bi alderdi uztartu dituzte esandako diskoan: alde gogorra, batetik, eta melodia eta ahots erregistro bereziak, bestetik.

### Bi kantu, bilduma batzuetan

Nabarmendu behar da diskoan sartu dituzten bi abesti beste bilduma batzuetan ere argitaratu dituztela: *Libre* abestia Ikasle Abertzaleen 2011ko kantu ofiziala da eta *Isiltasun hautsia*, berriz, Intxorta 1937 kultura elkartearendako egindako kantua da.

## 'Bestela ondo... ezta?' antzeztuko dute gaur gauean Huhezin

Jon Urraza aktore, idazle eta zuzendariak sortutako *Bestela ondo... ezta?* ikuskizuna antzeztuko dute gaur, egubakoitza, Huhezin, 22:30ean. Helduendako umorezko antzezlan horretan bi pertsonaiaren arteko nahasketa islatzen da, bata *Aitor* aktorea eta bestea berak sortutako *Lander* fikziozko pertsonaia.

## Areto-futbolean, Dream Team hartuko dute bihar etxekoek

Astero moduan, partidua dago herriko Manolo Muñoz kiroldegian. Bada, oraingoan, norgehiagoka bakarra jokatuko dute han. Bihar, zapatua, areto-futbolean, lehen mailako erregionaleko partidua izango da, 16:00etan. Eskoriatzarrek Dream Team taldeko mutilak izango dituzte aurrean.


Hondakinak batzeko zintzilikarioa, Lizarragako hiribidean. | USOA AGIRRE

# Enpresak atez ateko sistemara gehituko dira azaroaren 2an

## Sei hilabeteko datuen arabera, hiri-hondakinen %92 birziklatzen dira

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Pasa dira sei hilabete Antzuolan hondakinen atez ateko bilketa sistema ezarri zenetik, eta, azken datuen arabera, hondakinen ia %92 birziklatzen dira Antzuolan. Datu horiek ikusita balorazio positiboa egin du atez ateko batzordeak eta antzuolarrak zoriondu nahi izan ditu Markel Azkargorta batzordeko teknikariak: "Balorazio positiboa egin eta antzuolarrak zoriondu beharrean gaude, beste behin. Orain tokatuko da *zero zabor* filosofian sakontzea eta hondakin horiek nola murriztu aztertzea".

Organikoaren kasuan, aurreikuspenen gainetik birziklatzen dela adierazi digu Azkargortak: "Hilean 14.000 kilo batzea zen aurreikuspena eta irailean, adibidez, 17.320 batu ziren". Gainontzeko hondakinen kasuan, berriz, aurreikuspenek ziotena baino gutxiago jasotzen da. Errefusarena da datu deigarriena: hilean 8.400 kilo batzea aurreikusten zen eta 1.520 jaso ziren irailean. Azkargortaren arabera, aurreikuspenak Hernani eta Usurbilgo datuekin egindakoak izan dira, eta, hiri handiagoak izanik, baliteke datu horiek ez egokitzea Antzuolara.

### Atez atekoa enpresetan

Atez ateko bilketaren ezarpenean bi fase zehaztu ziren: lehenengoa, herriguneari eta etxebizitzei bideratutakoa; eta bigarrenean enpresak sartuko lirateke. Datorren astean, eguaztenean, hasiko dira enpresak atez ateko sistemarekin hondakinak ateratzen. Azkargortak nabarmendu digu hiri hondakinak jasoko direla enpresetan: "Bestelako hondakinak, toxikoak edo arriskutsuak enpresa bakoitzak kudeatu beharko ditu, orain arte moduan eta dagokion lekura eraman".

Enpresen artean ezberdindu ditutze enpresa txikiak eta handiak. Enpresa handiek funtzionatuko dute edukiontzi irekiekin. Arazoren bat balego itxi egingo lituzkete edukiontzi horiek eta giltza edukiko lukete enpresako arduradunek eta biltzaileak. Enpresa txikiek, berriz, etxebizitzen moduan funtzionatuko dute, beraien zintzilikarioarekin eta kuboarekin.

### Hondakinak nahastuta

Arazoei dagokienez, batez ere hasieran egon ziren, herritarrek ez zutenean oraindik oso garbi nola sailkatu hondakinak. Dena dela, Markel Azkargortak esan digunez, poliki-poliki joan dira arazo horiek konpontzen: "Hasieran, batzuek organikoa ateratzen zuten plastikozko poltsan, eta horrekin ere egon zen arazoa, baina azken hilabeteetan normalizatu egin da; jendeak ondo egiten du orain sailkapena".

**HIRI-HONDAKINAK**

| HONDAKINA | METATUA (207 EGUN) | % |
|---|---|---|
| Organikoa | 92.350 | 48,08 |
| Papera | 33.680 | 17,53 |
| Ontziak | 28.410 | 14,80 |
| Errefusa | 13.780 | 7,17 |
| Beira* | 23.862 | 12,42 |
| GUZTIRA | 192.082 | 100,00 |

*Abuztuko eta iraileko datuak falta dira.

NIRE USTEZ



OIER PEÑAGARIKANO

## Tantaz tanta, herria

Atzean geratzen da iturburua, urrun. Jatorria begi-bistan ez izan arren, atzetik badator ura; fresko, emankor. Harri gogorrei kolpe eginaz, bidea irekiaz. Ur jarioa meharra izan arren, ibaiak inoiz ez dio harkaitza zulatzeari uzten. Poliki-poliki arrakalak sortzen, etsaiaren gotorlekuko horma bailitzan, pazientziaz, leun, baina aldi berean sarkor. Ehunka mila tanta txikik eratzen dute ibaia.

Bidean ehunka tanta geratzen dira, negar malkoak balira bezala; harkaitzen aurka kolpatzean ondoko zelai idorretan galdurik. Baina ibaiak aurrera jarraitzen du, harkaitzez harkaitz eta haranez haran; aurrera, abantian.

Bat-batean hormigoizko horma sendoak, bidea galarazten dion arren, horma grisak gainditzea lortzen du. Berriz ere goitik behera, bere bideari ekinaz. Mila oztopo eta zailtasun igaro arren, ez da itsasora heltzen ez den ibairik. Bertan bere izaera galdu gabe, beste ibaiekin elkartzen den eremuan. Eguntsentiarekin batera, eguzki ederraren berotasunak, berriz ere bere iturbururako bidean jartzen duen arren, badaki berriz harkaitz gogorrei aurka egiteko gai izango dela Behin eta berriz, bidean aurrera egiterik baino ez duelako. Benetan, bere geroa eraiki nahi badu behintzat.

**"Mila oztopo igaro arren, ez da itsasora heltzen ez den ibairik"**

## Eskolan igogailua jartzeko lanak bukatu dituzte eta martxan jartzea falta da orain

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Uztailaren 6an hasi zituzten eskola barruan igogailua jartzeko lanak eta dagoeneko bukatu dituzte. Ikuskaritza pasa eta lanei oniritzia eman ostean jarriko da martxan igogailua.

Eskolako sarreran dagoen eskailera nagusian jarri dute igogailua, eskaileraren zulotik gora; horretarako eskailera estutu egin dute. Obra zibila Bergarako Construcciones Pera enpresak egin du; igogailua, berriz, Donostiako Muguerza Igogailuak enpresak jarri du.

Eskolako igogailuaren inbertsiorako Eusko Jaurlaritzaren 66.000 euro inguruko dirulaguntza lortu zuen Udalak.

## OHARRAK

**TOLOÑORA IRTEERA**

Urriaren 30ean, domeka, 08:00etan Torresoroa parean elkartuko dira Arrolakoak Toloñora joateko. Ribas de Tereso portutik abiatuko dira; handik Toloñora igo eta gero Bastidara jaitsiko dira.

**OHIKO OSOKO BILKURA**

Udalbatzarraren ohiko osoko bilkura egingo da datorren eguaztenean, azaroaren 2an, 18:00etan. Armarri-sinboloa aldatzeko ideia lehiaketako irabazlearen izendapena dago gai-zerrendan, besteak beste.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira azaroaren 11ra bitartean.

## Europan egindako bidaia kontatuko du Ainhoa Ugarteburuk

Hileko lehen eguen guztietan bezalaxe, azaroaren 3an Antzuolarrak munduan zehar hitzaldia egongo da Olaranen, 18:30ean. Ainhoa Ugarteburuk Europan zehar egindako bidaiaren berri izateko aukera egongo da oraingoan. Autoz egindako bidaiako argazkiak erakutsi eta azalpenak emango dizkie bertaratutakoei.

## Futbol talde nagusiak kanpoan jokatuko du aste bukaeran

Bihar, zapatua, Zumaian jokatuko du erregional preferente mailako futbol taldeak hango taldearen kontra. 15:45ean hasiko da partidua Zumaiako Aita Mari futbol zelaian. Lehen mailako kadeteek ere bihar, zapatua, jokatuko dute partidua Eibarko Urki CDren kontra. Eibarko Unben izango da partidua, 11:00etan hasita.

## Pala motzeko Olaldeko jokalariek galdu egin zuten egubakoitzean

Joan den egubakoitzean jokatu zuten Olaldeko Mansok eta Alberdik, pala motzez, Altzatarrak taldearen kontra eta 40-36 galdu zuen Antzuolako bikoteak. Buruz buru, berriz, infantil mailako Olaldeko Manex Alberdik 2-0 irabazi zion Azkoitiko Cuevasi, bi joko irabazita: 8-2 eta 8-7.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

### Aramaio Baserri Barri ekimenaren eraikineko bigarren faseko lanak esleitu ditu Udalak

Aramaio Baserri Barri ekimenaren egoitza nagusia izango dena aurrera doa. Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak bigarren faseko lanak esleitzea. Bergarako Artzamendi enpresak egingo ditu lanak eta datorren egubakoitzean sinatuko dute kontratua Udalarekin. Egun Mendiolan kokatuta dagoen eraikinaren egitura dago eginda bakarrik eta hastear dagoen bigarren fasean fatxada egin eta gune ezberdinak zehaztuko dira. Hainbat elkarte eta proiektu bilduko dira eraikin beraren bueltan.



Bioalai kontsumitzale elkartekoak eraikinean, ekaineko bisitan. | GOIENA

### Bertxoko sariketa: Paula Amilburu azaroaren 11n eta Xabi Igoa, berriz, azaroaren 18an

Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak antolatzen duten Bertxoko sariketaren lehen kanporaketa azaroaren 3an jokatuko da. Hala ere, Aramaioko ordezkariak bigarren eta hirugarren kanporaketetan izango dira: azaroaren 11n Kanpezuko Ibernalo etxean Paula Amilburu eta azaroaren 18an Aguraingo Aitxuri elkartean Xabi Igoa. Saioak 22:30ean hasiko dira. Finala Aramaioko Iturrieta sagardotegian izango da, azaroaren 25ean.

### Errezilgo fruituekin marmelada egiten duen kooperatiba batera irteera azaroaren 5ean

Azaroaren 5erako irteera berezia deitu dute Udalak eta Aramaio Baserri Barri ekimenak. Emakumez osatutako Errezilgo kooperatiba batera irteera egingo dute, bertako fruituekin egiten duten marmelada egiteko prozesua ezagutzeko. Helburua da haien esperientzia ezagutu eta Aramaion halakorik egin daitekeen baloratzea. Izena emateko deitu 945 44 50 16 edo 625 70 63 74 (Aitor) telefono zenbakira. 09:00etan irtengo dira, pilotalekutik.

# Goi mailako azoka izango da bihar, erretiratuen jaian

## Bertakoez gain, kanpotik hainbat baserritar eta artisau datoz; domekan, artzain-txakur txapelketa Salazanen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Eguraldiak ez dirudi lagunduko duenik biharko Erretiratu egunean. Hala ere, Udalak egitarau zabala antolatu du, Euskadiko Kutxaren, Vital Kutxaren eta Arabako Aldundiko Nekazaritza Sailaren laguntzarekin. 10:30ean herriko trikitilari eta txistulariek emango diote hasiera egunari. Gero, 12:00etan, urtean zehar hildako erretiratuen omenezko meza nagusia egingo dute San Martin parrokian. Mezan parte hartuko dute umeen Papargorri eskolaniak eta Bizente Goikoetxea abesbatzak. 13:00etan euskal dantzen saioa egongo da, Lagun Artea dantza taldearen eskutik. Amaitzeko, bazkaria egingo dute kiroldegian (14:30). Gainera, elkarteetan mokadutxoa doan izango dute goiz osoan. Eta noski, bazkarian opariak ere jasoko dituzte; sari potoloa bi lagunendako Benidormerako bidaia izango da.



Bertako zein kanpoko produktuak egongo dira biharko azokan. | ARAMAIOKO UDALA

**Ganadua, goiko aldean**

Azoka, bestalde, 11:00etatik 14:30era izango da. Nardeaga kaletik Eki tabernara arte bertako zein kanpoko barazki, fruitu eta artisautza produktuekin 41 postu egongo dira. Goiko aldean, berriz, beste 18 baserritarrek ganadua erakutsiko dute. Aldi berean, bigarren eskuko produktuez osatutako postua jarriko du Izaskun Arriaranek. Honako materiala jasoko du: kirol materiala eta arropa, haurren zaintzarako materiala eta etxetresna elektriko txikiak. Materiala egunean bertan jasoko da, 09:00etatik 11:00etara. 11:30etik aurrera salgai jarriko dira edo trukea egiteko aukera egongo da. Jabeak jarriko du prezioa eta ateratzen den diruaren %20 Aspanafoha minbizia duten Arabako haurren aldeko elkartearendako izango da.

> **DATUA**
> **41**
> POSTU
> 41 postu izango dira azokan eta beste 18 baserritarrek ganadua ekarriko dute.

**Artzain-txakur txapelketa**

Domekan, bestalde, artzain-txakur txapelketa egingo dute Salazango landetan (11:30). Jon Zuazo Arabako txapeldunak parte hartuko du; Fernando Etxebarriak, berriz, etxean jokatuko du.

NIRE USTEZ

ROSA MONDRAGON



## Bukatu ez, hasi!

Zein ondo bizi diren gaur egun jubilatuak!". Sarritan entzuten ditugu halako esaldiak. Seguru zuek ere ezagutzen dituzuela jubilatu asko gazte, osasuntsu, gogotsu eta bizi kalitate ezin hobea erakusten dutenak.

Urteak betetzeak ematen duen esperientziak lagunduta, hainbatek erabakitzen dute lanean jarraitzea: elkartean, gobernuz kanpoko erakunde batean... Badira, urte askoren bueltan ikasten jarraitzea erabakitzen dutenak ere!

Baina, hala ere, jubilatu batzuk depresioaz gaixotzen dira erretiratzen direnean. "Egunak ordu asko ditu, gehiegi!", diote horiek. Ez du erraza izan behar horrenbeste urte lan berean, lantegi berean edota lantalde berdintsuarekin igaro ondoren, guztia utzi eta bizitzaren etapa berri bati hasiera emateak.

Guk, dagoeneko berrogeiko hamarkada hasita dugunok, zera pentsatzen dugu: erretirora heltzen bagara nola iritsiko garen osasunez, ekonomikoki… Ez dakit ordua heltzen zaigunean nola hartuko dugun, baina orain inbidia pixka bat ematen digute hain gazte eta gogotsu ikusten ditugun erretiratu berri horiek, ahaztutako afizioren batean murgilduta, bidaietan handik hona dabiltzanak…

Bizi poza ez da gazteen kontua bakarrik, ez. Bukatu beharrean, hasi! Horixe da eta horixe izan beharko luke erretiroa hartzen dutenen leloa.

**"Bukatu beharrean, hasi!; erretiratuen leloa da hori"**



JOKIN BEREZIARTUA

## Hauteskunde mahaian egon behar dutenak, zozketa bidez

Eguazteneko osoko bilkuran zozketa egin zuten, azaroaren 20ko Espainiako hauteskundeetan mahaian egon behar duten herritarrak zehazteko. Bi mahai egongo dira, eta, beraz, 18 herritarri –hiru titular eta sei ordezko mahai bakoitzean– jakinarazi behar die Udalak egun horretarako duten zeregina. Programa informatiko bidez egin zen zozketa; alegazioa jartzeko epea zazpi egun da, jakinarazpena jasotzen den egunetik.

ELGETA

# Azaroko domeketan girotutako poteoa izango dugu herrian

Pintxo lehiaketa, perretxiko erakusketa eta argazki lehiaketa iragarri dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kaleko giroa indartu guran Elgetako Udaleko Kultura eta Turismo batzordeetatik egitarau betea iragarri dute azarorako. Domeketan jokatzen diren pilota txapelketako partiduek jendea erakartzen dute Elgetara, eta hileko lehenengo eta azken domeketan egingo diren bisita gidatuek ere bai. Sortzen den giro horri bazkalordura arte jarraipena emateko trikitilariak ibiliko dira tabernaz taberna. Demekero izango da hori, azaroaren 20a salbu; egun horretan, trikitilarien ordez bertsolariak ibiliko dira tabernaz taberna.



Iaz Elgetan egindako perretxiko erakusketa. | AMAIA TXINTXURRETA

**Pintxoak euro baten**

Udazkenero moduan, aurten ere pintxo lehiaketa, perretxiko erakusketa eta argazki espres lehiaketa antolatuko ditu Udalak. Pintxoak eta perretxikoak azaroko lehenengo domekan, hilaren 6an, izango dira protagonista. Eta aurten bada nobedaderik: ostalariei lehiaketara aurkeztutako pintxoak azaroko domeka guztietan eskaintzea eskatuko zaie. Hortaz, azaroko domeketan pintxoa euro baten kontsumitzeko aukera izango dugu Elgetan.

**Argazkiak eta jolasak**

Argazki lehiaketa, aurten, azaroaren 13an egingo dute. Parte-hartzaileek kamera digitala beharko dute eta antolatzaileek emandako gaia aintzat hartu beharko dute denbora epe mugatuan argazki onena ateratzeko.

Kultura eta Turismo batzordeetan herriko txikienekin ere akordatu dira. Azaroaren 20rako umeendako jolasak iragarri dituzte. Eguerdian egingo dituzte eta eguraldiaren arabera erabakiko dute non egin.

**Jardunaldi gastronomikoak**

Eta udazkeneko produktuak dastatu gura izanez gero, Maialde hotela Debagoieneko jardunaldi gastronomikoetan parte hartzekoa da. Hala, urriaren 28tik abenduaren 11ra bitartean menu berezia eskainiko dute Elgetako hotelean. Menu horretan protagonismo berezia izango dute Debagoieneko odolosteek eta onddoek. Maialdetik jakinarazi dute enkarguz egingo dutela lan. Bada, okasiorako gertatu duten menuaren prezioa 35 euro da.

## VIII. PILOTA TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Asier Morales - Koldo Goenaga | 22-09 |
| Pello Larrea - Mikel Elkoro / Satur Ramos - Mikel Arkarazo | 22-04 |
| Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal | 22-05 |
| Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Iban Retolaza - Xabier Larrañaga | 22-13 |
| Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi | 14-22 |
| Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre / Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre | 12-22 |
| Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga | 21-22 |
| Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Garikoitz Arrazola - Mikel Ormaetxea | 22-09 |
| Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua | 13-22 |

**BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN**

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal
Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Garikoitz Arrazola - Mikel Ormaetxea

**DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00ETAN**

Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga
Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre

### Jose Antonio Retolatza 'Altube'-k konposatutako sei pieza eskainiko ditu abesbatzak domekako mezan

Domeka eguerdiko meza berezia izango da: abesbatzak sei pieza berri eskainiko ditu, guztiak abesbatzako zuzendari Jose Antonio Retolatza *Altube*-k idatzitakoak. Musika eta letra dira Retolatzarenak. Lehenengo aldia da abesbatzak Retolatzaren uztako piezak jendaurrean eskaintzen dituena. Mezetan organoa joko duen Lorea Larrañagaren esanetan, egun berezia izango da.

### Domekan, urriak 30, 'Herrixa dantzan' ekimeneko saioa egingo dute Espaloian eta sarrera doan da

Dantza saioa egingo dute etzi, domeka, kafe antzokian. Parte-hartzaileak 19:00etan elkartuko dira Patxi Monteroren gidaritzapean dantza berriak ikasteko. Euskal Herriko eta Europa osoko dantza tradizionalak eta ludikoak, sokan, taldean, bikoteka... iragarri ditu Monterok. "Irailean hasi genuen moduan, tarte berezia eskainiko diegu bikotean egiteko dantzei".

### Ikastaroa ezinduak zaintzen dituztenendako eta gaztaina-erre jana erretiratuendako, datorren astean

Zazpi lagunek eman dute izena Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatutako ikastaroan parte hartzeko. Parte-hartzaileek eguenean, azaroak 3, egingo dute lehenengo saioa. 17:30ean elkartuko dira eguneko zentroan. Bestetik, Xalbadorpe erretiratuen elkartetik jakinarazi dute azaroaren 4an, barikua, egingo dutela aurtengo gaztaina-erre jana. 18:30ean elkartuko dira Ozkarbin.

### 1958ko kintoak azaroaren 19an elkartuko dira eta izen-ematea zabalik dago Maialde hotelean

Antolatzaileek bazkaria egin gura dute eta kinto guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. Azaroaren 19an, zapatua, elkartuko dira urteko bazkaria egiteko. Maialde hotela aukeratu dute eta interesatuek bertan eman beharko dute izena, beranduenez, azaroaren 5ean.



Aitor Gorostiza eta Jon Ugarteburu. | L.Z.

# Gaur egingo dute gazteendako lehenengo saskibaloi saio irekia

Aitor Gorostizak eta Jon Ugarteburuk 18:30ean egingo duten saiora deitu dituzte gaztetxoak

L.Z. | ELGETA

Elgetako Udalak Bergara Kirol elkarteko saskibaloi sailarekin lotutako akordioak gaur emango du lehenengo emaitza. Ordubeteko saskibaloi saioa izango da eta 3., 4., 5., eta 6. mailetako neska-mutikoei zuzenduta dago.

Elgetako zazpi bat gaztek egiten dute saskibaloian Bergaran, tartean Aitor Gorostizak (16 urte) eta Jon Ugarteburuk (14 urte). Bi gazte horiek gidatuko dituzte aurrerantzean hilean behin egingo diren saskibaloi saio irekiak. Lehenengo saioan, ordea, Bergarako Alex Gardoki izango dute lagun. "Jokoen bitartez gerturatuko ditugu Elgetako gaztetxoak saskibaloira", adierazi du Gardokik. "Helburua da ondo pasatzea eta modu ludikoan baloia nola dominatu erakustea".

LEINTZ GATZAGA

# Abendurako egongo da guztiz bukatuta Gatzagaingo ur depositua

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Martxoan hasitako ur depositu berriaren lanak azken fasean sartuta daude. Erga SL enpresako langileek obra zibila egunotan bukatuko dutelakoan daude Hirigintza Saileko arduradunak, eta ondoren, azaroan, ur ponpak eta gainerako tresneria jarriko dituzte. Hala, abendurako ur depositu berria guztiz bukatuta izango dela uste dute Hirigintzakoek, ezustekorik gertatu ezean.

Orduan estankotasun probak egingo dituzte, urak ihesbiderik ez duela ziurtatu eta instalakuntza guztia ondo dagoela probatzeko. Dena den, lanok egin bitartean ere hainbat proba egiten ibili dira.

**Gaztainuzketarako ura**

Behin depositua gertu dagoenean eta instalazio guztiak martxan –ura ponpatzeko herriko depositutik berrira–, Gaztainuzketara ura eramatea da epe motzera Udalak duen asmoa. Era berean, Arlaban eta Goierri auzo inguruan sare horretara konektatzeko interesa dutenei laguntzeko gertu agertu da. Baserri guztietara sarea zabaltzea ez dute baztertu, baina hori etorkizunean lortuko diren dirulaguntzen menpe dagoela jakinarazi dute.



Gatzagainen egin duten ur depositu berria. | M.A.



Bergaran egubakoitz arratsaldeetan egiten dute saskibaloi eskola, 17:15ean hasita; irudian, duela bi asteko saioa. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

# Saskibaloi eskola bateratua, harrobiaz baratze lana egiteko

- Arrasate, Bergara eta Oñatiko klubek proiektu bateratua aurkeztu dute
- Asmoa da Josu Larreategik saskibaloi eskolak koordinatzea

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Astelehenean aurkeztu zuten Debagoienean saskibaloi eskola bateratuaren alde lanean dabiltzanek proiektu bateratua. Lehenengo, Goiena telebistako *Harmailatik* saioan; ondoren, Monte tabernan egindako aurkezpenean, Jon Basurkok, Alex Gardokik eta Josu Larreategik zabal jardun zuten proiektuaren nondik norakoak azaltzen.

**Batera, lehenengoz**

Proiektu bateratu bat aurkezteko batu dira ibarreko hainbat herritako klubak, eta hori, jada, albiste da, nor bere zilborrari begira egoten garelako normalean. Hala, Arrasate, Bergara eta Oñatiko saskibaloi klubek batera eskaini nahi dute saskibaloi eskola. Asmoa da Josu Larreategik koordinatzea eskolak, oinarrizko saskibaloian esperientzia handia duen gizona: "Helburua hemengo neska-mutikoak saskibaloira erakartzea da, eta saskibaloiaz gain gaur egun galdutzat ditugun hainbat balio errekuperatzeko egingo dugu lan: talde lanean jardutea, errespetuz jokatzea...".

Klub gehienetan ikasturte honetan hasi dute saskibaloi eskola; Bergaran iaz hasi ziren, eta 30 neska-mutikoko taldea sortu zuten. Arrasaten, berriz, teknifikazio saioak egin dituzte gazteekin, baina aurten hasiko dira eskolak. Hala, proiektuaren muina guztien arteko elkarlana sustatzea izango da, harrobiaren esparrua hobeto lantzeko.

**Azpeitia, eredu**

Jon Basurkok azpimarratu zuen Azpeitia izan daitekeela jarraitzeko moduko eredua: "Gazteekin lan ona eginda kluba dagoen tokiraino eraman dute, eta ikustekoa da herrian ze jarraipen duten. Ez da gure ibarreko edozein herri baino handiagoa, eta hango modeloa eredugarria izan daiteke". Gauzak horrela, urrian hasi eta ekainera arte egingo dute saskibaloi eskola: "Asteroko entrenamenduak Josu Larreategik koordinatuko ditu, baina herri bakoitzak monitore propioak izango ditu. Hala, asteroko entrenamendu saioekin batera, "teknifikazio saioak, hiruko saskibaloi torneoak, beste klub batzuekin lagunartekoak, gaztetxoekin egonaldiak... gauza asko egiteko aukera ematen du".

**Entrenatzaile onenak gazteekin**

Saskibaloi eskolan euskara izango da oinarrizko erremintetako bat, eta hori guztia gauzatzeko tituludun monitoreak izango dituzte: "Izan ere, hori da saskibaloi eskolaren beste helburuetako bat, ondo prestatutako monitore eta teknikariak heztea. Izan ere, orain arte egin denaren kontrara, entrenatzaile onenek ez dute goiko taldeekin egon behar, eta bai gaztetxoenekin lanean", adierazi zuen Larreategik. Hori bai, proiektu bateratua bideragarri egiteko gutxieneko taldeak sortu beharko dituzte.



Basurko, Larreategi eta Gardoki aurkezpenean. | ANDER MONEDERO

## Eskolak, non, noiz eta nola

Herri bakoitzak modu ezberdinean antolatuko ditu eskolak, eta ordutegi eta informazio gehiago behar izanez gero nahikoa da klub horietako ordezkariengana jotzea. Arrasateren kasuan, 2002. eta 2003. urteen artean jaiotakoek astelehenetan izango dute hitzordua, Musakolan (17:15-19:00). Bergaran egubakoitzero batzen dira Martinez de Iralako ikastolan (17:15). Oñatin saioak martitzen edo egubakoitzetan izango dira, betiere sor litezkeen taldeen arabera, Larraña Herri Eskolan (17:00-19:00).

ESANAK

**"Gazteak saskibaloira erakarri nahi ditugu"**

JON BASURKO | OINTXE!

**"Saskibaloiaz gain galdutako balore batzuk landuko ditugu"**

JOSU LARREATEGI | KOORDINATZAILEA

**"Eskolak balioko du klub guztiak gehiago batzeko "**

ALEX GARDOKI | BERGARAKE

MENDIKO LASTERKETAK

## Oihana Kortazar kilometro bertikaletan ere txapeldun

**X.U.** | ARRASATE

Oihana Kortazarrek urtea borobiltzen jarraitzen du, eta honek ez du amaierarik, asteburuan Espainiako kilometro bertikalen txapeldun izan da-eta, Segovian egin zuten lasterketan nagusitasunez irabazita. Hala, Segoviako Peñalarako mendi tontorrean (2.430 metro) lortu du azken garaipena elgetarrak.

**Ez du parekorik**

Mendi lasterketetan Espainiako kopa eta txapelketa irabazi eta Europakoa bereganatu ostean, azken boladan kilometro bertikaletan buru-belarri dabil Oihana Kortazar. Ibarreko mendizaleek duela aste batzuk bertatik bertara ikusi ahal izan zuten elgetarra ze sasoitan dagoen, Anbotoko kilometro bertikala irabazi eta gero. Hala, gorputzaldi onari jarraipena eman dio, asteburuan Espainiako kilometro bertikaleko koparako puntuagarria zen azken proba irabazi du-eta.



Kortazar, Peñalara proban. | GOIENA

Segoviako Peñalara mendiko malda gogorrek nahikoa lan eman zieten lasterketan egon ziren 126 korrikalariei. 3,7 kilometrotan 1.010 metroko desnibela gainditu behar izan zuten; zoritxarrez, behelaino itxiak ikusgarritasuna kendu ziola probari. Ohi bezala, Kortazarrek hasieratik erritmo oso gogorra ezarri zuen (48:49) eta ia minutu bateko aldea atera zion bigarren sailkatu zen Vanesa Ortegari (49:42). Hirugarren, berriz, Blanca Serrano izan zen (50:20). Gizonezkoetan, berriz, Didier Zagorentzat izan da kopa.



Ford Mugarriren eta La Bacaladera taldeen arteko norgehiagokako une bat. | JULIO CALLEJA

ESKUBALOIA

# Ardiz mozorrotutako Bergara, lider dagoen Ford Mugarriren kantxara

Euskadiko txapelketan derbia jokatuko dute gaur Ford Mugarrik eta Soraluce Bergarak; Arrasatekoak faborito garbiak dira, baina ez dira mahoneroez fidatzen

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Denboraldi hasiera ikusgarria egin du Ane Herreroren taldeak. Sei partidu, sei garaipen. Jakinekoa zen Arrasatek sekulako taldea osatu duela, eta emaitzek baieztatu egin dute hori.

Bergara ez da horrenbesterainoko *supertalde*, baina denak daude harrituta etxean erakusten dabiltzan mailarekin, entrenatzaileetik hasita. Hala, gaur, egubakoitza, bi talde horiek derbia jokatuko dute Iturripen (20:30).

**Bergararekin argi**

Joan den astean Erromo menderatu berri Bergarako entrenatzaileak onartu zuen Arrasaten zaila izango dela ezustea ematea: "Eurak dira faborito argiak, beste maila bateko taldea dutelako", zioen Josetxo Muniategik. "Halako partiduak normalean egiten ez ditugun gauzak probatzeko aprobetxatu behar ditugu, eta jokalarien artean minutuak banatu. Garbi dugu gure puntuak ez ditugula halako kantxetan eskuratuko, beste kontrario zuzenago batzuk ditugulako".

Muniategik gaurko bisitaren aurrean ardiz mozorrotu du bere taldea, baina adi halako mozorroekin, otso-hortz bat agerian utzi du-eta: "Hori bai, Arrasatekoek txorradaren bat egiten badute...".

Herrero ez da Bergarakoekin fidatzen: "Bai, partidua irabazteko gu gara faborito, Bergara etxetik kanpora ez dabilelako horren ondo, baina ondo dakigu ez direla Arrasatera eguna pasatzera etorriko; gainera, halako derbietan jendea oso gogotsu egoten da".

**Biek azkena irabazi berri**

Debagoieneko bi taldeak moralki egoera onean iritsiko dira Iturripeko hitzordura. Soraluce Bergarak Romo moduko talde indartsu bat erreakzionatzeko gaitasunik gabe utzi zuen joan den astean (32-26): "Liga hasieran beldur nintzen, baina denboraldia amaitu genuen joko-maila berarekin gaude, oso pozik gaude".

Eta, Arrasate aldean ere aldarte oso onean daude, joan den astean Askartzaren kantxan irabazi ostean: "Orain arteko garaipenetatik esanguratsuena dela esango nuke, partidua negargarri hasi genuelako baina buelta eman geniolako, epaileak Pello kanporatu zuelako, Bizkaian partidu bat irabaztea zaila delako, eta zailagoa Askartzaren kantxan bada. Eta hala ere lau goleko errentaz irabazi genuen partidua (24-28). Itzuliko norgehiagokarako garrantzitsua da hori". Nor den otso, eta nor ardi, gaur, 20:30ean.

**ESANAK**

"Garbi dugu borroka beste talde batzuekin dugula"

**JOSETXO MUNIATEGI** | BERGARA

"Bergara ez da Arrasatera arratsalde-pasa etorriko"

**ANE HERRERO** | ARRASATE

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**
Reala-R.Madril
Zapatua. 22:00. Anoeta.

**EMAKUM. BIG. MAILA**
Abanto-Mondra
Zapatua. 16:00. El Mortuero.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Lauro Ikast.-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Loiu.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Mondra-Roteta
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta- Pasaia
Domeka. 16:30. Ibarra.
Tolosa-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zumaiako-Antzuola
Zapatua. 15:45. Aita Mari.
Idiazabal-Aretxabaleta B
Zapatua. 16:30. Idiazabal.

**LEHEN ERREGIONALA**
Mondra-Soraluze B
Zapatua.18:30. Mojategi.
Urki-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Unbe.

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**
Ikasberri-Mondra
Zapatua. 15:30. Garmendipe.
Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 16:30. Deba.
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**GAZTEAK**
Aloña Mendi-Bergara B
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Aretxabaleta B-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Arizmendi-Soraluze
Zapatua. 15:30. Almen.

**OHOREZKO KADETEEN MAILA**
Bergara-Aurrera
Domeka. 17:30. Ipintza.
Eibar B-Aretxabaleta UDA
Zapatua. 11:00. Unbe.
Reala-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Zubieta.

**KADETEEN LEHEN MAILA**
Urki-Antzuola
Zapatua. 11:00. Unbe.
Ilintxa-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Bikuña.
Soraluze-Arizmendi
Zapatua. 11:30. Ezozia.
Bergara B-Arrasate CD
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Mutriku-Arizmendi
Zapatua. 17:30. San Miguel.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Kukuiaga Etxebarri-Eskoriatza
Zapatua. 17:00. Etxebarri.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri-Soraluce BKE
Egubakoitza. 20:30. Iturripe.

**LEHEN SENIOR GIZONEZ.**
Izarraitz Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**BIGARREN TERRITORIALA**
Ordizia-Arrasate
Domeka. 12:00. Majori.

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**
Hondarribia-Talleres Chapime
Domeka. 10:00. Hondartza.
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Labegaraieta.

**GAZTE MAILA, EMAKUMEAK**
Aloña Mendi-Aiala
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
HTG Express-Soraluce BKE
Zapatua. 17:15. Irun.
Berezao Aloña M.-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**
Leizaran-Aloña Mendi B
Zapatua. 17:15. Andoain.
Urnietako-Aloña Mendi A
Zapatua. 12:00. Urnieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Easo Pastas-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Donostia.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Bide Bide-Mondragon Unibert.
Zapatua. 18:00. Tolosa.

**LEHEN SENIOR GIZONEZK.**
MU-Leihoak Zast
Gaur. 20:00. Musakola.
Bosteko-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.



Gamarra eta Lekuona, defentsa lanean. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

## Gipuzkoarren arteko derbia EBAn: Donostian jokatuko du Aloñak bihar

**X.U.** | ARRASATE

Liga ondo hasi duten Easo Pastas Arruabarrena eta Sustrai Aloña Mendi izango dira zein baino zein gehiago zapatuan Donostian (Josean Gasca, 20:00). Hala, gipuzkoarren arteko lehenengo derbia izango da, bestea Cafes Aitonaren kontrakoa izango da-eta. Jakinekoa da Valladoliden kontra Aloñak izandako hasiera ona, baina Easok ere ondo hasi du liga: Zornotzaren kantxan irabazi egin zuten (54-71).

**MU liderraren kantxara**

Joan den astean lider dagoen Araberriren kantxan galdu ostean, Josu Larreategiren mutilek ostera jokatuko dute etxetik kanpora, bigarren astez jarraian, eta oraingo kontrarioa ez da makalagoa izango, Bide Bide Ibiza bigarren dago-eta sailkapenean.

Tolosako taldeak oso ondo hasi du denboraldia, nahiz eta joan den astean Seky.es taldearen kantxan galdu egin zuten (75-69). Liga honetan ez du inork barkatzen, batez ere etxean. Hala, Larreategiren taldeak baja garrantzitsuekin egin beharko dio aurre talde tolosarrari bihar, zapatua, 18:00etan. Txarrena da baja horiek luzarorako direla.

FUTBOLA

### Bergarak, Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatuko dute

Sinbolikoa bada ere, Real Unioni irabazi ostean Aloñak dagoeneko atzean utzi du azken postua, Hondarribiaren kaltetan, eta bost puntu batu dituzten talde mordoxkaren multzora batu da. Asteburuan etxeko taldeen artean oñatiarrak dira kanpora joango diren bakarrak, bigarren dagoen Tolosaren zelaira.

ERRUGBIA

### Bigarren garaipena Igor Isasiren mutilendako, oraingoan Torrelavegan

Joan den asteburuan lortu zuen Arrasate Errugbi Taldeak ligako bigarren garaipena, Besaya taldeari 15-34 irabazita. Isasiren mutilak lokartuta zelairatu eta kantabriarrek ondo aprobetxatu zuten hori lehenengo entsegua egiteko. Hala ere, esnatu eta buelta eman zioten partiduari. Bada, oraingo asteburuan atseden izango dute.

PILOTA

### Gipuzkoako txapelketako partiduak gaur eta bihar

Oraingo asteburuan ere Gipuzkoako txapelketa barruan pilota partiduak jokatuko dituzte Bergaran, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Egubakoitz ilunkeran herri horietan guztietan izango dira partiduak, eta Arrasateko pilotariek zapatuan ere etxean jokatuko dute, Uarkapen, 18:00etan hasita.

BADATOR...

Kantari
3. edizioa

*Azaroaren 5 eta 6an Bergaran izango gara!*

*Etorri zuen lagunak animatzera.*

**Bergarako** eta **Antzuolako** partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

IKUSKIZUNAK

AZAROA
**BERGARA 5 / 6**
Zabalotegi aretoan.

ARETXABALETA 12 / 13
Arkupe aretoan.

Abestien letrak eta koreografien bideoak
**http://zugaz.com/blog/**

**943 25 05 05**

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

KULTURA

# Nazioarteko soinua, gurean

▸ X. nazioarteko trikiti jaialdia egingo dute domekan Zuazola institutuan, 17:30ean

▸ Irlanda, Okzitania, Gaztela eta Leon eta Euskal Herriko trikitilari onenek joko dute Oñatin

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Euskal Herriko trikiti elkarteak eta Oñatiko Lizargate trikitizale elkarteak trikiti jai erraldoia antolatu dute elkarlanean. Oñatiarrei eman diete ardura aurten X. nazioarteko trikiti jaialdia antolatzeko.

Domekan izango da saioa, 17:30ean, Zuazola institutuan. Sarrerak salgai daude 10 eurotan Umerez eta Urbia tabernetan eta baita kultura etxean ere. Bestalde, jaialdia hasi baino ordubete lehenago irekiko dute leihatila eta han ere egongo dira salgai.

### Debagoiendarren presentzia

Biolina izango da aurtengo instrumentu gonbidatua. Hala, domekako jaialdian biolina eta trikitia batuko dituzte. Parte-hartzaileak hauek izango dira: Okzitaniako Cyrille Brotto eta Alexandra Lacouchie, Irlandako Stephen Doherty eta Patrick Doocey, Gaztela eta Leongo Jorge Arribas eta Diego Galaz eta Euskal Herriko Arrabots taldea, Jon Ostolatza eta Juan Arriola bikotea eta Maixa, Ines eta Maite hirukotea. Ines Osinaga izango da, hortaz, debagoiendarren ordezkaria domekako jaialdian.

Arrasatearra 8 urterekin hasi zen panderoa jotzen eta trikitiarekin jarraitu zuen ondoren. Naiara Okinarekin osatu zuen bikotea. Hainbat txapelketatan parte hartu zuten elkarrekin, eta txapel ugari lortu. Ekon taldeko partaideak ere izan ziren, eta, hori amaitzean, proiektu berriekin hasi zen Osinaga. Orduan sortu zen Gose taldea. Besteak beste, lau disko dituzte kalean, *Eutsi* filmaren soinubanda eta aurtengo Korrikaren abestia ere egin dute. Goserekin tartekatuz, Maixa eta Maiterekin erromeria batzuk egiten ditu Osinagak.

Iñigo Irazabal Lizargarate trikitizale elkarteko kideak azaldu du jaialdiak aukera emango duela soinu diatonikoaren inguruan beste herrialde batzuetan egiten den lana ezagutzeko. "Gurean ez da oso ohikoa trikitia eta biolina uztartzea, baina batzuek egiten dute. Arrabots taldeak biolina bakarrik jotzen du, baina trikiti piezak jotzen dituzte. Oso polita izango da".

### Aste bukaera osoko jaia

Jaialdia Oñatin antolatu behar dutela aprobetxatuta aste bukaera osoko egitaraua antolatu dute trikitizaleek. Bihar goizean tailer didaktikoak eta kalejirak egongo dira eta arratsaldean trikitia herrira zabalduko dute: "Pentsatu genuen tabernetan emanaldiak egitea: Umerezen betiko trikitiaz gozatzeko aukera egongo da eta Pakon gazte jendeari zuzendutako emanaldia egingo dugu", dio Irazabalek. Tabernetako kontzertuek ordubete iraungo dute: 20 minutuko hiru saio.

### Lan onaren emaitza jaso dute

Lizargarate trikitizale elkartea orain dela lau urte sortu zuten, "lanerako ilusioz eta gogoz" zeudela ikusita. Lizargaraten hilero erromeria egiten dute, eta Lizargarateko abuztuko jaiak ere berreskuratu dituzte. "Euskal Herriko elkartea harrituta dago Oñatin trikitiak duen indarrarekin", dio Irazabalek.

## EGITARAUA

**29, ZAPATUA**

- **11:00** Tailer didaktikoa atzerriko musikariekin kultura etxean, Tapiarekin.
- **12:00** Hamarretakoa.
- **12:30** Tailer didaktikoa bertako musikariekin kultura etxean Tapiak gidatuta.
- **13:30** Kalejira herrian.
- **18:30** Soinu emanaldia Umerez tabernan.
- **19:45** Soinu emanaldia Pako tabernan.
- **20:45** Kalejira.
- **21:30** Afaria eta erromeria kiroldegian.

**30, DOMEKA**

- **17:30** Trikiti jaialdia.
  - ▸ Cyrille Brotto eta Alexandra Lacouchie.
  - ▸ Stephen Doherty eta Patrick Doocey.
  - ▸ Jorge Arribas eta Diego Galaz.
  - ▸ Arrabots taldea.
  - ▸ Jon Ostolaza eta Juan Arriola.
  - ▸ Maixa, Ines eta Maite.



Stephen Doherty musikari irlandarra. | EUSKAL HERRIKO ELKARTEA




Lizarribar, Osinaga eta Loidi trikitilariak. | E. HERRIKO ELKARTEA



Juan Arriola –biolina– eta Jon Ostolatza –trikitia. | E.H.

**ESANAK**

**"Gurean ez da ohikoa trikitia eta biolina uztartzea"**

**IÑIGO IRABAZAL** | TRIKITIZALEA

ION leihoak
ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK

**ARRASATE**
Telleria kalea 4 • Pab. 11
Aramaioko bidea
(Markulete Ind. inguruan)
Tel.: 943 79 11 35

**GASTEIZ**
Olagibel 51
Tel.: 945 25 71 73

KÖMMERLING® K21

PRODUKTU BERRIAK




Ruper Ordorika *Hodeien azpian* disko berriko promozioko irudian. | OSKAR ALEGRIA

# Ruper Ordorikak gizakiaren ametsez dihardu lan berrian

New Yorken grabatu du oñatiarrak 11 abestiz osatutako diskoa

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Musikari oñatiarrak *Hodeien azpian* lana aurkeztu zuen atzo Bilboko Elkar aretoan. Ohiko musikariekin grabatu ditu abestiak Ordorikak, New Yorken, eta nahasketak, ostera, Elkar estudioan egin ditu.

**11 abestiz osatutako lana**

Disko berria 11 abestik osatzen dute, denak euskaraz abestuak. Skuli Sverrisson –baxua–, Stepen Ulrich –gitarra elektrikoa–, Kenny Wollesen –bateria– eta Gerry Z –teklatua– musikarien laguntza izan du diskoan oñatiarrak. Gonbidatu bereziak ere izan ditu: Ordorikaren aurreko diskoetan parte hartu duen Ben Monder gitarra jolea eta Arkaitz Miner biolin jolea.

**Gizakiaren barruko ametsak**

Kantuen bitartez, irudi literarioari helduta, gizakiaren barruko ametsak, fantasmak eta barne hizketak azaltzen ditu Ordorikak diskoan. Kantuak sortzen nekaezina da Ordorika, baina disko bakoitzari dagokion usain eta bereizgarria bilatu gura izaten dio.

Ibilbide luzea eta oparoa du Ordorikak musikaren munduan. 1980an *Hautsi da anphora* lana argitaratu zuenetik ez da geratu oñatiarra. Azken lana 2008an argitaratu zuen: *Hamar t'erdietan* kafe antzokian grabatutako zuzenekoa. Jarraitzaileen gozamenerako kalean da lan berria.

# 12 abestiz osatutako 'Karenka' lana kalean du Xarma taldeak

A.E. | ARRASATE

Eguaztenean aurkeztu zuen Xarma musika taldeak Donostiako Koldo Mitxelenan *Karenka* diskoa. 12 abestiz osatutako lana da argitaratu berri dutena. Abesti guztiak euskaraz dira.

Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaran eta Xarma taldeko musikariak izan ziren aurkezpenean.

**IAren abesti ofiziala**

Danbakako laugarren edizioko irabazlea da Xarma –Ondarroa, Donostia eta Berrizko musikariek osatzen dute taldea.

Nabarmendu behar da diskoan sartu duten bi abesti beste bilduma batzuetan ere argitaratuko dituztela: *Libre* abestia Ikasle Abertzaleen 2011ko kantu ofiziala da eta *Isiltasun hautsia* Intxorta 1937 kultura elkartearendako egindakoa da. Barandiaranek dio Xarmaren bi alderdiak batzen dituela diskoak: "Alde gogorra, batetik, eta melodia eta ahots erregistro bereziak, bestetik".

Xarmak Eskoriatzan egingo du diskoaren aurkezpen ofiziala: gaur, 19:00etan, Inkernu tabernan izango da.

ESANAK

**"Xarmaren bi aldeak uztartzen ditu lanak"**

IKER BARANDIARAN | DANBAKA



Jon Kirru Iparragirre, Itsaso Gutierrez eta Iker Barandiaran. | MIREN ARREGI

# Oñatin film laburren II. rallya egingo dute azaroaren 5ean; Eskoriatzan, hilaren 19an

Internet bidez eman daiteke izena Oñatiko lehiaketan: 'www.olrallya.com'

A.E. | ARRASATE

Oñatiko film laburren II. rallya egingo dute azaroaren 5ean, Irudiz publizitate agentziak antolatuta. Lehiaketan parte hartzeko aurrez eman daiteke izena Internet bidez: *www.olrallya.com* helbidean eta egunean bertan ere egongo da aukera. Izena ematen duten lehen 20 taldeak onartuko dituzte.

**Materiala norberaren esku**

09:30ean egingo dute aurkezpena eta gaiaren banaketa. Gainera, antolakuntzak herriko hamar toki emango ditu eta horietatik, gutxienez, hiruk agertu beharko dute lanean. Lanaren iraupena hiru minutukoa izango da, gutxienez. Parte-hartzaileek beharrezko materiala eraman beharko dute; antolatzaileek, berriz, lokala, mahaiak, aulkiak eta luzagailuak jarriko dituzte. Lanak 19:00etarako aurkeztu beharko dira. Ondoren, lanen proiekzioa eta sari banaketa egingo dute.



Iaz Espinaka Films taldeak irabazi zuen lehenengo saria Oñatin . | IRUDIZ

**Eskoriatzan azaroaren 19an**

Bestalde, *Eingeinke*-k film laburren II. lehiaketa antolatu du. Azaroaren 19an 09:30etik 10:00etara hartuko dituzte taldeak.

# 'Errautsak' antzezlan sarituaren azken emanaldia Elgetan

Azaroaren 26an 22:00etan izango da emanaldia Elgetako Espaloia antzokian

A.E. | ELGETA

2011ko Donostia antzerki saria irabazi duen antzezlana azken emanaldiekin dabil. Azaroan izango dira azken emanaldiak; eta, hain zuzen, Elgetan egingo dute azkena azaroaren 26an. Artedramak, Le Petit Theatre de Painek eta Dejabu Panpin laborategiak elkarrekin egindako lana da *Errautsak*.

2010ean Donostian estreinatu zuten antzezlana.

**Iturriaga eta Elortzak idatzia**

Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzitako elkarrizketekin osatutako lana da, eta taula gaineko zuzendaritzaz Simon Fuchs arduratu da. Sei aktorek parte hartzen dute lanean: Ximun eta Manex Fuchs, Ander Lipus, Miren Gaztañaga, Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondok.

Hainbat urte elkarren berri izan gabe igaro ondoren, sei protagonistak berriro ere elkartuko dira. 40 urte inguru dituzte orain, eta lagun baten hiletan elkartu dira. Hala, gau oso batez gaztaroko kontuak –sexua, droga eta rock-and-rolla– ekarriko dituzte gogora, garai hartako musikaz lagunduta (Kortatu, Delirium Tremens, Itoiz...).

Emanaldia azaroaren 26an izango da, 22:00etan, eta partaide guztiak izango dira Elgetan.

# Rafa Rueda eta Split 77 izango dira Kooltur Ostegunetan azaroan

Datorren astean, azaroak 3, The Screamin' Targets arituko da gaztetxean

IRATI GOITIA | ARRASATE

Urriaren 6an abiatu zen Kooltur Ostegunen errubera, eta ez du gelditzeko asmorik. Hala, asteon aurkeztu ditu Kooltur Ostegunak ekimenak datorren hileko kontzertuak. Oraingoan ere talde indartsu eta interesgarriekin bete digute azaroko hilabetea. Hona hemen egitaraua: The Screamin' Targets azaroaren 3an, Tom Tom Makuts azaroaren 10ean, Rafa Rueda azaroaren 17an eta Split 77 azaroaren 24an. Kontzertu bikainekin gozatzeko aukera paregabea berriro ere.


The Screamin' Targets taldeko kideak. | GOIENA

### The Screamin' Targets

Azaroko lehen kontzertua datorren astean, azaroaren 3an, izango dugu The Screamin' Targets talde donostiarrarekin. 2010ean sortutako taldea da, baina partaideek esperientzia handia dute, aurretik beste talde batzuetan aritutakoak dira-eta. Honakoak dira: Arturo Ibañez (gitarra), Arturo Zumalabe (bateria), Beñat Bergara (baxua) eta Gigi Peligro (ahotsa eta gitarra). Rock-and-roll eta power pop estiloa egiten dute eta Flaming Groovies, Plimsouls, Nerves eta Buel Angel taldeen ukituak dituzte euren letrek. Eskaintzen duten rockak dantzarako gonbita egiten du.

### Datozenak: Zea Mays, NCC...

Azaroko eskaintzaz gain, aurrerago Zea Mays, NCC eta Makala etorriko direla ere iragarri dute Kooltur Ostegunak ekimenetik. Gogora ezazue kontzertu guztiak eguenetan izango direla Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Sarrera bost euro da.

# Potemkin talde oñatiarrak bere ibilbidea etetea erabaki du

I.G. | OÑATI

Potemkin talde oñatiarrak atsedenaldia hartzea erabaki du. 2003an sortu zen taldea, eta, orain, zortzi urteko ibilbide emankorraren ostean, atseden hartuko dutela iragarri dute.

### Danbakako finalean

Askok gogoratuko dute Danbakako lehen edizioko final lehiatsu hura; Sharon Stoner eta Potemkin talde oñatiarrak buruz buru lehiatu ziren eta izugarrizko maila erakutsi zuten biek ala biek.

Ordutik hona, ordu asko egin dituzte Potemkineko mutilek errepidean; hala, taula gainean 100 zuzenekotik gora eskaini dituzte eta ibilbide honetan bi disko kaleratu dituzte: *Potemkin* eta *Gauaren zaindariak*.

Taldekideen Facebookeko orrian zaleei agur mezu berezia utzi diete. Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkiete jarraitzaileei: "Mila esker, kontzertuetara etorri zareten guztioi, amets hau gauzatzen lagundu gaituzuen guztioi eta, nola ez, beti ere isilpean gu guztion ondoan egon zaretenoi une on zein txarretan". "Laster arte" esanez bukatu dute sare sozial ezagunean utzitako agur-mezua. Oraingoz, beraz, itxaron egin beharko dugu *Rock_N Rolla Ta Zu*, *Infernuan* eta halako abestiak zuzenean entzuteko.


Potemkin taldeko partaideak. | POTEMKIN



JAKION
* 50 eurotan baloratutako sorta.

goienakluba

Azaroan datorrena!

Debagoiena ezagutzen parte hartu eta irabazi Jakionek emandako produktu sorta*

Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com


# Laino skate parkearen II. urteurren jaialdia bihar

Bazkaria, skate lehiaketa, antzerkia eta kontzertuak antolatu dituzte ospakizunerako

I.G. | BERGARA

Bergarako Laino skate parkeak bi urte egin ditu ireki zenetik, eta, hori ospatzeko, urteurren jaialdia egingo dute bihar. Egun osoko egitarau zabala antolatu dute horretarako.

### Parrillada eta DJak

Eguerdian ekingo diete ospakizunei, parrillada eginda. 14:00etan izango da bazkaria; txartelak 10 euroren truke erosi ahal izango dira.

Arratsaldean festak jarraitu egingo du, eta, horrela, 17:00etan skate txapelketa egingo dute. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena; ez dago inolako baldintzarik. Lehenengo saria 300 euro da, bigarrena 150 eta hirugarrena 50. Bestalde, skate materialaz osatutako sariak ere banatuko dituzte skate truku onenak egiten dituztenen artean.

Lehiaketaren ostean, 22:00etan, antzerkia egongo da. Lagrima taldeak *El pueblo* izeneko antzezlana eskainiko du. Antzerkia bukatu ostean, kontzertuak izango dira: The Soulbreaker company, Sumision City Blues eta Fiachras. Talde horien emanaldien ostean, Bergarako bi DJk jarriko dute musika.

**EGITARAUA**

**14:00** Parrillada.

**17:00** Skate txapelketa.

**22:00** Antzerkia.

**Ondoren** Kontzertuak eta DJak.

# Gaztemaniak! programaren barruan, kontzertu interesgarriak gurean

I.G. | ARRASATE

Gaztemaniak! Gipuzkoako Foru Aldundiak haur, nerabe eta gazteei zuzentzen dien programa da eta horren barruan hainbat kontzertu eskainiko dira Gipuzkoako zenbait herritan. Zehazki, Gipuzkoako bost udalen –Donostia, Arrasate, Hondarribia, Oñati eta Zarautz– arteko musika programa da; urtero hitzarmen baten bitartez eguneratzen dena.

### Hamahiru kontzertu

Gaztemaniak!-eko antolatzaileek diote kontzertuen programazioa 20 eta 30 urte bitarteko entzuleei zuzendua dagoela eta emanaldiak antolatzeko orduan kontuan hartzen dituztela proposamen minoritarioak, ausartak eta ezberdinak. Guztira, hamahiru kontzertu daude programatuta: bost Donostian, bi Arrasaten, bi Hondarribian, bi Oñatin eta beste bi Zarautzen. Azaroaren 5ean izango da Oñatiko kontzertua; Electric Boys eta Jukebox taldeak arituko dira bertan. Arrasaten, bestalde, azaroaren 25ean joko dute Lac La Belle taldeak eta Xabi eta Pettik.







ARITZ GORDO



Sebas Roldan bere pasioa, skatea, praktikatzeko prest.

TXOMIN MADINA

**Sebas Roldan** | Skaterra

# "Patinean hanka bat jarri orduko bizitza ematen du; beste mundu bat da, aske sentiarazten du"

**TXOMIN MADINA** | ARETXABALETA

Berba egiten duenean nabari ez zaion arren, argentinarra da jaiotzez Sebas Roldan. 27 urte ditu, eta azken hamarkada honetan mundua skate taularen gainetik ikustera ohitu da. Pasioa da harentzat skatea, "ia bizi izateko estilo bat".

**Ezinbesteko galdera: nola sartu zinen skate munduan?**

16-17 urterekin izan zen hori; jendea patinatzen ikusten nuen *U*-an edo kalean eta kuriositatea piztu zitzaidan. Egia da patinean hanka bat jarri orduko bizitza ematen duela; beste mundu bat da, askatasun handia sentitzen da.

**Eta hortik, pentsatzekoa denez, apurka-apurka gauza zailagoak eginez joango zinen, ezta?**

Hasieran kosta egiten da, baina kontua da patinatzea, patinatzea eta patinatzea. Gero eta gauza zailagoak probatu gura izaten dira, leku handiagoetan: eskaileretan, barandetan, kalean, skate parkean... Horrelakoa da skatearen mundua, gauzak probatzen joan behar da.

**Ospitaletik buelta asko eman behar izan dituzu?**

Zazpi aldiz... Edo gehiagotan, askoz gehiagotan. Bihurrituak, zaintiratuak, buruan golperen bat ere bai... Beti saiatzen gara halakoak saihesten. Hasieran egin gura genuena ez egitearen arantzatxoa geratzen da, baina berriz saiatzen gara lortu arte.

**Skate munduan adituak ez garenondako, zein modalitate daude?**

**Eta horien artean zein da gehien gustatzen zaizuna?**

Aukera asko daude: *U*-an patinatzea, *bowl*-ean, *bainera* deitzen diogun horretan, skate parkean, kalean... Niri kalean gustatzen zait gehien, skate librea egitea. Egia da kalean askok ez gaituztela ondo hartzen, jende nagusiak askotan gaizki begiratzen digula... Ez dute kirol moduan hartzen.

**Skate mugimendu handia dago inguruetan?**

Hemen inguruan patinatzen duen jende asko dago. Batzuek, lan kontuengatik akaso gutxik, baina urte osoan zehar patinatzen dute. Baina beste batzuentzat moda bat da: denboraldiaren arabera, udan skatean edo surfean ibiltzen dira, eta neguan snowboardean.

**Skaterrak hip-hoparekin, grafitiekin lotzen zaituztegu...**

Askok patina mundu modernoarekin lotzen dute, baita jende gaiztoarekin, drogekin, hip-hoparekin eta raparekin ere. Baina patina librea da, egon daiteke hippyrik, baita punkik ere... Edonor da patina hartzeko libre; janzkerak janzkera, kontua da patinatzea.

**Noraino heldu gurako zenuke? Skatea egitetik bizi izatea da zure helburua?**

Ez, nire helburua da skateaz gozatzea, baita zaharra izanda ere. Skatea da bizitza honetan dudan gauzarik onena da, lagundu egiten dit arazoekin-eta. Ia bizi izateko modua bat da.

**Orain skatean ibiltzen zara, baina igeriketan ere ibilitakoa zara. Jarraitzen duzu?**

Igeriketan ibili nintzen, baita futbolean ere, baina orain ez. Guztiz ezberdina da: igeriketako eta futboleko entrenamentuetan, beti dago norbait agintzen zer egin behar den. Skatean dena norberaren araberakoa da, bai zein truku egin, baita zenbat ordu eskaini ere.

**Skateaz gain, zer egiten duzu?**

Sorosle moduan egiten dut lan Eskoriatzako igerilekuetan. Igeriketa ikastaroak ere ematen ditut Goienasportekin. Eta euskara ikasten ari naiz Gasteizen... Apurka-apurka noa; zaila da, baina 4-5 urratsean nago.

**Aretxabaletan bizi arren, jaiotzez argentinarra zara...**

Bai, amaren aldetik denak Aretxabaletakoak dira, baina aitaren aldetik, denak Argentinakoak. Duela 9-10 urte heldu nintzen. Gu oso irekiak gara, eta hasieran hemen kosta egin zitzaidan jendea irekitzea, kritikarik ere egon zen. Baina gero, jendea ireki egin zen eta orain oso gustura nago hemengo jendearekin.

## PERTSONALA

**Aretxabaletako txoko maiteena:** Ez daukat leku berezirik, dena gustatzen zait.

**Egindako bidaia onena:** Igeriketagatik Brasil eta Paraguaira egindakoa.

**Eta egin gurako zenukeena:** New Yorkera joango nintzateke; baita san Frantzisko eta Hawaiira ere .

**Kantu gustukoena:** Pink Floyden *Time*.

**Musika talde bat:** The Soft Machine.

**Pelikula bat:** *Los amos de Dogtown.*

**Gosari gustukoena:** Laranja-zukua, ogi txigortua, kruasanak, saltxitxak, arrautzak...

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 73 metro koadroko etxebizitza salgai. 18 metro koadroko garaje itxiarekin. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 660 70 04 48

**Aramaio.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai, Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoaldera begira. Ganbara eta garaje itxia. 652 72 83 60 edo 945 44 53 52

**Eskoriatza.** Etxebizitza duplexa, 120 metro koadrokoa, salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 16 24 96

**Oñati.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai Kalebarrian. Sukaldea, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabilgarria eta trastelekua ere baditu. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 665 71 77 98

**Oñati.** Etxea salgai Kale-Zaharrean. 90 metro koadro gehi ganbara. Hiru logela. Oso eguzkitsua. Garajerik ez. Prezio negoziagarria. 657 79 43 29

**Oñati.** Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Trastelekua eta garaje itxia. Errementari plazan. 653 73 08 04

**Oñati.** Etxebizitza, 110 metro koadrokoa, salgai Errementari plazan. 9 urteko antzinatasuna. Hirugarren solairua. Lau logela, bi komun, egongela handia, dena guztiz jantzia . Bi trasteleku eta bi plazako garaje itxia. Oso argitsua eta prezio interesgarria. 670 39 51 30

### 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 00 84 92

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 28 75 10

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Baserri batean logela ematen da errentan, sukalde eta abarrak erabiltzeko aukerarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu beharko. Deitu 679 34 00 45 telefonora

**Bergara.** Bi pertsona behar dira etxe bat osatzeko. Deitu 678 23 54 93 zenbakira.

**Eskoriatza.** Erdigunean, pisua konpartitzeko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685 73 60 57

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Eskoriatza.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. Deitu 679 16 24 96 telefono zenbakira.

## 3. LOKALAK

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Erdigunean, bulegoa lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltetan erabiltzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu 651 70 17 41 telefono zenbakira

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. Interesatuok deitu 678 32 90 62 telefono zenbakira.

**Bergara**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
Langilea. Egun osoz.
943 53 24 52

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. 606 88 94 14

**Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasatekoa naiz. Deitu 665 73 10 08 zenbakira

**Bergara.** Bergarako emakumea etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Deitu 696 84 19 51 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. 636 60 90 24

**Debagoiena.** Neska 20:00etatik aurrera eta asteburuetan lan egiteko gertu. Deitu 677 12 75 44 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Elikagaien manipulazioarako titulua daukan neska gertu sukaldean lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. Deitu 659 37 41 95 edo 681 37 60 13 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaie jarduteko. Gidabaimena dut. 600 81 99 34

**Debagoiena.** Esperientzadun neska, arratsaldean, nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 696 70 55 09 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun auto mekanikaria lanerako gertu. Deitu 660 23 12 73 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbitasunean edo sukalde laguntzaile gisa. Deitu 691 03 25 02 edo 697 88 35 62 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, gertu nagusiak zaintzeko. Baita bestelako lanetarako ere. 673 60 77 38

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. 646 22 29 35

